



**HAURREN ETA
NERABEEN KONTRAKO
INDARKERIARI AURRE
EGITEKO EUSKAL
ESTRATEGIA**

2022/25

Apurtutako
jostailu
gehiago ez



**ZENTZUMEN GUZTIAK
HAURRENGANAKO
INDARKERIAREN AURKA**



Euskadi, auzolana

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

978-84-457-3651-7



9 788445 736517



**HAURREN ETA
NERABEEN KONTRAKO
INDARKERIARI AURRE
EGITEKO EUSKAL
ESTRATEGIA**

2022/25

Apurtutako
jostailu
gehiago ez

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:

1.a, 2022ko apirila

Ale-kopurua:

110 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Komunikazio Zuzendaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

L.G.:

LG G 323-2022

ISBN:

978-84-457-3651-7

AURKIBIDEA

Sarrera eta helburuak.....	5
Araudi mailako esparrua	9
Marko teorikoa eta kontzeptuala	15
Zer da haur eta nerabeen aurkako indarkeria: zergatiak eta ikuspegia	15
Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren modu eta mota desberdinak:	21
Diagnostikoa: haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren arazoaren inguruko datu batzuk	25
Familia barruko umeen tratu txarrari buruzko datuak:	29
Sexu indarkeriarekin lotutako datuak:	31
Berdinen arteko indarkeriarekin lotutako datuak:.....	34
Haur eta nerabeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako datuak:	36
Erakunde indarkeriari lotutako datuak:.....	40
Haur eta nerabeen aurkako beste indarkeria modu batzuekin lotutako datuak:	41
Indarkeria erabiltzen duten haur eta nerabeekin lotutako datuak:.....	43
Laburbilduz: 20 daturik adierazgarrienak	45
Printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak	47
Funtsezko printzipioak.....	48
Zeharkako ikuspegiak	51
Ereduaren irizpideak	55
Helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak	59
1. Ardatza: eskubideen sustapena eta prebentzioa	65
Helburu estrategikoa	65
Justifikazioa.....	65
Jarduteko ildoak.....	68
Jarraibideak.....	69
Eragileak	73

2. ardatza: hautemate goiztiarra eta komunikazioa	75
Helburu estrategikoa	75
Justifikazioa.....	75
Jarduteko ildoak.....	78
Jarraibideak.....	79
Eragileak	82
3. ardatza: arreta eta erreparazioa.....	83
Helburu estrategikoa	83
Justifikazioa.....	83
Jarduteko ildoak.....	86
Jarraibideak.....	87
Eragileak	91
4. ardatza: lankidetzaren eta ezagutzaren kudeaketa	93
Helburu estrategikoa	93
Justifikazioa.....	93
Jarduteko ildoak.....	95
Jarraibideak.....	95
Eragileak	99
Estrategiaren gobernantza	101
I. eranskina: ohar metodologikoak.....	105
II. eranskina: araudi-esparrua.....	111
III. Eranskina: kontzeptu interesgarrien glosarioa	115
IV. eranskina: datuen taulak	123

SARRERA ETA HELBURUAK

“Haurren aurkako indarkeriaren arbuioan ezin da amorerik eman. Haurren eta nerabeen berezitasunak –haien giza potentziala, hauskortasuna eta hasierako zaurgarritasuna, hazteko eta garatzeko helduekiko duten mendekotasuna– indarkeria prebenitzearen eta haurrak babestearen aldeko argudio eztabaida ezina sortzen du”¹.

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, eta, gainera, giza, gizarte eta ekonomia kostu izugarriak eragiten ditu.

Orain arte egindako ikerketek adin txikikoen ongizatean, osasunean eta segurtasunean dituzten ondorio kaltegarriak eta iraunkorrak ikusarazten lagundu dute, baita errendimendu akademikoan edo produktibitatean, eta, oro har, gizartearen eta herrialdeen garapenean ere. “Haurrekiko indarkeriaren aurka garaiz egindako prebentzio egokiak epe luzera karga sozial eta ekonomiko handia dakartzaten arazo ugari artatzeko aukera ematen du”².

Euskadiko erakundeek ibilbide luzea dute zaurgarritasun-egoeran dauden haur eta nerabeen prebentziorako, detekziorako, arretarako, babeserako eta erreparaziorako hainbat motatako (planak, programak, zerbitzuak...) neurriak eta politika publikoak garatzen. Erakundeek haien eskumenetatik eta erreferentziazko araudiak esleitzen dizkien funtzioetatik egiten dute lan, arlo oso desberdinetatik, hala nola justiziatik, gizarte-zerbitzuetatik, osasunetik, segurtasunetik, hezkuntzatik, aisialditik eta denbora libreten, kiroletik, etab. Horietako sektore askotan eragile sozialek ere jarduketa baliotsuak egiten dituzte.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiken Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritzak sustatu du Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Estrategia (2022-2025) esperientzia hori guztia, pilatutako ezagutza eta norabide berean aurre egiteko eragile askok egunero egiten duten ahalegina **artikulatze**ko. Halaber, uste oso batetik abiatu da: haur nerabeen aurkako indarkeriaren prebentzioak eragileek eta sistemen arteko **kooperazioa eta elkarlana** behar du, bakoitzak bere aldetik lan eginez gero ezin baita gaia modu eraginkorrean jorratu. Alde horretatik, estrategia **ahaleginak batze**ko

1 PINHEIRO, P. S. *Haurren aurkako indarkeriari buruzko munduko txostena*. Nueva York: ONU, 2016.

2 PINHEIRO, P. S. *Haurren aurkako indarkeriari buruzko munduko txostena*. Nueva York: ONU, 2016.

aukera da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) haur eta nerabe guztiak indarkeriarik gabe bizi eta hazi ahal izateko.

Esparru honen helburua partekatutako **mugarriak** identifikatu eta proposatzea da estrategia, lortzeko egin beharreko bide nagusiak aipatzea eta balio eta printzipio komunekin modu koherentean bidea egiteko **jarraibideak** eskaintzea. Hainbat erakundek egiten dituzten jarduketak lerrokatzea helburu duen estrategia da, planak eta bilduta geratzen diren erreferentziako beste dokumentuak inspiratuz.

Halaber, herrialde mailan haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren inguruko **begirada partekatua** eraikitzeke tresna da. Alde horretatik, hau bezalako fenomeno multidimentsional baten arrazoiak eta ondorioak ulertzen laguntzeko ikuspegi integrala ezartzearen alde egin da eta haur eta nerabeen aurkako indarkeria desberdintasunean oinarritzen diren harremanen botere-abusuaren ondorioztat hartzen da, eta barne hartzen ditu bai kalte fisiko eta nahita eragindakoa, bai fisikoak ez diren eta mina emateko helbururik ez duten moduak.

Halaber, nabarmendu behar dugu estrategia haur eta nerabeekiko errespetuan eta haien giza duintasunaren eta eskubideen titular gisa duten osotasun fisiko eta psikologikoaren sustapenean oinarritzen den paradigmatic eginda dagoela³. Paradigma hori Haurren Eskubideen inguruko Hitzarmenak (aurrerantzean, HEH) ezartzen du eta gure gizarte-erakuntzak duen ikuspegi helduzentrista gainditzeko funtsezko zutarrria da. Ikuspegi horrek harreman asimetrikoak ezartzen ditu, helduen nagusitasun balioak sustatzen ditu eta adin txikikoekiko boterearen abusua legitimatzen du. HEHk helduak gonbidatzen ditu haur eta nerabeei orainaldian begiratzera eta ez "helduen proiektu" modura (...). "Egun pertsona izateko modu bat da, balizkoa eta errespetagarria, ez da gurasoekiko edo beste helduekiko mendekotasunaren edo dependentziaren ideiatik definitzen den bizitzako fasea, baizik eta autonomia pertsonal, sozial eta juridikoaren garapen eraginkor eta progresiborako etapa"⁴.

Finean, estrategia honen helburua Euskadiko erakundeak **prestatuago** egotea da, honetarako: indarkeria-mota oro saihestea; indarkeria-egoerak lehenago hauteman eta aurretiaz esku hartzeko; egindako kalte guztiak erreparatzeko arretan eta laguntzan integralitate handiagoa eskaintzeko; errealitatea hobeto eta gehiago ezagutzen duen erakundeen sarearen elkarlana eta kolaborazioa finkatzeko, etengabe hobetu ahal izateko eta kalitatezko arreta eskaintzeko.

Estrategia egiteko parte hartzeko prozesu baten alde egin da eta gogoetak partekatze eta instituzio eta gizarte-erakunde ugariaren proposamenak jasotzeko aukera eman du. Izan ere, haien lanak eragina du EAEko haur eta nerabeen ongizatean eta askotariko arloetatik jorratzen da. Halaber, prozesuan zuzenean parte hartu dute haur eta nerabeek, eragiten dien indarkeriaren inguruan duten ikuspegia txertatzeko.

Estrategiak haur eta nerabeen aurkako indarkeria ZER den jorratzen du lehenik eta behin, eta erreferentzia gisa hartzen ditu nazioarteko, Europako, estatuko eta Euskadiko araudi mailako esparruaren legezko tresna nagusiak. Jarraian, marko teorikoa eta kontzeptuala

3 NAZIO BATUAK. HAURREN ESKUBIDEEN BATZORDEA. 13. Ohar orokorra. Inolako indarkeriaren biktima ez izateko haurren eskubidea (CRC/C/GC/13, 2011ko apirilaren 18koa).

4 HAURREN LAGUNTZARAKO NAZIO BATUEN FUNTSA (UNICEF). *Helduzentrista gaindituz*. Santiago, Txile: UNICEF, 2013.

garatzen du, estrategiaren helburua zein den mugatzen laguntzeko eta eskubideen urraketa inguruko ikuspegi komuna hartzeko.

Gero, arazoa jorratzea ZERGATIK den garrantzitsua planteatzen du eta zergatik den beharrezkoa horrelako estrategia bat. 2019an Eusko Jaurlaritzako, Haur eta Nerabeen Behatokiak egin zuen "Haur eta nerabeekiko indarkeria EAEn: diagnostikoa, erronkak eta gomendioak" txostenaren eguneraketaren bitartez EAEn fenomeno horrek dituen dimentsioetara hurbildu ahal izan da datuetan eta aurre egiteko kontuan hartu behar diren erronka nagusiak identifikatu dira.

Eskuragarri dauden indarkeriaren eta datuen definizioa aurkeztu osteko atalek strategiaren HELBURUEI egiten diote erreferentzia; hau da, zer bultzatu nahi den eta NOLA. Laugarren atalean gai honen inguruko lana bideratu behar duten printzipio eta ikuspegi nagusiak aurkeztu eta deskribatzen dira, eta bosgarren atalak botere publikoen jarduna bideratzeko strategiaren eduki nagusiaren oinarrian dauden lau ardatzak eta helburu estrategikoak aurkezten ditu.

Gero, jarduera-ildo nagusiaren ardatz bakoitzarentzako atal bana gehitzen da, baita kontuan izan beharreko jarraibideak eta gidalerroak ere.

Azkenik, azkeneko atalean estrategia jarraitzeko prozedurak ezartzen duen gobernantza-eredua aurkezten da.

Dokumentua ixteko bost eranskin daude: lehenak estrategia egiteko prozesuaren ohar metodologikoak ditu; bigarrenak arauen erreferentzien zerrenda zehatza du; hirugarrenak, kontzeptu interesgarrien glosarioa; laugarrenak, diagnostikoaren datuak dituzten taulen bilketa; eta, azkenak, strategiaren jarraipena egiteko tresnak.

Azkenik, nabarmendu behar da strategiarekin batera separata bat dagoela, eta bertan ageri dela EAEn egun haur eta nerabeekiko indarkeria-egoerak prebenitzeko edo esku hartzeko dauden baliabideen eta estrategien mapa.

ARAUDI MAILAKO ESPARRUA

EAEk haur eta nerabeen politiken inguruko erantzukizuna onartu zuen 1979ko Autonomia Estatutuaren bitartez. Ordutik, gaiaren inguruan etengabeko legezko bilakaera egon da eta horren adibide da estrategia adin txikikoen eskubideen eta babesaren inguruan estatu mailan egon den azken mugarri handia izapidetzen ari ziren bitartean egin dela estrategia hau. Lege hori ekainaren 4ko eta berriki onartutako 8/2021 Lege Organikoa da, indarkeriaren aurrean haur eta nerabeei babes osoa eskaintzeari buruzkoa (aurrerantzean, LOPIVI).

Haur eta nerabeak defendatzeko eta sustatzeko arauen sarea oso handia da eta bi formatutan bilduko baitugu. Atal honetan arau mugarrietako batzuk nabarmenduko ditugu eta IV. eranskinean kontsultatu ahal izango da nazioartean, estatuan eta erkidegoan gai horren inguruan eskuragarri eta indarrean dauden araudi-esparruaren mailako tresna guztien zerrenda.

Nazioartean, 1989an onartu zen erreferentzia eztabaidea duen hitzarmena eta mugarria izan zen haur eta nerabeen eskubideen sustapenerako, baita pairatzen dituzten indarkeria mota guztien prebentziorako eta amaierarako ere. Hitzarmen hori Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena⁵ da (aurrerantzean, HEH) eta Estatuak 1990ean onartu zuen. Dokumentuak adin txikikoen eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, sanitarioak eta kulturalak jasotzen ditu.

HEH, aurreko testuak ez bezala, arau loteslea da eta haur eta nerabeak eskubideak dituzten subjektuaren inguruko paradigma aldatzea da helburu nagusia; izan ere, onartu eta 35 urtera, oraindik indarrean dago eta erronka bat izaten jarraitzen du erakundeentzat eta gizarte osoarentzat.

HEHk dio adin txikikoa “18 urtetik⁶ beherako gizaki oro” dela, eta zehazten du haur eta nerabeek eskubideak dituztela eta ez direla babestu beharreko subjektuak soilik. Adin txikikoak gizakien beste kolektibo batzuetatik bereizten dituen gauzetako bat da hauek hainbat giza eskubide mota dituztela -pertsonek gisa dagozkienak eta heldua izateko bidean haien babesa, garapenaren sustapena eta ongizatea barne hartzen dituztenak-.

Adin txikikoek haien eskubideak modu eraginkorrean erabil ditzaten, HEHk pertsona heldu guztiei saihesten ezin daitekeen erantzukizuna esleitzen die, eta beti haurren edo nerabearen interes gorenari erantzunez jardun beharko dute.

5 NAZIO BATUAK. BATZAR OROKORRA. *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena*. 1989. New York: Batzorde Orokorra (1990)

6 *Sinatu duten estatuak adin nagusitasuna 18 urteen aurretik emateko legezko eskumena duten kasuetan izan ezik.*

HEH sinatu duten estatuak behar bezala interpretatu eta ezartzeko, adituek osatutako Haur eta Nerabeen Eskubideen Batzordeak ohar orokorrak eta gomendioak igortzen ditu. Indarkeriaren aurrean haurren babesa hobetzearekin zuzenean lotuta daudenak IV: eranskinean ageri dira.

Europa mailan, 1992an, Europako Parlamentuak Haurren Eskubideen Europako Gutuna onartu zuen⁷ eta aitortu zuen haur eta nerabeen beharrek eskubide batzuk sortzen dituztela eta, beraz, baita familia, estatu eta gizartearentzako betebeharrak ere.

2011ean, Batzordeak EBren Agenda komunikazioa onartu zuen haurren eskubideen alde eta EBn Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunaren eta haur eta nerabeen eskubideen inguruko HEHren xedapenak kontuan hartzerakoan jarduteko printzipio nagusiak ezarri zituen: gainera, eskubide horiei bultzada berria emateko eta helburu politikoak neurrietan islatzeko beharra nabarmendu zuen.

Adin txikiko pertsonak babesteko printzipioak 2012ko Europar Batasuneko Hitzarmenean ere txertatuta daude eta hark ezartzen du bere eskubideen babesa sustatuko dela (3. art.).

2017an, Adingabearen eskubideak babesteko gidalerroek⁸ zehaztu zuten EBren ikuspegia, adin txikikoen eskubideak politika eta kanpo-ekintza guztietan kontuan har daitezzen bermatzeko.

Bestalde, Europako Kontseiluak haurren eskubideen alderdi zehatzen inguruko hitzarmenak egin ditu. Horien artean nabarmendu behar da, indarkeriarekin duen lotura zuzenarengatik, Haurrak sexu-esplotazioaren eta –abusuen aurka babesteko Hitzarmena. Europako Kontseiluaren Haurren Eskubideentzako Estrategiak 2016-2021 erronketara bideratzen du ekintza eta arretarako lehentasunezko bost arloen artean dago indarkeriarik gabeko bizitza izatea.

Espainiar Estatuan, haur eta nerabeek indarkeriaren aurrean jaso behar duten babes osoak aipamen berezia du 1978ko Espainiako Konstituzioan, 15. eta 39. artikuluetan. Gai honen inguruko esparru juridikoaren funtsezko pieza berriki onartutako LOPIVI legea da, eta haur eta nerabe guztien babes osorako estatu mailako esparrua finkatzen du. 2021eko ekainaren 2an, 8/2021 Legea onartu zen, legedia zibila eta prozesala aldatzen duena, eta haur eta nerabeen aurkako indarkeriari dagokionez, bisiten, zaintzen eta guraso-ahalen araudia zabaltzen du, genero-indarkeriaren kasuetan⁹.

Aurretik, 2015ean, adin txikikoen babes juridikorako tresnak hobetzeko eta gaian haiei dagokien legedia garatzeko Autonomia Erkidegoen erreferentzia izan zezaten, adin txikikoen babeserako sistema erreformatu zen bi lege-piezen arabera: uztailaren 22ko

7 EUROPAKO PARLAMENTUA. Haurren Eskubideen Europako Gutuna. (Europako Erkidegoetako Aldizkari Ofiziala, C 241 zk., 1992ko irailaren 21ekoa).

8 EUROPAKO KONTSEILUA. *Adingabearen eskubideak babesteko gidalerroak*. Europako Kontseilua, 2017ko abenduaren 10ekoa.

9 GORTE NAGUSIAK. 2021eko ekainaren 2ko 8/2021 Legea, desgaitasuna duten pertsonen haien gaitasun juridikoa gautzen laguntzeko legedia zibila eta prozesala erreformatzen duena. (BOE, 132. zenbakia, 2021eko ekainaren 3koa).

8/2015 Lege Organikoa¹⁰ eta uztailaren 28ko 26/2015 Legea¹¹. Horren xedapenek 1/1996 Lege Organikoaren, Kode Zibilaren, 54/2007 Nazioarteko Adopzioarako Legearen, Prozedura Zibilaren 1/2000 Legearen eta, besteak beste, hezkuntzari, familia ugarietara edo prozedura kriminalari buruzko arauen alderdiak aldatzen eta osatzen ditu. Erreforma hori, laburbilduz:

- “Adin txikikoaren interes gorena” kontzeptua finkatzen du eta edukia ematen dio, jarraibideak eta kasu bakoitzean behar bezala aplikatu ahal izateko interpretazio-irizpideak ezarriz.
- Adin txikikoei eskubideen titulartasuna aitortzen die eta baita familiaren, eskolaren eta gizartearen arloan dituzten betebeharrak ere.
- Adin txikikoak genero-indarkeriaren biktima gisa aitortzen ditu.
- Sexu-askatasunaren aurkako, pertsonen salerosketaren eta adin txikikoen esplotazioaren balizko delituen berri autoritateei emateko pertsona guztiek duten betebeharra ezartzen du.
- Sexu-delitugileen erregistro nagusia sortu du eta adin txikikoekin lan egiteko mugak ezarri ditu.

Haurren Behatokiaren bitartez, Espainiako gobernuak haur eta nerabeen plan estrategikoak garatu ditu (PENIA) eta haur eta nerabeen aurkako sexu-esplotazioaren planekin osatu ditu (PESIA).

EAE mailan, 2005ean, Eusko Jurlaritzak otsailaren 18ko 3/2005 Legea onartu zuen, Haur eta Nerabeen Arreta eta Babesari buruzkoa¹² (LIA), eta EAEn lehen aldiz, gaiaren inguruko erreferentziarako esparru orokorra ezarri zuen. Legezko testu horrek beste arau-tresna batzuek dagoeneko haur eta nerabeei nazioartean, estatuan edo erkidegoan aitortu zizkieten oinarritzko eskubideak bildu zituen, eta, batez ere, EAEn bizi diren edo EAEn dauden adingabe guztiei buruzko administrazio-jarduna gidatu behar duten printzipioak ezarri zituen, eta, bereziki, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko eskumenak gauzatzeari buruzkoak.

LIAk babesgabetasun-egoeran edo arriskuan zeuden haur eta nerabeentzako babesaren inguruko kompetentziak ezarri zituen administrazioko hiru mailetarako.

Laburpen modura, jarraian, EAEn adin txikikoen arretarako kompetentzien oinarritzko egitura islatuko dugu administrazioko hiru mailak kontuan hartuz:


¹⁰ GORTE NAGUSIAK. Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa, haurren eta nerabeen babes-sistema aldatzen duena. (BOEren 175. zenbakia, 2015eko uztailaren 23koa).

¹¹ GORTE NAGUSIAK. Uztailaren 28ko 26/2015 Legea, haurren eta nerabeen babes-sistema aldatzen duena. (BOEren 180. zenbakia, 2015eko uztailaren 29koa).

¹² EUSKO LEGEBILTZARRA. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko. (EHAAREN 59. zenbakia, 1993ko martxoaren 30ekoa).

Legea partzialki aldatu zuen abenduaren 23ko 3/2009 Legeak, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legea aldatzekoak. (EHAAREN 251. Zenbakia, 2009ko abenduaren 31koa).

ADIN TXIKIKOEN ARRETAREN ESKUMENEN OINARRIZKO EGITURA EAEN



Iturria: geuk egina.

Egun, Haur eta Nerabeen Eskubideen inguruko Legearen Aurreproiektua izapidetzeko prozesuan dago. Hasiera batean, haur eta nerabeen arretarako eta babeserako Euskadiko araudi juridikoa azken urteotan estatuan onartu diren legezko xedapenetara egokitzeko sustatu zen arauaren izapidetzea. Alabaina, ikusi zen araudia eguneratzeko prozesua lege integrala egiteko eta onartzeko aukera izan zitekeela, ikuspegi orokor eta diziplina anitzekotik abiatuta, arlo hauetako alderdien eta neurrien erregulazioa barne hartzeko: partaidetza; sustapena (kontzientziazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza); prebentzioa (detekzioa eta arreta goiztiarra); haur eta nerabeen babesa (laguntzeko esku hartzea); eta eskubideen urraketen erreparazioa.

BALORA¹³ tresna 2010ean sortu zen eta aitzindaria izan da estatu mailan. Helburu honetarako egin zen: familian sortutako arrisku eta babesgabetasun-egoeren existentzia eta larritasuna balioestea, kasu bakoitzean babes-estrategia eta administrazio eskuduna, udalak edo foru-aldundiak definitu ahal izateko.

Tresna hau gurasoen edo legezko arduradunen partetik babeserako betebeharrak izan ditzaketen gabezien presentzia eta larritasuna baloratzeko sortu zen; beraz, ez du balio familiaz kanpoko arazoak baloratzeko. Gainera, instrumentuaren beraren arabera, babesgabetasunaren larritasuna baloratzen da gurasoek edo legezko arduradunek haurraren edo nerabearen izan dezaketen eraginaren arabera.

13 EUSKO JAURLARITZA. 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, EAEn haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresnaren eguneraketa onesten duena (BALORA). (EHAAREN 125. zenbakia, 2007ko uztailaren 3koa).

Halaber, 2008an, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legea¹⁴ onartu zen eta helburua familia-politika integralerako esparrua eta oinarriak ezartzea da, familien eta haien kideen ongizatea eta bizi maila hobetu ahal izateko, eta familiak babestu, arreta eman eta laguntzeko, familien alde erkidegoan indarrean dauden askotariko neurriak multzo koherente batean ordenatuz eta laguntzeko neurri berriak arautuz.

Emakume heldu, nerabe eta haurren aurkako indarkeria espezifikoari dagokionez, zeharkako erreferentziazko euskal araudia 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa da¹⁵, eta bizitzako arlo guztietan aukera-berdintasuna eta gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasuna sustatzeko neurrien multzoa arautzen du.

Arlo desberdinetatik zerbitzuak eskaintzeko erantzukizun publikoa hartzen duten erakunde publikoez gain, kontuan izan behar dugu sisteman paper garrantzitsua duten beste eragile sozial batzuek ere esku hartzen dutela. Alde batetik, programak, prestazioak eta zerbitzuak garatzen ari diren Hirugarren Sektoreko erakundeak izan behar dira kontuan, eta kasu batzuetan, adin txikikoei zuzendutako erantzukizun publikoko zorroak ere garatzen dituzte. Bestetik, komunitate-zerbitzuen sareak daude (ikastetxeak, kirolerako zentroak, aisialdia eta denbora libre...); haur eta nerabeei zuzendutako programak garatzen dituzte eta lehen prebentzioko ikuspegia dute. Bestalde, haur eta nerabeen eskubideen ezagutza eta sustapena sortzen laguntzen ari diren arlo desberdinetako (ikerketa, aholkularitza, prestakuntza, sentsibilizazioa, etab.) erakundeak eta adituak ere kontuan izan behar dira.

14 EUSKO LEGEBILTZARRA. 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei laguntzekoa. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 246. zk., 2008ko abenduaren 24koa).

15 EUSKO LEGEBILTZARRA. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 274. zk., 2011ko azaroaren 14koa).

MARKO TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA

Zer da haur eta nerabeen aurkako indarkeria: zergatiak eta ikuspegia

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa da. Gaian dauden erreferentzia nagusiek bat egiten dute adin txikikoen aurkako indarkeriaren definizioan eta desberdintasunean oinarritzen diren harremanetan ematen diren botere-gehiegikeriek sortutako egiturazko fenomenotzat dute. Min fisikoaren eta nahita egindakoaren formarik esplizituena (sexu-indarkeria, sexu-esplotaziorako salerosketa, emakumeen genitalen mutilazioa...) eta fisikoak ez diren formak (tratu txar psikologikoak, datu pribatuen difusio publikoa...) eta min egiteko asmorik ez dutenak (arduragabekeria, berriro biktima bihurtzea...) hartzen dituzte kontuan.

Giza eskubideen urraketa hori honela definitzen du LOVIPIk: "Indarkeria da adin txikikoei eskubideak eta ongizatea kentzen dieten ekintza, omisio edo tratu arduragabe oro, haien garapen fisikoa, psikikoa edo soziala mehatxatu edo oztopatzen badute, modua eta bitartekoa edozein dela ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez eginikoak barne, indarkeria digitala batez ere".

Eta gehitzen du: Nolanahi ere, indarkeria dira tratu txar fisikoa, psikologikoa edo emozionala; zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak; axolagabekeria edo tratu arduragabea; mehatxuak; irainak eta gezurrak; esplotazioa, sexu-indarkeria barne; galbidean jartzea; haur-pornografia; prostituzioa; eskola-jazarpenera; sexu-abusua; ziberjazarpenera; genero-indarkeria; genitalen mutilazioa; gizakien salerosketa, helburua edozein dela ere; behartutako ezkontza; haurren ezkontzak; baimenik gabe pornografiara sartzea; sexu-estortsioa; datu pribatuak publikoki zabaltzea eta familian indarkeriazko edozein portaera gotea".¹⁶

Definizioa haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren ikuspegi orokorretik abiatzen da eta administrazio publikoen jarduketan esparrua zabaltzen du. Gainera, azken urteotan izandako legezko aurrerapen sozialekin eta programazioekin bat egiten du eta biktimen eta indarkeriari aurre egin dioten haurren prebentziorako, hautemateko, arretarako, babeserako eta erreparaziorako erronka berriak aurkezten ditu.

**"Nahita norbait gaizki
sentiaraztea ere indarkeria da
eta ez da norbait jo edo iraintzea
bezain agerikoa"**

Haur edo nerabe baten lekukotza.


¹⁶ 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa. (2021eko ekainaren 5eko Estatu Aldizkari Ofiziala zk.134).

Osasunaren Mundu Erakundearen (aurrerantzean, OME) indarkeriaren eta osasunaren inguruko mundu txostenak dio “indarkeria faktore biologiko, sozial, kultural, ekonomiko eta politiko askotatik eratortzen den fenomeno oso konplexua” dela¹⁷. Estrategiak funtsezko erreferentzia gisa hartzen du, baina ez esklusiboki, **eredu ekologikoa**, haur eta nerabeen indarkeriaren kausa anitzeko izaera ulertzen ahalegintzeko; izan ere, indarkerian eragiten duten faktore kontaezinak identifikatzen eta elkarri nola eragiten dioten ulertzen laguntzen du.

Hazten garen inguruneak gure bizitzako alderdi guztietan eragina duela eta gure pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko modua askotariko faktore sozialek baldintzatzen dutela dioten hipotesitik abiatuta, ingurunea elkarren artean harremana duten eta, era berean, elkarri eragiten dioten sistemen-multzo gisa ulertzen da; beraz, horietako batek haurren garapenean duen eragina gainerakoekin duen harremanaren mende dago.

Alde horretatik, portaeren eredu sozial eta kulturek, faktore sozioekonomikoek (desberdintasuna eta langabezia barne) eta genero-estereotipoek ere funtzio garrantzitsua dute; beraz, **ondoriozta daiteke indarkeriak ez diela guztiei berdin eragiten**.

Eredu horrek maila desberdinak bereizten ditu eta pertsonarekin duten hurbiltasunaren arabera ordenatzen dira: norbanakoarena (faktore biologikoak eta historia pertsonalarenak); harremanarena (familia, lagunak, bikotekidea...); komunitatearen testuingurukoa (eskolak, lantokia, auzoa...) eta gizartearen egiturarena (balioak eta arau sozial eta kulturalak...).



Iturria: geuk egina.

17 OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA. *Indarkeria eta osasunari buruzko mundu txostena: laburpena*. Washington: Osasunaren Panamerikar Erakundea, Osasunaren Mundu Erakundeko Ameriketarako Herrialdeko bulegoa, 2002.

Maila bateko faktoreek beste batekoak indartu edo aldatu ditzakete eta agerian uzten du indarkeriaren prebentziorako hainbat mailatan aldi berean jardun behar dela. Halaber, indarkeria egoerak hauteman, arreta eskaini edo erreparatzeko une batean edo bestean eragin dezaketen hainbat faktore kontuan hartzen dituen estrategia beharrezkoa dela berresten du.

Eredu horren arabera, faktoreen sorta askotarikoa eta konplexua da, eta indarkeriarik badagoen ala ez erabakitzen ez duten arren, pairatzeko arriskua areagotu dezakete eta gertatzen lagundu, edo kontrara, indarkeriaren aurrean babestu ahal izateko oinarriak izan daitezke.

“Pertsona batzuek ez dute onartzen desberdina izan zaitzkeenik eta horregatik soilik zanpatu egin zaitzakete”

“Indarkeria ahulena dela uste denaren aurka erabiltzen da”.

Haur edo nerabeen lekukotzak.

Egiturezko mailan, **indarkeria-mota batzuen legitimizazio soziala**, harreman-modu gisa, eta tratu txarren kulturak sortzen dituzten kontsumo-jarraibideak, ereduak eta estereotipoak sustatzea edozein indarkeria-motaren haztegi dira.

Gainera, haur eta nerabeen aurkako indarkeria espezifikoki dagokionez, **bi elementu nagusi** izan behar dira kontuan fenomenoaz azaltzerako unean: mendekotasuna eta botere-harremanak.

1. Adin txikikoek **mendekotasun** harremana dute helduekin. Gainera, heldutasun eta garapen etaparen ondorioz, arrisku eta indarkeria-egoerei aurre egiteko tresna egokien falta izan dezakete. Ondorioz, edozein gizarteko herritarrik zaurgarrienak dira.
2. Helduen eta adin txikikoen arteko harremanaren ezaugarria **helduzentrismoa** da, hau da, gure gizartean asimetriak definitzen du (hierarkizaziorako eta bertikaltasunerako joera), eta beti nagusitzen da heldua adin txikikoaren gainetik. “Pertsona helduaren nagusitasunak kasu honetan esan nahi du helduaren figura erreferentziazkoa bihurtzen dela harentzat eta adin txikioarentzat, ereduari, autoritate-iturriari dagokionez. Hala, posizio asimetrikoari dagokionez, pertsona helduaren “egin ahal izatea” legitimatzen da adin txikikoaren aurrean. Normatibotasunaren adierazpen horrek estatusa ez du adin txikikoaren hazkunde pertsonala sustatzeko erabiltzen, bere beharrak asetzeko baizik, eta, orduan, aldeetako baten interesek baldintzatzen dute harremana”¹⁸.

Helduzentrismoaren aurrean, **haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia** hartu dugu. Beraz, erreferentzia gisa hartzen dugu HEH, paradigma-aldaketa ekarri zuelako. Izan ere, haur eta nerabeak babes-objektu gisa ez ezik, eskubide-substantiboaren subjektu gisa ere hartu ziren kontuan, bai giza eskubideen subjektu gisa, oro har, bai herritarren eskubi-

¹⁸ BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz*. Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

deen subjektu gisa bereziki. Cilleroren hitzetan, "Hitzarmena diskriminazio mota baten aurkako ituna da, haurrak pertsonen kategoriaren barruan sartzen ez dituenarena"¹⁹.

Mendekotasunarekin eta helduzentrismoarekin batera zapalkuntza, diskriminazioa eta indarkeria pairatzeko arriskua areagotzen duten beste elementu makrosozial batzuk daude.

Haur eta nerabeak ez dira elkarren artean berdinak diren pertsonak osatzen duten kolektibo homogeneous; kontrara, pertsona oso anitzak dira eta, beraz, aldagai askoren gainean eraikitzen dute haien identitatea. **Ikuspegi interseksionala** ezinbesteko tresna da haur eta nerabeen aurkako indarkeriari modu konplexu eta integralagoan aurre egin ahal izateko. Ikuspegi horrek erreferentzia egiten dio ezaugarri pertsonal edo sozial batek beste ezaugarrien multzoekin elkar eragina duen egoerari, eta desberdintasun egoera sortzen du.

Interseksionalitateak ez dio erreferentzia egiten bazterkeria-moduen baturari, baizik eta pertsona edo talde sozial bati eragiten dioten faktore ugari, eta horiek desberdintasunak eta hainbat jatorri dituzten diskriminazioak atzeraelikatzen dituzte: generoa, jatorria, sexu-orientazioa. Arraza. Landa-eremua... Ondorioz, pertsonak beste herritar-talde batzuei eragiten ez dieten zailtasunak, diskriminazioak edo indarkeria pairatu behar dituzte.

"Haur guztiek eskubide berberak dituzte eta dibertsitatea balio aberasgarria da, bertatik ikas daiteke eta garrantzitsua da defendatzea".

Haur edo nerabe baten lekukotza

Alde horretatik, garrantzitsua da gure gizartean balio patriarkalek, rolek eta genero-estereotipo zurrunez duten presentzia kontuan izatea; jazarpen-portaerak, bullyinga, janzkeragatiko edo berdinen taldeak proposatutako aisialdiko eta denbora libreko jardueretan parte hartu ahal izateko baliabideen gabeziagatiko diskriminazioa sustatu ditzaketen arrazoi sozioekonomikoengatiko diskriminazioa (aporofobia²⁰) ; sexu-orientazio edo -identitateagatiko diskriminazioa; arrazismoarekin zerikusia duten balioak, etab. Izan ere, rol eta estereotipo heteronormatiboak betetzen ez dituztenek, immigranteek edo errefuxiatuek edo baliabide ekonomiko urriak dituzten familiak dituztenek, besteak beste, askotariko diskriminazioa eta indarkeria pairatzeko aukera gehiago dituzte.

Zehazki aipatu behar da genero-arrazoiak direla eta, haur eta nerabeek arrisku maila desberdina dutela hainbat indarkeria mota pairatzeko, eta arrazoi horregatik, neskek, pubertarotik aurrera, sexu-indarkeria edo haien sexu eta erreproduktzio-eskubideen urraketa handiagoa pairatzeko arriskua dute. Emakumearen aurkako Diskriminazioarekin Amaitzeko Batzordearen (CEDAW)²¹ 19. Gomendio Orokorrak ohartarazten du **neskek modu neurrigabeen pairatzen dituztela indarkeria eta abusuak gizonen partetik.**

19 CILLERO, M. Los derechos del niño: de la proclamación a la protección efectiva. *Justizia eta haurren eskubideak*. Buenos Aires: Justizia eta Haurren eskubideak, 3. zenbakia, 2009.

20 Kontzeptu honek "txiroarekiko, babesgabearekiko, itxuraz gutxiago denarekiko, trukean ezer ona eman ezin duenarekiko bazterkeriari, nazkari, beldurrari eta mespretxuari" egiten dio erreferentzia, neologismoa sortu zuen Adela Cortina Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Etika eta Filosofiako katedradunaren arabera.

21 GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GOI-KOMISARIOAREN BULEGOA. *Emakumeen aurkako indarkeria. CEDAW Recomendación General número 19*. Geneva: Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa, 1992.

Hortaz, fenomenoaren bere osotasunean ulertu ahal izateko ezinbestekoa da gure gizartearen **egitura patriarkal** duen eragina ere kontuan hartzea, hortik egituratzen baitira emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak²². Teoria feministak indarkeriaren inguruan eskaintzen duen azterketa-esparrua ezin da albo batera utzi. Egile batzuek, hala nola Gerda Lernerrek²³ honela definitu dute patriarkatua, zentzurik zabalenean: “Familiako haurrekiko eta emakumeekiko gizonen nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa eta nagusitasun hori oro har gizartean hedatzea”.

Alde horretatik, esan daiteke patriarkatuak heteroaraua ezaugarri duen familia-eredua sustatu duela, eta ondorioz, familia-eredua erreferentziazko bikote heterosexual batek osatzen du eta barruan ematen dira; gizonaren hierarkia (tradizionalki hark izan du familia-nukleoaren boterea), jabetzan oinarritzen diren harremanen eraikuntza (seme-alabak aitaren jabetza ziren nolabait eta, hasieran, hark zituen haurren eskubide guztiak) eta pribatutasunaren zaintza.

Garrantzitsua da kontuan izatea familia-eredu horrek eragin duela emakumeen eta haurren esanekotasuna eta mendekotasuna normalizat hartzea. Eta, hein batean, “funtsean gizonak gauzatzen duten indarkeria mota batzuekiko tolerantzia hezten” duten balioak, sinesmenak, tradizioak eta ohiturak transmititu eta betikotu ditu.²⁴ Halaber, garrantzitsua da nabarmentzea biktimak ideologia horretan sozializatzen badira, askoz ere zailagoa dela indarkeriari aurre egitea eta salatzea.

“Normalean neskek fisikoarekin zerikusia duten irain gehiago jasotzen dituzte gizonak baino”.

Haur edo nerabe baten lekukotza.

Beste indarkeria modu batzuetan bezala, ez da ahaztu behar indarkeria modu hau lotuta dagoela egiturazko faktore ideologikoekin, kulturalekin eta sinbolikoekin. Faktore horiek direla eta, “helduak oro har, eta gizonetzkoa batez ere, pribilegiozko eta nagusitasunezko jarreran jartzen dira, beren abusuzko jokabidea legitimotzat hartuz”. Horrek azal dezake nerabearotik aurrera sexu-indarkeriak neurrigabe neskatoei eragitea eta erasotzaileak batez ere gizonetzkoak izatea²⁵.

Komunitate-mailan eta aurretik aipatutako egituraren-mailak duen eraginpean, haur eta nerabe zaurgarritasuna eta indarkeria-egoerak gertatzeko eta denboran luzatzeko arriskua areagotu dezakete irisgarritasunak eta baldintza sozioekonomiko batzuek: langabezia maila altuak edo prekaritateak, pobreziaren feminizazioak, pobreziaren infantilizazioak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, baldintza txarretan dagoen etxebizitzak, kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako baliabide eskasek, hezkuntzako

²² Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazio Batuen Adierazpenak aitortzen du emakumeen aurkako indarkeria dela “emakume eta gizonen artean historikoki desberdinak izan diren botere-harremanen adierazpena, gizonen emakumea menderatzea eta diskriminatzea eragin duena”.

²³ LERNER, G. La Creación del Patriarcado. Bartzelona: Crítica Argitaletxea, 1990.

²⁴ BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Hurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz*. Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

²⁵ BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Hurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz*. Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

Azterlan honek adierazten du, sexu-indarkeriari dagokionez, sexu-abusua nork egiten duen kontuan hartuta, profileen ezer gutxi balio dutela. Ziur berretsi daitekeen gauza bakarra da erasotzaile gehienak gizonetzkoak direla, eta kopurua % 90 edo altuagoa dela uste da”.

bereizketak, hezkuntza eskasak eta desegokiak (absentismoa eta eskola-porrota) eta indarkeria-mota batzuen legitimazio sozialak.

Familian edo lehen mailako harremanetan, arreta jarri behar da haur eta nerabeen familiek duten gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan; laguntzeko familiako erreferenteen gabezia; senideen galeran edo banaketan; pobrezia eta bazterkeria-egoerak jasateko arrisku gehiago dituzten familia-ereduetan, esaterako, ama bakarreko familietan, familia ugarietan edo berreraikietan; familiako emakume helduen aurkako genero-indarkerian, rol, estereotipo eta balio tradizional zurrunez markatutako familia arteko harremanetan; indarkeria fisikoa eta zigorra diziplina ezartzeko modu balizkoa edo eraginkorra dela uste dutenetan; edo gurasoak izateko gaitasun nahikoak ez dituztenetan, izan ere, indarkeria pairatzeko arriskua areagotu dezakete.

“Gurasoek ez badute baliabiderik, lagundu egin behar zaie. Horrela, haien seme-alabak ere babestuko dira”.

Haur edo nerabe baten lekukotza.

Norbanakoari dagokionez, aurretik aipatu dugun moduan, adina eta sexua dira arreta berezia eskatzen duten aldagaietako bi, baita sexu-orientazioa edo genero-identitate ez normatiboak, atzerritarra izatea, desgaitasunen bat izatea, gutxiengo etnikoaren parte izatea edo pertsona arrazializatua izatea ere. Halaber, arrisku faktoreak izan daitezke buru-osasuneko arazoak, portaeraren nahasmenduak, autoestimua baxua edo mendekotasun-arazoak.

Maila honetan, genero-rolak funtsezkoak dira haur eta nerabeen erabateko garapena mugatzeko edo sustatzeko. Genero-rolak dira pertsona bati bere sexuaren arabera esleitzen zaizkion betebeharrak, debekuak eta aurreikuspenak eta bizi osoan zehar baldintzatzen dituzte emakume eta gizonen portaerak eta jarduerak. Historiako une batean eta gizarte jakin batean feminitatearentzat eta maskulinitatearentzat portaera egoki eta adierazgarritzat hartzen den eraikuntza soziala eta kulturala da. Aginduen bitartez ezartzen dira emakume eta gizon izateko baimenak, eta debekuak eta rolak jokatzeke oinarriak dira. Gizarte patriarkalean sozializatzeko eta egokitzeke elementuak dira, beraz, genero-rolen inposaketak haur eta nerabeen erabateko garapena eta haien gaitasun guztiak hedatzea baldintzatzen du, haien portaerak estimulatuz edo erreprimatuz, ideal femininora edo maskulinora egokitzen diren kontuan hartuta. Genero-rol batzuk oso errotuta daude eta izaera biologikoaren ezaugarri saihestezintzat har daitezke.

Aipatutako arrisku faktoreak faktore babesleekin batera bizi dira. Bigarreneko indarkeria jasateko arriskua murrizten dute, haurren eta nerabeen zaintza bere gain hartzen duen eta bakean eta eskubideetan oinarritzen den elkarbizitza-ereduaren aldeko gizarte kontzientziaduna sustatzen dute, eta haur eta nerabeen aurkako indarkeria onartezina dela defendatzen dute. Haur eta nerabe guztiak dituzten babes-faktoreak ikusaraztea eta sustatzea funtsezkoa da indarkeriarik gabeko gizarte baterantz aurrera egiteko.

Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren modu eta mota desberdinak

Haur eta nerabeenganako indarkeria-modu eta -mota ugari daude, eta, haiek sailkatzeko orduan, hainbat irizpide har daitezke kontuan. Hala, honako hauetan jar daitezke fokua: indarkeriaren izaeran (fisikoa, emozionala, psikologikoa, sexuala eta axolagabekeria edo arduragabetasuna...); indarkeriaren testuinguruan edo ingurunean (etxea eta familia, eskola, aisia eta astialdia, lantokiak, komunitatea, Internet eta komunikazioaren teknologiak...); pertsonan edo agente eragilean (familiarrek, berdina, erakundea, autoezarria, heldu ezezagunak, taldeak...); zorrotasun-maila babesgabetasunari dagokionez (arrisku arina, moderatua edo larria, edo babesgabetasuna), etab. Gainera, kontuan hartzen baditugu azpimultzo batzuen eta azpian dauden kausen arteko ezaugarri komunak, beste irakurketa batzuk egin daitezke (hala, indarkeria mota batzuk indarkeria matxistaren barruan sar litezke).

Sailkapen horiek osotasun nahikoa dute, arazorako hurbilpena modu zatituan egin baita, eta, sarri, eremu horretan egin diren ikerketak indarkeria espezifiko mota baten edo bestearen azterketara mugatu baitira (familia barruko haurren aurkako tratu txarrak, berdinen arteko tratu txarrak, sexu-abusua...). Halaber, ohikoa da errealitate desberdinak izendatzeko termino bera erabiltzea (esaterako, ez da gauza bera arlo judizialeko "tratu txarra" edo osasun arlokoa), eta ohikoa da baita ere beste egile batzuek bereizita erabiltzen dituzten hainbat definizio biltzen dituzten kontzeptuak erabiltzea.

"Indarkeria fisikoa ez da bakarra. Kalte berberak eragiten dituzten beste indarkeria batzuk ere badaude".

Haur edo nerabe baten lekukotza.

Egoera horri aurre egiteko, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Haur eta Nerabeen Behatokiak 2019an egin zuen "Haur eta Nerabeenganako indarkeria EAEn. Diagnostikoa, erronkak eta jarraibideak" ikerketaren barruan sailkapen bat egin zen, aurretik aipatutako hainbat irizpide kontuan hartuz, eta ezaugarri espezifikoak eta besteetatik argi bereizten direnak dituzten egoerak multzokatzen ditu (baina egoera horiek ez dituzte egoera hermetikoak ordezkatzen, haien artean lotura asko baitaude).

Horren arabera, haur eta nerabeen aurkako indarkeria-modu hauek bereizi behar dira²⁶:



²⁶ Sailkapena eta definizioak aipatutako ikerketan oinarritu dira, baina estrategia egiterakoan berrikusi egin dira, eragile desberdinekin kontrastatu ostean.

- **HAURREN TRATU TXARRAK FAMILIA BARNEAN:** Erreferentzia egiten dio “gurasoek edo zaintzaile nagusiek istripuz egiten ez duten ekintza edo omisio orori, haurren eta nerabeen ongizate fisikoan, emozionalean eta psikologikoan kalteak eragiten dituen, garapenean ondorioak ekarriz”²⁷.

Indarkeria honek hainbat modu izan ditzake; fisikoa, psikologikoa, arduragabekeria eta sexu-abusua. Babesgabetasun maila desberdinekin dago lotuta (arriku arina, neurritsua edo larria eta babesgabetasuna), indarkeriaren intentsitatearen edo eraginaren arabera.

Familia da haur eta nerabeentzako funtsezko babes-arloa, baina baita indarkeriarik gehien ematen den eremuetako bat ere. Horrenbestez, garrantzitsua da argi eta garbi bereiztea indarkeria eremu horretan gertatzen denean eta/edo adingabeen zaintza eta tutoretza betetzen dutenek (gurasoak edo beste batzuk) zaintzarako ezarritako babes-betebeharrak betetzen ez dituztenean edo modu desegokian betetzen dituztenean, eta, aitzitik, indarkeria eremu horretatik kanpo gertatzen denean edota zaintza eta tutoretza betetzen duten pertsoez bestelako pertsonak eta tutoreek beren guraso-betebeharrak eta betebeharrak behar bezala bete dituztenean²⁸.

SEXU-INDARKERIA: Honi esaten zaio sexu-indarkeria: “Adingabe baten eta heldu baten arteko kontaktuak eta elkarreraginak, azken horrek adingabea erabiltzen badu bere burua, haurra edo hirugarren pertsona bat sexualki estimulatzeko. 18 urtetik beherako pertsona batek burutu dezake abusua, biktimia baino nabarmen helduagoa bada edo adingabe erasotzailea bestearen gainetik botere- edo kontrol-egoera batean badago”²⁹.

Ez dio soilik sexu-indarkeriari egiten erreferentzia, kontaktu fisikoarekin edo gabe eman daitezkeen hainbat sexu-portaera ere hartzen dira kontuan, hertsadura, manipulazioa edo indarkeriara erabiltza egiten direnak, eta baita Interneten sare sozialen bidez gauzatzen dena ere, hau da, ziberjazarpena: sexu-erasoa, exhibizionismoa, sexu-esplotazioa, sextinga, grrrominga, etab.

Indarkeria-modu hori familia barruan (abusua bezala) eta kanpoan eman daiteke, adin txikikoak ezagutzen ez dituen pertsonen edo taldeen partetik (erasoa, sexu-esplotaziorako salerosketa...)³⁰.

27 BLASCO DEL MORAL, C. *Más me duele a mí. La violencia que se ejerce en casa*. Madril: Save The Children, 2018.

28 Haur eta nerabeen eskubideak pertsona desberdinek urra ditzaketen arren (eraso fisikoaren bitartez, sexualak, hitzezkoak...), urraketa horrek ez du esan nahi babesgabetasun-egoeran dagoenik (horrek ez du esan nahi pairatzen duenak laguntzarik jaso behar ez duenik), betiere egoera eragindakoa izan ez bada edo adin txikikoaren zaintza edo babesa duen gurasoak edo beste pertsona batek bere babes-betebeharrak behar bezala bete ez baditu; hau da, pertsona horiek sustatu ez badituzte edo hirugarrenen egindako eskubideen urraketen edo erasoaren aurrean adin txikikoak babesteko gai ez badira.

29 BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz*. Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

30 Sexu-onespenaren adina pertsona batek izan behar duen adina da, sexu-harremana izateko legezko gaitasuna izan dezan. 1995eko azaroaren 30eko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen 2015eko martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren arabera, Zigor Kodean ezartzen den sexurako adostasun-adina 16 urtekoa da (3439. xedapena, BOE, 77. zenbakia, 2015). Ez da aplikatzen sexu-esplotazio kasuetan, izan ere, adostasuna hutsala da biktimak adin txikikoak direnean.

- **BERDINEN ARTEKO INDARKERIA:** Adin txikiko pertsonen artean hainbat indarkeria mota eman daitezke: bikotekidearen aurkako indarkeria matxista, guraso eta seme-alaben arteko indarkeriaren testuinguruetan anai-arrebekiko indarkeria, sexu-abusuak... Alabaina, berdinen arteko indarkeria edo tratu txarrak epigrafeen barruan azken hamarkadetan egin diren ikerketa gehienak eskolan oinarritu dira eta bere modu-nagusian: jazarpenean edo bullyingean. Horiek 18 urtetik beherako pertsona batek edo pertsona talde batek antzeko adina duen beste pertsona bati nahita eginiko ekintzak dira, mina, beldurra edo estutasuna sorrarazteko helburuarekin eginak, harreman asimetriko batean, erasotzailearen eta biktimaren arteko botere desberdintasuna tarteko dela, eta errepikariak eta errepikakorrak izaten dira.

Tratu txarrok hainbat eratakoak izan litezke: baliteke tratu txarrak jasotzen dituen pertsona aurrez aurre izatea ala ez; izan liteke ahozko gutxiespena, eraso fisikoa edo bazterkeria soziala, izan litezke delako pertsonaren kontrako ekintza zuzenak, baina baita zeharkakoak ere, biktimaren objektu pertsonalei, lagunei edota senitartekoei egindakoak; izan liteke mehatxuen, ikararen eta halakoen bidez eragina. Hainbat testuingurutan eman daiteke, hala nola eskolan, kirol-taldeetan³¹, kalean eta, gainera, Interneten ematen diren bullying kasuak ere kontuan hartzen dira eta ziberjazarpen edo ziberbullying gisa ezagutzen dira.

- **HAUR ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA:** Nerabeen eta neskatilen aurka emakume izate hutsagatik egiten den indarkeria da eta gizonen eta emakumeen artean berdintasunik gabe ezarritako botere-harremanetan oinarrituta dago. Hainbat motakoa izan daiteke: “Generoa oinarri duen indarkeria-ekintza oro³², emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragitea ekar dezakeena, baita ekintza horien mehatxuak, bortxak edo askatasuna bidegabe kentzea ere, bizitza publikoan nahiz bizitza pribatuan”³³.

Indarkeria horren biktimatza hartzen dira, halaber, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen (genero-indarkeria) duten edo bestelako indarkeria matxista pairatzen duten (esaterako, sexu-esplotazioarako gizakien salerosketa) emakume helduen adin txikiko seme-alabak³⁴.

31 Ziberbullyinga jazarpen mota bat da eta telefono mugikorren (mezuak, deiak, bideoklipak), interneten (posta elektronikoa, sare sozialak, mezu azkarrak, txata, webguneak) edo informazioaren eta komunikazioaren beste teknologia batzuen bitartez gauzatzen da, norbait behin eta berriz laidotu, iraindu, mehatxatu edo beldurtzeko. Ziberjazarpenak duen berezitasuna da grabatu eta interneten jartzen den eraso bakar bat dagoeneko ziberjazarpenetat jotzen dela, etengabe erreproduzitu eta mundu osoko jendearengan heltzeko aukera baitago.

32 Istanbulgo Hitzarmena esaten zaionak “generoa” honela definitzen du: “gizarte jakin batek emakumeei edo gizonei esleitzen dizkien paperak, jokabideak, jarduerak eta esleitzeak, sozialki eratuak”.

33 EUROPAKO KONTSEILUA. *Europako Kontseiluak emakumeen aurkako eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka egiteari buruz eginiko hitzarmena*. Council of Europe Treaty Series. Istanbul: Council of Europe Treaty Series, 2011, 210. zk.. Definizio hori bat dator EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen erreformarekin, egun izapidetzen ari dena.

34 Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei biktima-izaera aitortu zitzaizen haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko 2015eko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa aldatuta. Horrek esan nahi du epaileek beti eman behar dutela iritzia horiei eragiten dieten kautelazko neurriei buruz eta legeak gaur egun seme-alaba horien amei ematen dien babes berdinen subjektu direla.

Esparru horretan ere aipatu behar da bibliografia espezializatuan indarkeria bikarioa deritzona. Haurren aurkako tratu txar mota bat da³⁵, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotura du eta beste pertsona bati min emateko kontzienteki egiten diren portaera guztiak barne hartzen ditu, nagusiarekiko bigarren mailan eginez. Hala, amak derrigortzeko eta kontrolatzeko mekanismo gisa erabili ohi da.

- **ERAKUNDE-INDARKERIA:** Administrazio publikotik haur eta nerabeen eskubideak urratzen dituzten egoerei egiten die erreferentzia, bai administrazioko langileek edo judizialek horiek ezagutzen ez dituztelako, bai haur eta nerabeak artatu edo esku hartzen diren egoeretan entzuteko eta erantzuteko baliabide espezializatuen eta egokien faltagatik. Bigarren mailako biktimizazioarekin edo berriro biktima bihurtzearekin dago zuzenean lotuta.
- **HAUR ETA NERABEEN AURKAKO BESTELAKO INDARKERIA-MODUAK:** Aurreko epigrafeetan jaso ditugunez gain, garrantzitsua da haur eta nerabeen aurkako beste indarkeria batzuei ere erreparatzea, esaterako: LGTBI kolektiboen aurkako indarkeriari, arrazakeriak edo xenofobiak sustatutako indarkeriari, nork bere buruari eragindako indarkeriari, emakumeen genitalen mutilazioari, behartutako ezkontzari, komunikabideen bidez eragindako indarkeriari, gatazka armatuen esparruko indarkeriari edo beste batzuei.

Bestalde, ikerketa ugari erakutsi dute eskubideen urraketek, eta diskriminazio edo indarkeria egoerekiko esposizioek areagotu egiten dutela haur eta nerabeek indarkeria erabiltzeko arriskua. Horregatik, haur eta nerabe horiek erasotzaile eta biktimatzat hartu behar dira eta arreta berezia eskaini.

- **HAUR ETA NERABEEK ERAGINDAKO INDARKERIA:** Adin txikikoek erabiltzen duten edozein indarkeria modu izan daiteke. Horrek barne hartzen ditu legearekin gatazkan dauden haur eta nerabeak, emakume izategatik haien bikotekideen edo bikotekide ohien aurkako indarkeria erabiltzen duten gizonak, gurasoen aurka indarkeria erabiltzen duten nerabeak, bullying kasuetako erasotzaileak, etab. Adin txikikoen aurkako indarkeria modutzat hartu ezin diren arren, lotura estua dute horrekin.

35 Bikario kontzeptuak funtzio bat betetzeko norbanako bat beste batekin ordezkatzeari egiten dio erreferentzia. Indarkeriari aplikatzen zaionean, pertsona bati eraso egitean datza, helburu nagusia den beste pertsona horri min emateko.

DIAGNOSTIKOA: HAUR ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARAZOAREN INGURUKO DATU BATZUK

Atal hau eta amaieran hogeitaurik esanguratsuenekin ageri den taula egiteko abiapuntua Eusko Jaurlaritzako Haur eta Nerabeen Behatokiak 2019an abiatu zuen ikerketa baten ondorioak izan dira eta estrategia hau egiteko funtsezko erreferentzia izan da ikerketa hori: EAEko haur eta nerabeen aurkako indarkeria: Diagnostikoa, erronkak eta orientabideak. Ikerketa horrek EAEn haur eta nerabeen indarkeriaren konplexutasunaren dimentsioaren eta konplexutasunaren ikuspegi orokorra eskaintzen zuen, askotariko iturrietatik bildutako datuen bitartez, eta, era berean, eskuragarri dauden baliabideen inguruko erronka-multzoa eta arazoari erantzuteko antolaketa identifikatzen zituen.

Estrategia egiteko prozesuan zehar, EAEko haur eta nerabeek egun pairatzen duten indarkeria modu nagusiak kuantifikatu eta deskribatzea ahalbidetzen duten datuak eguneratu dira diagnostikoan eta atal honetan modu sistematikoan aurkeztuko ditugu. Zehatzago, arazoaren prebalentziaren eta intzidentziaren inguruko datu kuantitatiboak eta eraginarekin eta erantzunarekin lotuta dauden datu kualitatiboak uztartu ditugu. Lehen zertzelada orokorren ostean, datuak aurretik aurkeztutako indarkeria-moduen arabera daude sailkatuta; hala ere, modu batzuen eta besteen artean dauden askotariko loturak ere aipatzen dira. Atala irakurtzea errazagoa izan dadin, aipatzen diren datuen taula asko IV. eranskinean daude.

Esan bezala, haur eta nerabeen aurkako indarkeria modu guztiak gogoan izan behar diren arren, datuek erakutsi dute indarkeria-modu batzuek presentzia eta ikusgarritasun handiagoa dutela gure erkidegoan beste batzuk baino. Halaber, nabarmendu behar da indarkeria-modu batzuek intzidentzia eta prebalentzia maila altuagoa dutela herritarren segmentu batzuetan, eta, alde horretatik, bereziki garrantzitsua da, genero-ikuspegia txertatzea, indarkeria modu batzuk neskek pairatzen baitituzte gehienbat, esaterako, nerabezaroaurretik hasitako sexu-abusua edo salerosketa.

Haur eta nerabe askok pairatzen duten indarkeria isila da eta ez da behar beste ezagutzen. Ikerketa batzuek 36erakutsi dute European hauretanerabeenaurkako indarkeria kasuen % 10 baino gutxiago jakinarazten dela. Horregatik da hain zaila arazoaren benetako neurria ezagutzea.


“Gure herrialdeetan ezkutatu egiten da, familian gorde, ez da hitz egiten, eredutzat jartzen dugu, baina asko ezkutatu egiten da. Uste eta ikusten duguna baino indarkeria gehiago dago”.

Haur edo nerabe baten lekukotza.

Ikerketa horien arabera³⁷, European adin txikiko hamar pertsonatik batek bere zaintzaileek eragindako tratu txar fisikoak jasotzen ditu,, hamarretik bik utzikeria fisikoa pairatzen du eta hamarretik hiruk tratu txar emozionalak jasotzen ditu. Espainian, datu ofizialen faltan, kalkulatzen da umeen % 25³⁸ baino gehiago beren zaintzaileek eragindako tratu txarraren biktima izan dela. Alabaina, oraindik ere alde handia dago gertakarien (arazoaren prebalentzia) eta erakunde ofizialek ezagutu eta jasotzen dituzten kasuen artean (arazoaren intzidentzia).

Ertzaintzak³⁹ erregistratutako datuen arabera, 2020an, 18 urtetik beherako 1.459 pertsona izan ziren delitu baten biktima EAEn, familia barruko indarkeria, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik jasotako indarkeria, familia kanpoko sexu-askatasunaren aurkako delituak eta familia kanpoko beste delitu batzuk barne. Halaber, datuek erakutsi dute salaketan kopurua igo egin dela eta, ondorioz, azken bost urteotan, poliziek hauteman dituzten eta indarkeria jasan duten adin txikikoen kopurua % 32,4 handitu da. 2020. urtea Covid-19aren pandemiak markatu zuen eta bazitekeen kasu asko ezkutuan gelditzea, baina orduan ere % 2,2 igo ziren kasuak aurreko urtearekin alderatuta. EAeko haur eta nerabeen kopurua 340.553 pertsonakoa zen 2020an; beraz, erregistratutako kasuek % 0,4ko intzidentzia dute.

INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADIN TXIKIKOEN KOPURUA Absolutuak eta urteko hazkundea %. EAE. 2016-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Azterketa eta analisi dibisioa.

36 Iturria: WORL HELATH ORGANIZATION. European report on preventing child maltreatment. Kopenhage: World Health Organization, 2013.

37 Iturria: STOLTENBORGH, M., BAKERMANS-KRANENBURG, M., ALINK, L. eta VAN IJZENDOORN, M., 2015. The prevalence of child maltreatment across the globe: Review of a series of meta-analyses. *Child Abuse Review*, 24. zk.

38 Iturria: BLASCO DEL MORAL, C. *Más me duele a mí. La violencia que se ejerce en casa*. Madril: Save The Children, 2018.


39 Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Azterketa eta analisi dibisioa.

Sexuaren arabera, kasu gehiago hautematen dira nesketan mutiletan baino, 2020an zehazki, biktimen % 54 neskak izan ziren eta adinari dagokionez, erregistratutako kasu gehienak 14 eta 17 urte arteko nerabeetan eman ziren (% 47,84). Hala ere, ikus daiteke gero eta gehiago direla poliziaren eskuetara heltzen diren 10 urte azpikoen indarkeria kasuak (2020an, kasu guztien % 26,87 izan ziren, 2016an aldiz, % 20,8).

Indarkeria motari eta moduari dagokionez, aipatu behar da familia barrukoa dela ohikoena (erregistratutako kasu guztien % 45,5 da) eta 2016tik gehien areagotu dena; % 69 ugaritu da. Aldi horretan ere nabarmen areagotu da bikotekideen edo bikotekide ohien partetik neskek jasan duten indarkeria (% 25) eta sexu-indarkeria (% 24,2).

Ertzaintzak erregistratu dituen intzidentzia-datuen eta prebalentzia-ikerketen kalkuluen artean dagoen aldeak azaltzen du zergatik indarkeria honen zati handi bat ez den salatzen eta ez den inon erregistratzen. Ezkutuan geratzen da adin goiztiarretan salatze gaitasunik ez dutelako eta/edo salatze bide egokiturik, irisgarririk eta konfidentzialik ez dutelako, haur eta nerabe batzuek errepresaliak pairatzeko beldurra dutelako, indarkeria zer den eta zer ez den bereizteko beti gai ez direlako, indarkeriaren salaketaren inguruko estigma sozial handia dagoelako, etab.⁴⁰

ZEUK ESAN ZERBITZUAK HARTUTAKO DEIEN KOPURUA. Absolutuak. EAE. 2016-2020.



Horregatik, interesgarria da errealitate egindako hurbilpena iturri desberdinetako datuekin osatzea. Eusko Jaurlaritzako "Zeuk Esan", haur eta nerabeen arreta zerbitzuak orientazioa, aholkularitza eta informazioa eskaintzen die adin txikikoen aurkako indarkeria-egoeren inguruko arazo edo kezka bat dutenei. 2020an, deien errekorra hautsi zuen eta % 23,5 igo ziren deiak 2018tik⁴¹.


2021ean⁴² UNICEFek egin zuen ikerketa bateko datuek ere ohartarazi dute EAEn 10 eta 17 urte arteko herritarren % 20,5ek segurtasun falta sentitzen duela kalean beti, ia beti edo askotan (ehunekoa % 28,9ra heltzen da nesken artean eta % 11,7ra jaitsi mutiletan) eta % 12,1ek sare sozialetan dagoenean.

40 Datuen interpretazio egokia egiteko, hori gogoan izan behar da, eta, beraz, salaketa kopuru txikia izateak ez du esan nahi tratatu txarren maila baxua denik. Kontrara, salaketen kopuruak gora egin izanak ez du zertan esan nahi kasuak areagotu egin direnik, baizik eta kontzientziazioa handiagoa dagoenez, horiek gehiago jakinarazten direla. Halaber, indarkeria mota guztiek ez dute ikerlarien arreta berbera jaso; beraz, indarkeria mota batzuek eta besteek duten informazio kopurua eta kalitatea desberdinak dira. Hala eta guztiz ere, fenomeno horretara hurbiltzeko beharrezkoa da iturri desberdinetako informazioa gurutzatzea, muga horiek konpentsatu ahal izateko.

41 Iturria: Familien eta haurren zuzendaritza, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiken Saila. Eusko Jaurlaritza. 2021.

42 Iturria: UNICEF. *Harreman naturalen inguruan segurtasunari/segurtasun ezari buruz duten pertzepzioak EAEko haur eta nerabeei egindako kontsulta*. Espainiako Unicef. Madril. 2021.

HAINBAT EREMUTAN 10 ETA 17 URTE BITARTEKO HERRITARREK SEGURTASUNAREN INGURUAN DUTEN PERTZEPZIOA % segurtasunik eza beti, ia beti edo maiz. EAE. 2021.



Iturria: UNICEF. *Harreman naturalen inguruan segurtasunari/segurtasun ezari buruz duten pertzepzioaz haur eta nerabeei egindako kontsulta*. Espainiako Unicef. Madril. 2021.

Ikerketa horrek berak adierazi du haur eta nerabeen ehuneko adierazgarri batek ez dakiela norengana jo ziberindarkeria kasuetan (% 76,8k ez daki norengana jo interneten edo sare sozialetan), indarkeria eskolaz kanpoko gertatzen denean (% 58) edo kaleko indarkeria-kasu baten aurrean laguntza eskatzeko (% 46,5).

Ikerketa ugarik erakusten dute edozein indarkeria mota pairatzeko arrisku zuzena eta zeharkakoa dutenek ongizatean, garapen pertsonalean eta harreman sozialetan kalte larriak izan ditzaketela bizitza osoan zehar, denbora luzean zehar izaten dutelako arrisku hori, eta nahasmendu psikologikoak eta portaerarenak izan ditzaketela.

Ondorioek umetan indarkeria jasan duten pertsonen bizitzako arlo guztiei eragiten diete: arlo fisikoari, emozionalari, sozialari, sexualari eta baita sozioekonomikoari ere. Somatizazioagatik gaixotzeko arrisku handia dute, baita aldaketa neurobiologikoak, depresioak, elikadura-nahasmenduak, mendekotasunak, harreman sozialak eta lanekoak izateko zailtasunak, pobrezia eta gizarte-bazterkeria pairatzekoa ere. Era berean, nerabezaroan eta helduaroan beste tratu txar mota batzuk sufritzeko aukera gehiago dituzte.

**“Ezin diozu bizitzari aurre egin
tratu txarrak jasan ez dituen
pertsona batek egiten duen
moduan. Ez dituzu aukera berdinak.
Arrastaka egiten duzu aurrera.”
Haur edo nerabe baten lekukotza.**

Familia barruko umeen tratu txarrari buruzko datuak

Familia barruko indarkeria da gurasoek edo zaintzaile nagusiek erabiltzen dutena, bai modu esplizituan, bai ustekabekoa ez den omisiogatik, hau da, haien babeserako betebeharrak betetzen ez dituztelako edo behar bezala bete ez dituztelako. Arlo pribatu horretan ematen diren indarkeria-egoeretara heltzea zaila da eta, horien artean, batez ere arduragabekeria-kasuak oso zailak dira hautematen. Kezkatzekoa da kasuen kronifikazioa, detekzioa eta esku-hartzea garaiz ez egiteagatik. Halaber, testuinguru kulturalak indarkeria-modu batzuk naturalizatzea ekar dezake; beraz, ez dira indarkeriatzat hartzen, batez ere helburu hezitzaileekin justifikatzen diren horiek.

Ezinbestekoa da haur eta nerabeen aurkako indarkeria **gizarte-klase eta familia-egitura guztietan ematen dela** kontuan izatea, baina errazagoa da gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten familietan hautematea eta ikusezinagoa izan ohi da radar horretatik kanpo dauden maila sozioekonomiko altuagoko familietan. Alabaina, horrek ez du esan nahi ez dagoenik.

Indarkeria honek kalte sakonak eragiten ditu eta mundua ikusteko eta munduan konfiantza izateko modua aldatzen du, haien ongizatea zaintzeko ardura zutenek egin baitiete eraso biktimei. Ondorioek hainbat modu izan ditzakete (garapen neuronalean ondorioak, estresari aurre egiteko sistemak, autoestimuan...) eta denboran zehar iraun.

Ertzaintzak 2019an erregistratutako datuen arabera, 621 haur eta nerabek pairatu zuten indarkeria familia barruan EAEn; hau da, kasuak % 58 areagotu ziren 2016tik⁴³.

2019an, fiskaltzak aurretiazko 953 eginbide zabaldu zituen familia-harremanen aurkako delituengatik, horien artean aipatzekoak dira hauek: pentsioak ez ordaintzea (631), familiaren eta haurren abandonua (199), adin txikikoak ebastea (59) eta zaintza-erregimena haustea (45)⁴⁴. 2020an, datuetan eragina izan zuten COVID-19aren pandemiak ekarri dituen murrizketek; beraz, ez da komeni fenomenoaren joerak edo bilakaera aztertzeko erreferentzia gisa hartzea. Zehazki, urte horretan % 27 jaitsi ziren familia-harremanen arloko eginbideak.


Pandemia heldu arte, babesgabetasun arrisku-egoeran zeuden adin txikikoei eta haien familiei laguntzeko zerbitzuen datuek ere agerian utzi zuten kasu-kopurua handitu egin zela azken urteetan, bai oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, bai kasu arinak edo neurritsuak artatzen dituzten udal zerbitzuetan edo kasu larriagoak artatzen dituzten foru aldundietako zerbitzu espezializatuetan.

Esaterako, Bilboko eta Donostiako oinarrizko gizarte-zerbitzuek babesgabetasun-egoera arinean eta larrian zeuden artatutako adin txikikoen kasu berrien kopurua % 22 igo zen 2016 eta 2019 artean, eta Gasteizen, artatutako babesgabetasun kasu arin eta neurritsu guztiak % 13 igo ziren aldi horretan.

43 Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa.

44 Iturria: Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Probintzia Fiskaltza. Memoriak eta Estatistikak


UDALETAKO OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUEK HARTATU ZITUZTEN ETA BABESGABETASUN EGOERA ARINEAN EDO NEURRITSUAN ZEUDEN ADIN TXIKIKOEN KOPURUA KASU BERRIAK ETA KASU GUZTIAK. Absolutuak. Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteiz. 2016-2020



Iturria: Udalerrietako memoriak.

Bestalde, foru-zerbitzuek zabaldu dituzten **arriku larriko** kasuen espediente berrien kopurua ere handitu egin da azken urteotan, Bizkaian eta Araban bereziki. Bizkaiko Foru Aldundiko (BFA) espediente horien kopurua % 24,1 handitu da 2016 eta 2019 artean eta Arabako Foru Aldundian (AFA) % 31,7, Gipuzkoako Foru Aldundian berriz, apur bat murriztu da, % 5,6. Hiru aldundien artean, 2019an (pandemia aurreko urtean) babeserako 2.714 espediente berri zabaldu zituzten.

FORU ALDUNDIETAKO HAURREN ZERBITZUEK BABESGABETASUN LARRIAGATIK ZABALDU ZITUZTEN ESPEDIENTEEN KOPURUA Absolutuak. Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 2016-2020



Iturria: Foru-aldundietako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren sailletako memoriak.

Familia-babesaren arloan lan soziohezitzaileak aurrerapen handiak egin dituen arren, azken urteotan nabarmen areagotu da haien familia inguruetik atera eta foru aldundien zaintza edo babespean dauden haur eta nerabeen kopurua, batez ere bidaidetik gabeko haur eta nerabe migratzaile ugari edo komunitatetik kanpoko herrialdeetatik datozen eta familia-erreferenterik ez duten adin txikiko ugari daudelako EAEn. 2019ko abenduaren 31n, EAEn 18 urtetik beherako 3.745 adingabe inguru zeuden foru-aldundien babesgabetasun-neurriekin (zaintza edo tutoretza) eta horietatik 636 inguru bidaidetik gabeko edo seniderik gabeko haur eta nerabe migratzaileak ziren ⁴⁵ (hau da, % 16,9 inguru).

Pertsona horiekiko dagoen gizarte-irudiak aurreiritzi eta estereotipo negatiboak sustatzen ditu eta biktimizatu egiten ditu. Babes-sare urria duten pertsonen gizarte-zaurgarritasuna areagotu egiten da emantzipatu egin behar direnean eta zailtasunak dituzte lana lortzeko, etxebizitza, laguntza ekonomikoak... Bidaidetik edo familiarik gabeko haur eta nerabe migratzaileen kasuan, egoera administratiboa erregularizatu behar izatea arazo gehigarria da gizarteratzerako, batez ere adin nagusitasunetik gertu zeudela heldu badira eta esku hartzeko ibilbide pertsonalizatua garatzeko denbora urria izan badute. Etorkizun hurbilean aztertu egin beharko dira atzerritarren ⁴⁶Eskubideen eta Askatasunen Legea aldatzeko araudi berriak dituen ondorio praktiko eta sinbolikoak; izan ere, bidaidetik gabeko haur eta nerabe migratzaileen egoera erregulatzeko prozedurak, eta, ondorioz, haien gizarteratzea errazteko aldaketak sartu dira.

Haur eta nerabeak haien familian edo beste batean egotea da lehentasuna, hori baita bere, ongizatea bermatzeko ingururik egokiena, baina egun oraindik harrera-familien ehunekoak ez da heltzen nahiko lirakekeen kopuruetera zentroetako harrerarekin alderatuz gero. Hori lotuta dago, beste faktore batzuen artean, harrera-familiak lortzeko zailtasunarekin. 2019. urtearen amaieran, Bizkaian zaintzapean edo tutoretzapean zeuden adin txikikoen % 13,6 zegoen harrera-familia batean, Araban % 16,3 eta Gipuzkoan % 45,2.

Arlo honetan eragina dute baita ere indarkeria espezifiko batzuek, hala nola indarkeria matxistak eta indarkeria bikarioak. Dokumentu honetan atal espezifiko batean jorratu ditugu gai horiek, aurrerago.

Sexu indarkeriarekin lotutako datuak

Haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria adin txikiko baten eta heldu baten arteko harremanak eta interakzioak dira (edo adin txikiko beste pertsona baten artean hura biktima baino nabarmen helduagoa bada edo berarekiko botere edo kontrol egoera ezartzen badu), eta helduak adin txikikoa bere burua, adin txikikoa bera edo hirugarrengoa bat sexualki estimulatzeko erabiltzen du. Familia-giroan edo familia-girotik kanpo gerta daiteke sexu-indarkeria.

Botere-desberdintasuna dagoen egoera horretan, ez da posible borondatezko adostasuna egotea, jakinarazitakoa eta dagokiona (hau da, bortxa edo manipulaziorik gabea, ekintzak dituen ondorioak ezagututa eta beste alternatiba batzuk aukeratzeko gaitasunarekin).

⁴⁵ Iturria: hiru foru-aldundietako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren sailletako memoriak.

⁴⁶ ESPAINIAKO GOBERNUA. 903/2021 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei, eta horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegia, 2/ 2011, 2009 Lege Organikoak aldatu ondoren, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak onartu zuena. (BOE, 251. zenbakia, 2021eko urriaren 20koa, 127708tik 127719. orrialdera).

Espainiako Zigor Kodeak sexu-harremanetarako adostasun-adina 16 urtetan du ezarrita, baina sexu-abusua beste adin txikiko batek ere gauza dezake adin desberdintasun handia badago edo, kontrara, baliteke adostasuna ontzat ematea adin antzekoa duten nerabeen eta haurren artean harremanak baldintza berdinetan ematen badira. Halaber, baliteke 16 eta 18 urte bitarteko kasuetan ere abusu-egoerak ematea, Zigor Kodean jasotzen diren baldintza espezifikoekin.

Indarkeria mota honek tratu txar larriak sortzen ditu eta pairatzen duen pertsonaren duintasuna kaltetzen du; era berean, garapenean ondorio sakonak eta iraunkorrak uzten ditu. Ondorioz, biktimak zaurgarriagoak dira buruko desoreken eta biktimizazio berrien aurrean.

Oso ohikoa da indarkeria mota hori erabiltzen duen pertsona biktimaren familiakoa edo inguru hurbilekoa izatea (lagunak, familia handiko kideak, erreferentziazko pertsonak...) (% 80,8 konfiantzazko inguruneak da eta bitik bat familiakoa) eta erasotzaileen % 95,8 gizonezkoak dira⁴⁷. Salaketek tabuekin eta estigmatizazioarekin zerikusia duten erresistentzia ugari izaten dituzte eta kalkulatu da kasuen % 2 soilik ezagutarazten dela unean bertan, abusua ematen denean.⁴⁸

Familiatik kanpo, sexu-abusuen % 14,8 biktimen inguruko beste etxebizitza batzuetan eman ziren eta % 12,3 eskolan edo eskolaz kanpoko jardueretan.⁴⁹ Kasu askotan, familiek funtzio "babeslea" betetzen dute, baina hala ere, laguntza eta babesa behar izaten dute egoerak eragiten dituen zailtasunei aurre egiteko eta ondo kudeatu ahal izateko bere osotasunean.

Orain arte argitaratu diren prebalentziari buruzko ikerketetan kalkulatu da Espainian bost pertsonatik batek sexu-indarkeria motaren bat pairatu duela haurtzaroan⁵⁰. Esan bezala, kasu asko erregistro ofizialetatik kanpo daude, baina erregistro horietatik abiatuta ikus daiteke sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima guztien % 48,7 eta Espainiako Kriminaltasunaren Estatistika Sistemak jasotako ziberdelituen biktimen % 84 18 urtetik beherako pertsona izan zirela⁵¹.

Indarkeria mota honetan eragin nabarmena du generoaren faktoreak, pubertarotik aurrera batez ere. Iturri horren arabera, sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimen izan ziren 13 urtetik beherako haurren % 74,6 neskek izan ziren eta ehunekoa igo egiten da 14 eta 17 urte arteko biktimen artean, % 83,3ra iritsiz.

47 Iturria: ANAR FUNDAZIOA. *Abuso sexual en la infancia/ adolescencia según los afectados y su evolución en España*. (2008 -2019) Madril: ANAR Fundazioa, 2020.

48 Iturria: BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz*. Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.


49 Iturria: ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016)*. Madril: ANAR Fundazioa, 2017.

50 Iturria: SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Urte baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak*. Save the Children, 2017.

51 Iturria: Barne Ministerioa. Kriminaltateari buruzko sistema estatistikoa.

2019an, Ertzaintzak 18 urtetik beherako 206 haur eta nerabe identifikatu zituen sexu-indarkeriaren biktima gisa, eta horietatik % 80,6 neskak izan ziren. Adinari dagokionez, % 52,4k baino apur bat gehiagok 14 eta 17 urte artean zituen. 2016 eta 2019 artean, pandemia baino urtebete lehenago, sexu-indarkeria pairatu zuten erregistratutako haur eta nerabe biktimen kopurua % 61 areagotu zen⁵². Era berean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Fiskaltzaren datuek erakusten dute adin txikikoen sexu-askatasunaren aurkako eginbideetan ere goranzko joera izan dela, ⁵³2016tik 2019ra bikoiztu egin baitziren⁵⁴a.

ERTZAINZAK ETA FISKALTZAK IDENTIFIKATU DITUEN ETA SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADINGABEKOEN KOPURUA Absolutuak. EAE. 2016-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Azterketa eta Anlisi Dibisioa eta Euskadiko probintzietako fiskaltzen estatistika-datuak.

Testuinguru horretan, BFAko sexu-abusuetako Arreta Psikologikorako Programa Espezializatuak artatzen dituen 18 urtetik beherako pertsonen kopurua ere nabarmen igo da azken urteotan, baita 2020an ere. Zehazki 2016 eta 2020 artean % 111 igo da, eta pandemiaren urtean 95 kasura heldu zen⁵⁵. Beste programa batzuetan, esaterako, tratu txarren eta/edo sexu-abusuen aurrean esku hartze terapeutikoa egiteko GFaren “Bideratu” programaren kasuan, ehunera heldu da artatutako pertsonen kopurua: 2020an, 180 pertsona artatu zituen, 2016koen antzera (184).

Bestalde, Save the Childrenek⁵⁶ egindako ikerketa baten arabera, 10 nerabetik 7k pornografia kontsumitzen dute Euskadin eta, batez beste, 12 urte eta erditik aurrera egiten dute (mutilek ia nesken bikoitza). Txostenak ohartarazten du curriculumean hezkuntza sexu-afektibo egokirik ezean eta aukera ugari eskaintzen dituen mundu teknologiko honetan, pornografia bihurtu dela nerabeentzako sexualitatearen inguruko irakaslea eta aholkularia. Kontsultatutako nerabeen % 64,3k faltan sumatzen du gai

52 Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa

53 Sexu-askatasunaren aurkako delituak, hala nola adin txikikoen ustelkeria, 16 urtetik beherakoen aurkako sexu-abusua, 16 urtetik beherakoen aurkako sexu-erasoa, 16 urtetik beherakoei telekomunikazioen bidez egindako jazarpena, 16 urtetik gorako eta 18 urtetik beherakoei iruzur bidez egindako sexu-abusua, 16 urtetik beherakoei egindako haragizko sexu-erasoa (bortxaketa), adin txikikoa zaintzeko betebeharrak ez betetzea, 16 urtetik beherakoen exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, adin txikikoa edo gai ez dena prostituziorako erabiltzea, ekitaldi exhibizionistak edo porno ikustea.

54 Iturria: Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Probintzia Fiskaltza. Memoriak eta estatistikak

55 Iturria: BFAko Gizarte Ekintza Sailaren memoria.

56 Iturria: Save the Children. (Des)informazio sexuala: pornografia eta nerabezaroa. Espainiako Save the Children, 2020

sexu-afektiboen inguruko informazio gehiago izatea. GKEren arabera, arriskua ez da pornografia ikustea, baizik eta haien sexu-desira oinarri irreal, biolento eta desberdinen gainean eraikitzen aritzea, fikzioan gertatzen den moduan. Halaber, arriskutsua da sinestea haien adostasuna, haien desirak eta haien lehentasunak, edo gainerakoena, ez direla kontuan izan behar. Ondorioz, ikusten dutena imitatzen saiatzen direnean, ez diote haien bikotekideari beti baimenik eskatzen. Euskadin, 10 nerabetik ia 1ek adierazi du ikerketan bikotekidearen baimen espliziturik gabe egin izana eta % 4,3ri ez zitzaion ondo iruditu. Beste ikerketa berri batzuek kalkulatu dute Europako 15 eta 16 urte arteko hamar adin txikikotik batek sextinga egiten duela (mezu sexualak, erotikoak edo pornografikoak bidaltzea eta ikustea)⁵⁷.

Sexu-indarkeriak ere barne hartzen du sexu-esplotaziorako egiten den salerosketa⁵⁸, eta ia ez dago errealitate horren inguruko daturik. Salerosketaren biktima diren pertsonak salerosketa-sareek menderatu eta kontrolatzen dituzte, eta gehienetan ez dute egoera salatzeke aukerarik izaten. UNICEFen arabera⁵⁹, Espainian adin txikikoen salerosketaren biktima gehienak sexualki esplotatzen dituzte, bai prostituziorako, bai haurren pornografiarako. Biktima horien profirik ohikoena babesgabetasun-egoeran dauden neskek izan ohi dira, etxeko ingurune oldarkor batetik datozenak, eta 14 eta 17 urte artean izan ohi dituzte. Indarkeria-mota honek duen genero-aldagai argia kontuan izanik, indarkeria matxistaren inguruko hurrengo atal batean jorratuko dugu zehatzago.

Berdinen arteko indarkeriarekin lotutako datuak

Berdinen arteko indarkeriak hainbat modu ditu. Indarkeriaren adierazpen desberdinen artean, azken hamarkadotan, arreta berezia jarri da berdinen arteko jazarpenean edo bullyingean. Adingabeko pertsona batek edo pertsona talde batek antzeko adina duen beste bati nahita eginiko ekintzak dira, mina, beldurra edo estutasuna sorrarazteko helburuarekin eginak, harreman asimetrico batean, erasotzailearen eta biktimaren arteko botere desberdintasuna tarteko dela, eta errepikariak eta errepikakorrak izaten dira.

Berdinen arteko indarkeria mota da (neska-mutilak dira erasotzaile eta eraso egin dietenak), eta biktima zein erasotzailea adingabeak dira, eta biek dute babesa jasotzeko eskubidea, HEHren arabera. Gainera, ohikoa da beste adingabe batzuk egoeraren lekuko pasiboak izatea eta horrek egoera larriagotzen du, eraso egin dioten pertsonak duen isolamenduarengatik.

EAE mailan aldizka egiten den ikerketaren arabera, 2018an, lehen hezkuntzako ikasleen % 20,2k eta bigarren hezkuntzako ikasleen % 16,2k adierazi du eskolan berdinen arteko

57 Iturria: Smahel, D., Machackova, H., Mascheroni, G., Dedkova, L., Staksrud, E., Ólafsson, K., Livingstone, S., y Hasebrink, U. *EU Kids Online 2020: Survey results from 19 countries*. EU Kids Online network. 2020.

58 Gizakien salerosketa ere indarkeria mota bat da eta hor sartzeko "personak errekrutatzea, garraiatzea, besterentzea, ostatatzea edo hartzea, horretarako, mehatxuak edo indarra erabilia, edota hertsatzeko, abduzitzeko, iruzur egiteko, desilusionatzeko beste modu batzuk edo boterea eta zaurgarritasun-egoera gehiegikeriaz erabilia edo ordainketak edo onurak entregatu edo jasota, pertsona baten kontrola duen pertsonaren onespina lortzeko, helburua esplotazioa izanda.

59 Iturria: MIGRAZIOEI BURUZKO IKERKETEN UNIBERTSITATE INSTITUTUA (IUEM). COMILLAS PONTIFIZES UNIBERTSITATEA. INTZIDENTZIA POLITIKO ETA AZTERLANEN TALDEA, UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA. *Son niños y niñas, son víctimas. Situación de los menores de edad víctimas de trata en España*. Bartzelona: Huygens Editorial, 2017.

tratu txarrak jaso dituela⁶⁰. Halaber, lehen hezkuntzako ikasleen % 10,8k ziberbullying motaren bat jasan du berdinen partetik kontsulta egin aurreko urtean (beti, askotan edo batzuetan) eta tratu txar mota horren intzidentzia larria (beti edo askotan) eta tratu txar mota honen eragin neurritsuak (beti edo sarri) haurren % 28ri eta % 2,4ri eragiten dio hurrenez hurren.

“Eskola-jazarpenak ondorio larriak ditu haurtzaroan, hala nola isolamendua, buru osasuneko arazoak edo suizidioa.

“Geletan eta auzoetan elkarbizitza landu behar da, guztien dibertsitatearen eta gizarteratzearen alde eginez”.

Haur edo nerabeen lekukotzak.

TRATU TXAR ETA ZIBERBULLYING OROKORRAREN ETA LARRIAREN INDIZE OROKORRA, HEZKUNTZAKO MAILEN ARABERA %. EAE. 2018.

%	BERDI ARTEKO TRATU TXARRAK ESKOLAN	ZIBERJAZARPENA	ZIBERJAZARPENA LARRIA
Lehen Hezkuntza	20,2	10,8	2,8
Bigarren Hezkuntza	16,2	10,5	2,4

Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak 2018.

Funtsean, jazarpena eta ziberjazarpena edo ziberbullyinga indarkeria-modu berberak dira, baina bide desberdinetatik gauzatzen dira. Lehenengoan zuzeneko harremana du, bigarrena sare sozialen bitartez egiten da, eta erasotzaileen anonimotasuna errazten du. Sarri, bi bitartekoak batera erabili ohi dira. Indarkeria mota honen online modalitatea zailagoa da hautemateko (erasotzaileen anonimotasuna...) eta indarkeria hori erabiltzen dutenek naturalizatu egiten dute, eta ez dute eragindako kaltearen zuzeneko eta berehalako pertzepziorik. Aldiz, jazarpenaren audientzia kontrolik gabe zabaldu daiteke eta denboran gehiago luzatu.

“Sare sozialetatik edozer esan dezakete eta ez dakizu nork esaten duen hori. Autoestimua baxua baduzu eragin egiten dizu, galduta zaude”.

“‘Perfektua’ ez bazara kritikatu egiten zaituzte”.

Haur edo nerabeen lekukotzak.

Biktimek, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn, gertatzen zaienaz hitz egiteko gehiago jo ohi dute familiarengana eta lagunengana ikastetxeko profesionalengana baino. Hala ere, pertsona batzuek ez dute sekula inorekin hitz egiten. Zehazki, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 15,6k ez du inorekin hitz egiten, ezta DBHkoen % 24k ere.

⁶⁰ Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarren txostenak..

Halaber, datuek ohartarazten dute jazarpenaren intzidentziaren tasa orokorra askoz ere handiagoa dela atzerriko ikasleen artean (lehen hezkuntzako ikasle atzerriarren % 32,5ek pairatu du). Ikerketa honek eta antzeko beste batzuek diote LGTBI kolektiboko adingabeek maiz pairatzen dituztela bazterkeria-egoerak haien sexu-orientazioa eta genero-identitate ez normatiboa direla eta (emakume eta gizonentzako ezarritako genero-arauak eta estereotipoak, rolak, portaerak eta jarrerak ez betetzea edo zalantzan jartzea oztopo gehigarriak izan ohi dira gizarteratzeko). Bereziki kezkaigarria da “trans” haurren kolektiboak eskolan integratzeko dituen arazoei arreta jartzeko premia, gizartean errealitate horren inguruan dauden informazioak eza eta aurreiritziak direla eta.

Era berean, nabarmendu behar da indarkeria mota honek lotura argia eta negatiboa duela emaitza akademikoekin. Kideen partetik jazarpenik jasan ez dutela dioten ikasleak dira emaitzarik onenak lortu dituztenak. Datuek erakusten dute ikasleen lehiakortasun maila zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta handiagoa dela tratu txarrak pairatu dituztela dioten ikasleen kopurua. Hala ere, tratu txarren indizeak talde guztietan daude, beraz, garrantzitsua da kontuan izatea emaitza onak dituen ikasle batek ere paira ditzakeela tratu txarrak eta, gainera, zailagoa izango da hautematen.

Aditu askok ohartarazi dute garrantzitsua dela arreta berezia jartzea, berdinen arteko indarkeria-kasuak eta nerabezaroko indarkeria matxistaren kasuak ez nahasteko.

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako datuak

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria matxista **neskak diren haur eta nerabeen** aurka erabiltzen da, sexuaren eta generoaren arabera desberdin egituratuta dagoen sisteman emakume izate hutsagatik. Indarkeria honek emakumeak eta “femeninotzat” hartzen den oro menderakuntza egoeran kokatzen ditu gizonekiko eta “maskulinotzat” hartzen den horrekiko.

Indarkeria honek indarkeria matxista hainbat modutan gauzatzen den testuinguruetan bizi diren **haurren eta nerabeei** ere eragiten die (indarkeria bikarioa, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, sexu-esplotaziorako gizakiak salerostea...).


Kontuan izan behar da neskak diren haur eta nerabeek modu neurrigabean pairatzen dutela aipatutako indarkeria mota. Ildo horretatik, haien aurkako indarkeriaren dinamika, bizi dituzten indarkeria-moduak, larritasuna, maiztasuna eta indarkeria horren ondorioak espezifikoak dira eta sarri haur eta nerabeek pairatu ohi dituztenen desberdinak.

Emakumeek egunerokoan edo etxean pairatzen duten indarkeriak dituen ezaugarrien⁶¹ artean, honako hauek aipagarriak dira: Gizartearen ikusezintasuna (etxeko eremu pribatuan egiten baita), kontrol- eta zigor-mekanismo gisa funtzionatzen duela, biktimengan sortzen duen erru-zentzua eta indarkeria progresiboaren espirala, beldurra eta biktima den indarkeriarekiko mendekotasunak harrapatuta geratzen dena.

⁶¹ Iturria: ALBERDI, I. eta MATAS, N. La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España. Bartzelona: La Caixa Fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

EAE, 2019an, Ertzaintzak indarkeria matxistaren biktima izan ziren 18 urtetik beherako 468 haur eta nerabe erregistratu zituen: % 14,7ri bere bikotekideak edo bikotekide ohiak egin zion eraso, % 50,4ri familiako beste gizon batek (aita, aitona, anaia...) eta % 34,8k familia eremutik kanpo pairatu zuen sexu-indarkeria.⁶² 2016 eta 2019 artean, indarkeria matxista motaren bateko biktima izan diren haur eta nerabeen kopurua % 59,2 areagotu da eta bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako erasoak jasan dituztenen kopuruak % 27,8 egin du gora.

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA IZAN ZIREN HAURRAK ETA NERABEAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA Absolutuak. EAE. 2016-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Azterketa eta analisi dibisioa.

Nerabeen arteko portaeren ikerketek⁶³ diote nesken eta mutilen arteko harremanak asimetrikoak direla oraindik, eta sexismoa eta genero-indarkeria presente daudela. Agerian uzten dute genero-rolen eta berdintasunik gabeko harreman-eskemen arteko bereizketa zorrotza dagoela, eta zailtasunak daudela indarkeria sotilaren zenbait adierazpen onartzeko. Espainiako nerabeen % 31,7k aitortu du bikotekideak eragindako abusu psikologikoa eta kontrola pairatu dituela eta % 5,5ek tratu txar larriagoak (abusu psikologikoa, teknologien bidezko kontrola, eraso fisikoak eta sexualak)⁶⁴.

Halaber, ikerketek haur eta nerabeen aurkako indarkeria erabiltzeko modu berrietan jarri dute fokua, haien artean nabarmentzen dira zibereraso sexista eta sexuala, azken urteotan gero eta nabarmenagoak baitira gure gizartean. Matxismoa erreproduzitzen duen arrear, ikusezinagoa da indarkeria-modu hori eta sarri ez da zalantzan jartzen, ez zaio aurre egiten eta neskei egozten zaie errua.

62 Iturria: Emakunde. *Urteko txostena: Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko datuak*. EAE, 2020. Emakunde, 2020.

63 Iturria: Rodríguez Martín, V., Mercado García, E. & Morales Calvo, S. "Desigualdades y violencias de género en jóvenes y adolescentes: ¿soplan vientos de avance?", *Revista Prisma Social*, (31). 2020, 368-387

64 Iturria: Genero-indarkeriaren aurkako gobernu-ordezkaritza. *La situación de la violencia contra las mujeres en la adolescencia en España*. Madril: Berdintasun Ministerioa, 2021.

Nerabezaroko indarkeria horrek ezaugarri espezifiko batzuk ditu, eta oso garrantzitsua da horiei arreta jartzea. Ohikoak dira kontrol eta menderakuntza portaerak intentsitate baxukotzat eta naturaltzat hartzea. Era berean, zailak dira ikusarazteko eta sozialki zilegitasuna kentzeko. Esan liteke gizonen eta emakumeen artean berdintasuna dagoela dioen diskurtso orokortu horrek nahasmena sortzen duela nesken artean, ez baitituzte erasoak eta jokabideak identifikatzen eta beraz, ez dute horien aurrean haien burua babesten.

2019an, Ertzaintzak bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako erasoak jasan zituzten 3.098 emakume biktima identifikatu zituen EAEn (2016an baino % 10,8 gehiago) eta askok seme-alabak zituzten⁶⁵. Erreferentzia orientatzaile gisa kontuan izan behar da arreta psikologikorako foru zerbitzuetan artatu zituzten 1.081 biktima inguruk adin txikiko seme-alabak zituztela haien kargu, hau da artatutako kasu berrien % 67,2k⁶⁶. Halaber, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Estatistika Atariaren arabera, adin txikiko 15 pertsona umezurtz geratu dira Euskadin 2004tik, genero-indarkeria dela eta. Alabaina, egungo erregistro-sistemarekin ezin da genero-indarkeriaren biktimen seme-alaben kopuru argirik ezagutu eta, alde horretatik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak hori konpontzeko ekintzak jarri ditu martxan eta datu hobek izatea aurreikusten da.⁶⁷

Era berean, banaketa liskartsuetan emakumeen aurkako indarkeria-kasuak areagotu egin direla hauteman da, eta egoera horietan indarkeria bikarioa deiturikoa erabiltzera irits daiteke, hau da, haurrei tratatu txarrak ematea amei min emateko eta haien gaineko kontrola ezartzeko.

Arazo hori kuantifikatzen duten datu zehatzak ez dauden arren, kontuan izan behar da 2019an 18 urte azpiko 1.375 pertsona zeudela gurasoen arteko banaketa gatazkatsuetan edo zailtan sartuta eta familia-elkarguneetan hartu behar izan zituztela, epaileak hala bideratuta ⁶⁸(adin txikikoei zaintzarik ez duen gurasoarekin bisitak izateko tokia da). Baliabide horietan artatzen dituzten haur eta nerabeen kopurua % 5,8 igo da 2018tik.

Esan bezala, sexu-indarkeriaren barruan, sexu esplotaziorako ⁶⁹pertsonen salerosketak emakumeei, helduei, nerabeei eta haurrei eragiten die bereziki. "Euskadin pertsonen salerosketa-egoeran dauden emakumeak eta neskek nazioarteko babeseko ikuspegitik eraginkortasunez babesteko aurrera egiteko erronkak" izeneko 2019ko txostenaren⁷⁰ arabera, sexu-esplotaziorako zuzenean salerositako neskek diren haur eta nerabeen taldea bereziki zaurgarria da, bai eta salerosketako egoeran dauden amen seme-alaba

65 Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritzaren Azterketa eta analisi dibisioa

66 Iturria: Emakunde. *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn. 2020ko datuak*. Emakunde. 2021.

67 Iturria. *Emakunde. EAEko indarkeriaren intzidentziaren datuak. 2020ko datuak*. Emakunde. 2021.

68 Iturria: Justizia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren EAEn Epaileak Bideratutako Familia Topaguneei buruzko Ebaluazio Txostena

69 Gizakien salerosketa ere indarkeria mota bat da eta hor sartzen da "pertsonek errekrutatzea, garraiatzea, besterentzea, ostatatzea edo hartzea, horretarako, mehatxuak edo indarra erabilia, edota hertsatzeko, abduzitzeko, iruzur egiteko, desilusionatzeko beste modu batzuk edo boterea eta zaurgarritasun-egoera gehiegikeriaz erabilia edo ordainketak edo onurak entregatu edo jasota, pertsona baten kontrola duen pertsonaren onespena lortzeko, helburua esplotazioa izanda.

70 Iturria: CEAR. *Euskadin pertsonen salerosketa-egoeran dauden emakumeak eta neskek nazioarteko babeseko ikuspegitik eraginkortasunez babesteko aurrera egiteko erronkak*. Bilbo: CEAR, 2019.

adingabeen taldea ere. Emakundek urte horretan⁷¹ argitaratu zuen ikerketa baten arabera, EAEn 1.968 eta 2.292 emakume inguru aritzen dira prostituzioan eta kalkulatu da horietatik % 10 eta % 15 artean sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktima direla.

Halaber, ezin da ahaztu neska haur eta nerabe batzuk generoaren aldagai argia duten beste indarkeria mota batzuen biktima ere badirela, esaterako, Emakumeen Genitalen Mutilazioarena (aurrerantzean EGM). EGM egiten duten herrialdeetatik datozen immigranteen fluxua⁷² nabarmen handitu da azken urteotan. EGMk osasunerako eta gorputzaren osotasunerako eskubidea urratzen du eta oztopoa da nork bere sexualitatea kontrolatzeko eta sexualitateari eta ugaltzeari lotutako eskubideak modu librean gauzatzeko. "Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren Mapa 2016ko"⁷³ datuen arabera, urte horretan, jatorri horietako 4.890 emakume zeuden EAEn eta 1.378k 15 urte baino gutxiago zituzten. 2018 eta 2019 artean, Euskadiko Osasun Zerbitzua-Osakidetzak EGMren 129 kasu hauteman zituen guztira EAEn, immigratu aurretik eginak guztiak (67 kasu 2018an ea 62 2019an); 14 urte baino gutxiagoko haurrak ziren horietatik 21⁷⁴.

Azkenik, aipatu behar da desgaitasunen bat edo buruko gaixotasunen bat duten haur eta nerabeek zaugarritasun-egoera handiagoa dutela eta baita indarkeria matxista jasateko arrisku handiagoa ere, tratu txarrak adierazteko zailtasuna, informazio eta aholkularitza puntuetara jotzeko sarbide urriagoa, isolamendu soziala, osasunera sartzeko eta profesional sanitarioekin harremana izateko zailtasuna eta beste arrazoi batzuk direla eta. Desgaitasunen bat duten emakumeen % 21,6k bikotekideak eragindako indarkeria fisikoa eta/edo sexuala pairatu du bizitzako unereren batean; desgaitasunik ez duten emakumeak, aldiz, % 14,4 dira⁷⁵. Baina bikote barruan soilik ez: desgaitasuna duten emakumeek proportzio handiagoan pairatu dute sexu-indarkeria bikotetik kanpo (% 10,3) haien bizitzan zehar, ziurtatutako desgaitasunik ez duten emakumeek baino (% 6,2).

Behartutako antzutzeta eta abortua delitua⁷⁶ dira eta emakumeen aurkako indarkeria-moduak dira, haien eskubide sexualak eta erreproduktiboak urratzen dituztelako (Europako Kontseiluak emakumeen aurkako eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta

71 Iturria: EMAKUNDE. *Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketa Euskadin*. Emakunde. 2019. Datu horiek eguneratu egin behar dira. Ikerketa argitaratu ostean, COVID-19aren pandemia hasi zen eta, ondorioz, ezohiko neurriak hartu ziren hura gelditzeko. Gainera, teknologia berrien erabilera areagotu egin zen eta horrek guztiak eragina izan dezake datuetan.

72 Osasunaren Mundu Erakundeak (OME/WHO) honela definitzen du: "nahita eta medikoak ez diren arrazoiengatik emakumeen organo genitalak kaltetzen edo lesionatzen dituzten prozedura guztiak".

73 Iturria: KAPLAN, A. eta LÓPEZ, A. *Mapa de la Mutilación Genital Femenina en España 2016*. Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 2017.

74 OSAKIDETZA. Emakundek eta Osasun Sailak emakumeen genitalen mutilazioa eragozteko Euskadin hartutako prebentzio neurrien eraginkortasuna azpimarratu dute. 2022ko otsailak 17. Hemen eskuragarri: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/noticia/2020/emakunde-y-el-departamento-de-salud-destacan-la-efectividad-de-las-medidas-preventivas-adoptadas-en-euskadi-para-evitar-la-mutilacion-genital-femenina/ab84-oskcon/es/>

75 Iturria: *Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkesta 2019*. Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa. Madril, 2020

76 Abenduaren 16ko 2/2020 Lege Organikoa, legez ezindua dauden eta desgaitasuna duten pertsonen antzute behartuarekin edo baimenik gabearekin amaitzeko Zigor Kodea aldatzekoa. Praktika hori emakumeek pairatzen dute batez ere.

haren aurka egiteari buruz egindako hitzarmena). Alabaina, tratamendu mediko horiek batzuetan behar bezala informatutako onarpenik gabe egiten dira, besteak beste, haien hezteko gaitasunaren inguruan dauden estereotipo negatiboengatik. 2020an egindako "Emakumea, Desgaitasuna eta Genero Indarkeria"⁷⁷ txostenak kalkulatu du kontsultatutako emakumeen % 5,9 inguru familiak (gurasoek) eta osasun-langileek (ginekologiakoek) behartuta antzutu zituztela.

Erakunde indarkeriari lotutako datuak

Erakunde-indarkeria botere publikoetatik edo langilearen edo funtzionarioaren partetik datorren eta haur edo nerabeen eskubideak urratzen dituen autoritate-abusua edo arduragabekeria sortzen duen lege, programa, prozedura, jarduketa edo omisio oro da, bai administrazioko langileek ez dakitelako, bai eraginkorrak izateko baliabide espezializatuak eta egokiak falta direlako. Indarkeria mota hau maila eta sistema guztietatik gauza daiteke.

Zehatzago, HEHk bi printzipio nagusi ezartzen ditu haur eta nerabeei eragiten dien edozein neurri hartzeko: adingabearen interes gorenak lehentasuna izatea eta haurrak entzuna izateko duen eskubidea. Administrazioak indarkeria-egoerak sortzen ditu printzipio horiek aplikatzen ez dituenean, eta egoera horiek adin txikikoak berriro biktima bihurtzen dituzte.

"Onena grabatzea da, gero sinistu diezazuten, bestela heldu batek agian ez dizu sinetsiko".

Haur edo nerabe baten lekukotza.

Azterlan asko dauden arren, batzuek adierazi dute haurrak sexu-abusuaren berri ematen duen ikastetxeen % 15ek soilik jakinarazten duela, eta lege-sisteman sartzen diren sexu-indarkeriako kasuen % 70 inoiz ez dela ahozko epaiketara iristen⁷⁸.

Denboran luzatzen diren prozesuak mingarriagoak dira eta berriro biktimizatzen da. Ikerketa horiek ohartarazi dute legezko prozesuen kasuan, hiru urte luzatzen direla batez beste eta haur eta nerabeek lau aldiz kontatzen dituztela abusuak salatu ostean. Teknikaren abantailak gorabehera, eta nazioartean gomendatuta badago ere, epaien % 13,8an baino ez da froga ezartzen alde aurretik⁷⁹.

Prozesuak behar baino gehiago luzatzeak eta lekukotzaren sinesgarritasunarekin lotuta dauden beste oztopo batzuek eragin negatibo garrantzitsua dute sexu-abusuak komunikatu edo salatzerakoan, eta abusuak biktimarengan duten eragina ere handitzen dute.

Zaugarritasun handia dutela-eta kezka berezia sorrarazten duten kolektibo batzuk daude: Helduen laguntzarik gabe immigratzen duten haur eta nerabeak; desgaitasuna duten haur eta nerabeak; sexu-orientazio edo genero-identitate ez normatiboa dutenak;

77 Iturria: BERDINTASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. Mujer, Discapacidad y Violencia de Género. Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa. Madril, 2020

78 Iturria: SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.

79 Iturria: SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.

harrera-zentroetan bizi diren haur eta nerabeak; prozesu judizialean sartuta dauden haur eta nerabeak, izan biktima, lekuko edo lege urratzaile gisa; ezkontza-krisian edo babesgabetasun-egoeran daudenak eta izapide administratiboetan sartuta dauden haur eta nerabeak, esaterako, atzerritartasun legearen ezarpenarekin, familientzako dirulaguntzekin, etab.

Bidaiderik ez duten haur eta nerabeen kasuan, bereziki kezkarria da emantzipazio-prozesuei eta euskarriari erantzun publikoa ematea adin-nagusitasunera iritsi eta babes-sistemako egoitza-zerbitzuetatik irten ondoren. Halaber, egoitza-baimenen tramitazioa, batzuetan adin-nagusitasuna bete aurretik iristen ez dena, eta pertsona horien premiei erantzuten dieten prestazio ekonomikoak eta hezkuntza- eta prestakuntza-ibilbideak egokitzea. Izaera administratiboa duten oztopo horiek zuzendu ahal izateko, atzerritarren Eskubideen eta Askatasunen Legearen araudian erreforma bat egin da berriki. Komenigarria izango da neurri berrien eragina ebaluatzea denbora nahikoa igaro ondoren.

Haur eta nerabeen aurkako beste indarkeria modu batzuekin lotutako datuak

Bloke honetan sartzen dira aurretik jaso ez diren beste indarkeria-modu guztiak, hala nola: LGTBI kolektiboko haur eta nerabeen aurkako indarkeria; nor bere buruari egindakoa; komunikabideen bitartez gauzatutako indarkeria; gatazka armatuetan edo immigrazio-prozesuetan ematen den indarkeria; sexu-esplotazioa ez den beste helburu batzuetarako egiten den gizakien salerosketa, lan egiteko esaterako; delituak egiteko edo eskean aritzeko esplotazioa eta beste batzuk.

Esan bezala, ikerketa berri ugari ohartarazi dute LGTBI kolektiboko adin txikikoek maiz pairatzen dituztela bazterkeria-egoerak haien sexu-orientazio eta genero-identitate ez normatiboa direla eta. Aurretik aipatu dugun EAEn aldizka egiten den 2018ko ikerketaren arabera, DBH egiten ari diren eskola-ikasleen % 32,3k baieztatu du sexu-orientazioagatik edo neska edo mutila izateagatik ikaskide batzuk baztertu izanaren lekuko izan dela eskola-eremuan (% 7,5 lesbiana izateagatik eta % 19,2 gay izateagatik)⁸⁰.

2020an sexuagatiko eta sexu-orientaziotatik bullyingaren prebalentziaren inguruan EAEn egin zen ikerketa baten arabera, galdetegia erantzun zuten 13 eta 17 urte bitarteko adingabeen % 41,6k aurrez aurreko portaera oldarkorrek pairatu ditu noizbait eta % 11k maiz⁸¹. Halaber, ikerketak ondorioztatu du heterosexualak ez diren pertsonak eskola-jazarpen handiagoa jasaten dutela heterosexualek baino, batez ere, mutil gayek eta pertsona bisexualek⁸².

Indarkeriak indarkeria gehiago sortzen du, baina ez besteekiko soilik, baita norbere buruarekiko ere. Izan ere, hamar biktimatik batek bere burua zauritzen du, edo bere burua zauritzeko edo bere buruaz beste egiteko ideiak izan ditu noizbait. EAEn, 2016 eta

80 Iturria: ISEI-IVEI. *Berdinen arteko tratu txarrak txostena*.2016.

81 Iturria: Larrain E. eta Garaigordobil M. *Bullyinga Euskadin: Nagusitasuna eta Desberdintasunak Sexuaren eta Sexu-Orientazioaren Arabera Klinika eta Osasuna Klinika eta Osasun*, 31(3), 2020.

82 Azterlanean zehazten den moduan, "Desberdintasun estatistiko adierazgarriak aurkitu dira sexu-orientazioaren arabera ($\chi^2 = 78.46$, $V = .63$, $p < .001$), eta biktima gehiago dira gayak eta bisexualek".

2020 artean, 19 urtetik beherako 18 adingabek egin zuten beren buruaz beste; horietako bik azken urtean, hau da, urte horretako suizidioen % 1 izan ziren⁸³.

Ezin da ukatu azken urteotan nabarmen areagotu dela indarkeriarekiko esposizioa komunikabideetan, publizitatean, bideo-jokoetan eta Interneten. Aditu batzuk kezkatuta daude komunikabideek duten sentsazionalismorako joerarekin, eta haur eta nerabeez aritzerakoan duten informazio positibo urriarekin. Beste batzuek ohartarazi dute komunikabide horietan eta publizitatean sexismoa dagoela eta indarkeriazko edukiak dituzten bideo-jokoen eragin psikosozialen inguruan ere eztabaidatu dute.

Drogamendekotasunen Deustuko Institutuak azkeneko ikerketan adierazi du EAEko 12 eta 22 urte bitarteko herritarren artean, % 60 inguru egunero ibiltzen dela bideo-kontsolekin, % 84 sare sozialetan eta % 97k mugikorrerako aplikazioak erabiltzen dituela, esaterako, WhatsApp, Interneteko bilatzaileak, deiak, etab. Gainera, ikerketa berak ohartarazi du % 16k 6 ordu edo gehiago ematen dituela mugikorrarekin astean eta % 18,1ek asteburuan⁸⁴.

Haur eta nerabeak indarkeriazko edo kaltegarri izan daitezkeen edukien eraginpean egoteak igoera izan du azken urteetan. Zibersegurtasuneko Institutu Nazionalak egin berri duen azterlan baten arabera, 2018an, 9-17 urteko adingabeen % 32k dio eduki desegokiak ikusi dituztela linean eta 2010ean, webgune horiek ikusitakoak % 19 ziren.⁸⁵

Eduki horiek gorrotozko mezuak izaten dituzte zenbait pertsona talderen aurka –beste etnia, erlijio, nazionalitate edo sexualitate batzuetakoak– (% 36); gore edo indarkeriazko irudiak, pertsonai edo animaliei nola min ematen dieten erakusten dutenak (% 36); nork bere burua zauritzeko moduak (% 26); drogak hartzearekin lotutako edukiak (% 25); anorexia edo bulimia susta dezaketen argaltzeko moduak (% 19); eta nork bere buruaz beste egiteko moduak (% 18). Neska nerabeek nork bere burua zauritzeko, nork bere buruaz beste egiteko edo bulimia edo anorexia ekar dezaketen argaltzeko moduekin lotutako arrisku-edukien eragin handiagoa jasotzen dute.

Halaber, aipatutako ikerketak erakusten du haur eta nerabe gehienek sare sozialak erabiltzeko baimena dutela (% 18k bakarrik diote ez dutela baimenik). Oro har, baliabide horiek erabiltzeko muga gehiago izaten dituzte 9 eta 12 urte arteko haurrek, baina muga

“Sare sozialen erabilera arduratsua egin behar da inor minduta, bere intimitatea ikusgai edo inbaditua duela, eta umiliatuta senti ez dadin; eta, gainera, argazkiak eta bideoak erabiltzeko, bertan ageri den pertsonaren onarpena eduki behar da”.

Haur edo nerabe baten lekukotza.

83 Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika

84 Iturria: Deustuko Unibertsitatea. *Drogak eta Eskolak IX. Drogen erabilera Euskadiko ikasleen artean*. 35 urte geroago. Bilbo: Deustu. 2017

85 Iturria: Deustuko Unibertsitatea. *Drogak eta Eskolak IX. Drogen erabilera Euskadiko ikasleen artean*. 35 urte geroago. Bilbo: Deustu. 2017

horiek ez dituzten haurrak ez dira inolaz ere elkarrizketatuen herena baino gehiago⁸⁶. 13-17 urteko nerabeen artean, murrizpen horien maiztasuna oso txikia da.

Teknologiak nerabezaroan duen eragina txostena. Harremanak, Arriskuak eta Aukerak (UNICEF- 2021) EAeko 11 eta 18 urte arteko herritarren artean egin zen azterketak dio % 10 baino gehiagok presioa sentitu duela eduki erotikoa edo sexuala duten argazkiak edo bideoak bidaltzeko eta hamarretik lek sexu-proposamena jaso du online heldu baten partetik. Hamar nerabetik bi ziberjazarpenaren biktima izan litezke. Hirutik batek interneten eta sare sozialen erabilera problematikoa izan lezake (% 32,5). Bostetik batek bideo-jokoekiko mendekotasuna du (% 50,5ek adingabeentzat egokiak ez diren bideo-jokoekin jolastu ohi du). Ia % 4k aitortu du noizbait online dirua jokatu edo apustu egin izana.

Gizakien salerosketak beste esplotazio-modu batzuk ere baditu sexualaz harago (indarkeria matxistaren aurreko atalean azaldu dugu), hala nola behartutako eskalea izatera bideratutako esplotazioa edo delituak egiteko esplotazioa, esaterako, zorrolapurrek egiten dituztenak, dendetako lapurretak, estupefazianteen trafikoa eta baita haurrei eragiten dieten legez kontrako adopzioarekin, organoen trafikoarekin, eta abarrekin zerikusia dutenak ere. EAerako datu zehatzik ez dagoen arren, arartekoren azken txostenetako batean dagoeneko ageri zen gure komunitatean hasiberria den errealitate gisa⁸⁷.

Ez dago ahazterik gure komunitatean harrera egiten zaiela –eta aurreikus daiteke gero eta gehiago izango direla– nazioarteko babesa eskatzen duten errefuxiatuen familiei (umeak dituztenak). Haien herrialdeetatik ihesi etortzen dira; askotan, gerran dauden herrialdeetatik. Aipagarria da, baita ere, EAera iritsi eta bakarrik dauden ume eta nerabe migratzaileek migrazio-prozesu zailak izaten dituztela eta prozesu horietan, askotan izaten direla gehiegikerien eta zenbait motatako indarkeriaren biktima.

Indarkeria erabiltzen duten haur eta nerabeekin lotutako datuak

Haur eta nerabe batzuek ere erabiltzen dute indarkeria. Indarkeria honek lotura izaten du maiz haiek aurretik pairatu dituzten indarkeria-egoerekin (indarkeria pairatzeak areagotu egiten du indarkeriazko patroiak errepikatzeko arriskua) eta atzeraelikatzen diren beste arrisku-faktore batzuekin dago lotuta, hala nola buruko gaixotasunekin, mendekotasuna sortzen duten sustantzien kontsumoarekin, portaera oldarkorra edo suntsitzailearen arazoekin, joera antisozialekin, etab. Indarkeria horrek ondorioak eragiten dizkio erasotzaileari, hala nola harreman pertsonalak hondatzea, gizarte-bazterkeria, legearekin arazoak, etab.

Adierazpen desberdinen artean nabarmentzekoa da legearekin arazoak dituzten haur eta nerabeek gauzatzen dutena, emakume izate hutsagatik haien bikotekideen edo bikotekide ohien aurkako indarkeria matxista erabiltzen duten mutilena, gurasoen aurkako indarkeria erabiltzen duten nerabeena, anai-arraben aurka, haien gurasoen bikotekideen haurren aurka, bullying kasuetako erasotzaileena, etab.

⁸⁶ 2.900 umez osatutako laginean dago azterlana oinarrituta.

⁸⁷ Iturria: Arartekoa: Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa Euskal Autonomia Erkidegoan. Ikerketa-txostena. Giza eskubideen bilduma "Juan San Martín" 10. Vitoria –Gasteiz. 2020.

2019an, EAEko 14 eta 18 urte bitarteko 541 adin txikiko kondenatu zituzten delitu⁸⁸ batengatik eta probintzietako fiskaltzen datuen arabera, urte horretan, Bizkaian izan ziren delitu larrien % 63,8, ondoren Gipuzkoan (% 27,6) eta Araban (% 8,6).

Guraso eta semeen arteko indarkeriaren inguruko kezka areagotu egin da azken urteotan. 2019an, Euskadiko Adingabeen Fiskaltzak 247 espediente zabaldu zituzten adin txikikoei etxe barruko indarkeriarengatik⁸⁹, 2016an baino % 55,3 gehiago. Amigó Fundazioak fenomeno honen inguruan berriki egin duen ikerketa baten arabera, kasuen % 52,6 familia nuklearretan ematen da, % 26,5 ama bakarreko familietan, % 5,6 aita bakarreko familietan eta % 15,4 berreraikitako familietan⁹⁰.

Aditu batzuek bi errealitate berri nabarmendu dituzte indarkeria mota honen inguruan: familia berriz elkartzeko unean familia migratzaile batzuen egoera (EAEra bizitzera etorri eta seme-alaba txikiak jatorrizko herrialdean utzi zituzten gurasoen kasuak⁹¹) eta adopzioan hartu duten familia batzuen egoera, haurraren heziketak gainezka egin dielako, nerabezaroan batez ere, portaera oso oldarkorretatik eta loturen hausturatik eratorritako gatazkak direla eta. Halaber, aipatu dute gurasoek zailtasunak izan ohi dituztela seme-alabek eragindako indarkeria salatzeko.

Era berean, jokabide-arazoak dituzten nerabeentzat baliabide sozioedukatibo nahikorik ez dagoela ohartarazi dute, askotan osasun mentaleko arazoekin lotuta daudenak, eta horrek sistematik kanpo geratzea eragiten duela; ondorioz, gerora gizarteratzeko zailtasun handiagoak.

Bestalde, Ertzaintzaren datuen arabera, 2019an, indarkeria matxistaren erasotzaileen artean % 3,6 18 urtetik beherako nerabeak ziren⁹².

88 Iturria: Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaien Erregistro Nagusiaren EIN.

89 Iturria: Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Probintzia Fiskaltza. Memoriak eta estatistikak

90 Iturria: Amigó Fundazioa. *Guraso eta semeen arteko indarkeria Espainian* (2019ko datuak) Amigó Fundazioa. Madril. 2020.

91 Familiak berriz elkartzerakoan, , batzuek ikusten dute ez dituztela figura esanguratsutat hartzen eta haien gurasorola betetzeko autoritaterik gabe aurkitzen dira. Gainera, adingabeak nerabe bihurtu dira, oso adin konplexuan deserrotu dituzte haien inguruetik eta testuinguru ezezagunean murgildu behar dute aita eta amatzat identifikatzen ez dituzten helduekin; izan ere, gurasoen funtzioa, urte askotan, jatorriko herrialdeko beste familiako batzuek bete dute.

92 Iturria: *Emakunde. Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn*. 2020ko datuak. Emakunde. 2021.

Laburbilduz: 20 daturik adierazgarrienak

Jarraian dagoen koadroak deskribatu ditugun indarkeria-moduen inguruan egindako diagnostikoaren 20 daturik adierazgarrienak biltzen ditu:

20 daturik adierazgarrienak	
<p>FAMILIA BARRUKO INDARKERIA</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kalkuluen arabera, 2015ean Europako hamar adin txikikotik batek zaintzaileak eragindako tratu txar fisikoak jaso zituen.. 2. 2020an, Ertzaintzak familia barruan indarkeriaren biktima izan ziren 664 haur eta nerabe identifikatu zituen EAEn. Kasu horiek 2016an erregistratu zirenak baino % 68,9 gehiago dira. 3. Arrisku larriko kasuetan haurrentzako foru zerbitzuek zabaldu zituzten babes-espediente berrien kopuruak % 24,1 egin zuen gora 2016 eta 2019 artean Bizkaian eta % 31,7 Araban. 	<p>SEXU INDARKERIA</p> <ol style="list-style-type: none"> 4. 2020ko erregistro batzuek erakutsi dute sexu-abusuen bi kasutatik bat haur eta nerabearen familia-inguruan ematen dela. 5. Kalkulatzen da 2016an, sexu-abusu kasuen % 2 soilik ezagutu zela denbora errealean, hau da abusua gertatu zenean. 6. 2019ko datuen arabera, EAEn sexu-indarkeria jasaten duten adin txikiko guztien % 80,6 neska haur eta nerabeak dira. 7. Ertzaintzak EAEn identifikatu dituen eta sexu-indarkeriaren biktima izan diren haur eta nerabeen kopuruak % 61 egin du gora 2016 eta 2019 artean.
<p>BERDINEN ARTEKO INDARKERIA</p> <ol style="list-style-type: none"> 8. 2018ko datuen arabera, lehen hezkuntzako ikasleen % 20,2k eta DBHko ikasleen % 16,2k adierazi du eskolan berdinen arteko tratu txarrak jaso dituela. 9. Era berean, lehen hezkuntzako ikasleen % 10,8k eta DBHko % 10,5ek adierazi du berdinek eragindako ziberbullyinga jasan duela. 10. Gainera, indarkeria hori pairatu duten lehen hezkuntzako ikasleen % 15,6k eta DBHkoen % 24k aitortu du ez duela horretaz inorekin hitz egiten. 	<p>HAUR ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA</p> <ol style="list-style-type: none"> 11. 2019an, Ertzaintzak indarkeria matxistaren biktima izan ziren 18 urte azpiko haur eta nerabeen 468 kasu erregistratu zituen EAEn (hiru urte lehenago baino % 59 gehiago). Horietatik % 14,7k bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik jaso zituen erasoak, % 50,4k familiako beste gizon baten partetik (aita, aitona, anaia...). 12. 2020an, Espainiako nerabeen % 31,7k aitortu du bikotekideak eragindako kontrolaren indarkeria psikologikoa jasan duela. 13. Indarkeria matxistaren biktimantzako arreta psikologikorako foru baliabideek 2019an artatu zituzten emakumeen % 67,2k adin txikiko seme-alabak ditu bere kargu. 14. 2016an kalkulatu zen EGM egiten den herrialdeetatik datozen 15 urte azpiko 1.378 neska immigrante bizi zirela EAEn.
<p>ERAKUNDE INDARKERIA</p> <ol style="list-style-type: none"> 15. 2017ko datuen arabera, lege-sisteman sartzen diren sexu-indarkeria kasuen % 70 ez dira inoiz ahozko epaiketara heltzen. 16. Era berean, haur eta nerabeen legezko prozesuak hiru urtez luzatzen dira batez beste. 17. Gainera, salatu ostean, haur eta nerabeek lau aldiz kontatzen dituzte abusua eta epaien % 13,8tan soilik onartzen da froga. 	<p>HAUR ETA NERABEEK ERAGINDAKO INDARKERIA</p> <ol style="list-style-type: none"> 18. 2019an, EAEn, 14 eta 18 urte arteko 541 adin txikiko kondenatu zituzten delitu batengatik eta probintzietako fiskaltzek 247 espediente abiarazi zizkieten adingabeei etxeko indarkeriagatik, 2016an baino % 55,3 gehiago. 19. 2019ko indarkeria matxistaren erasotzaileen artean, % 3,6 18 urte azpiko nerabeak izan ziren.
<p>BESTE INDARKERIA MODU BATZUK</p> <p>20. EAEn, 2016 eta 2020 artean 18 adin txikikok egin zuten beren buruaz beste.</p>	

PRINTZIPIOAK, IKUSPEGIAK ETA IRIZPIDEAK

Atal honetan jasotzen dira estrategia hau ezartzeko gidari izango diren printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak. Horiek guztiak bat datoz HEHk ezarri zuen paradigmarekin. Onartzerakoan, zalantzan jarri zen “tutoretzaren” ikuspegia. Ikuspegi horren arabera, haurtzaroa eta nerabezaroa babestu beharreko objektua zen, eta ideia hori zabaldu egin da haurrak eta nerabeak eskubidezko subjektuak direla ulertzeko. Horrek esan nahi du haur eta nerabeen beharrak, eskubideak, iritzia eta partaidetza jarduera guztien erdigunean egotea eta eragile guztien jarduketa faseak zeharka ditzaten lortzea.

Paradigma-beharren ikuspegitik eskubideen ikuspegira aldatzeak ere honako hau esan nahi du:

- Haur eta nerabeekiko jarrera aldatzea. Haur eta nerabeak banakotasunerako eta autodeterminaziorako eskubidea duten pertsona gisa onartzea eta haien garapenean esku hartze aktiboa duten subjektu gisa, hazi beharreko objektu edo zerbitzuen hartzaile pasibo izan beharrean.
- Adingabeak parte-hartzaile aktibotzat, eskubideen titulartzat, eskubide guztiak dituzten herritartzat hartzea, eta eskubideak erreklamatzeko duten gaitasuna garatu behar dute. Horretarako haien indar, gaitasun eta sormen guztia hedatzeko baldintzak sortu behar dira, eta horiek haien hitza eta ikuspegia kontuan hartu beharko dute..
- Oinarritzko beharrak asetzetik harago joatea; beharren, desberdintasunen eta eskubide-uraketan egiturazko arrazoiak eraldatu ahal izateko.

Zehazki, estrategia honek hartzen dituen funtsezko printzipioek edo oinarriek bat egiten dute HEHn jasotakoekin eta hauek dira: **Haur eta nerabeen interesaren prebalentzia, diskriminaziorik ez jasateko eskubidea, parte hartzeko eskubidea eta bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea.**

Gainera, beste printzipio orokorrako batzuk ere baditu, *zeharkako ikuspegiak*, eta hauek dira haur eta nerabeekin lan egiterakoan kontuan izan behar diren alderdi horiek guztiak: **erreparazioa, bigarren biktimizazioa saihestea, dibertsitatea eta intersekzionalitatea eta genero-ikuspegia.**

Azkenik, atal honetan arazo honi erantzuteko kudeaketa- eta antolaketa-ereduak kontuan izan behar dituen *irizpide* batzuk ere aurkeztuko ditugu: **erantzunkidetasuna, erantzukizun publikoa, irisgarritasun unibertsala, haur eta nerabeen aldeko gizarte-inbertsioa eta etengabeko hobekuntza, gardentasuna eta kontu ematea.**

Estrategian sartuta dauden eragile guztiek izango dute ardura, haien eskumen eta funtzioen baitan, dagozkien arlo eta jarduketetan printzipio, ikuspegi eta irizpide hauek ezagutarazi eta modu sistematikoan ezartzen direla bermatzeko.

Funtsezko printzipioak

HAUR ETA NERABEEN INTERES GORENAREN PREBALENTZIA:

Nazioarteko tresna batean lehen aldiz 1959an aipatu zen, Haurren Eskubideen Adierazpeneko 2. eta 7. printzipioetan. Gerora, haur eta nerabeen eskubideen lau oinarritako bat bezala finkatu zen 1989ko HEAHn.

Portaera-eredu horrek ezartzen du haurren interesak beste edozein interesengainetik egon behar duela, baita gurasoen interesen gainetik ere. Haurren interes gorenari lehentasuna ematea esan nahi du haur eta nerabeen funtsezko eskubideak kontuan izatea eta haiei lehentasuna ematea beste kolektibo batzuen eskubideen eta interesen aurrean (haien identitateari, familia-ingurunearen zaintzari eta harremanak mantentzeari, haurren zaintza, babes eta segurtasunari, bere zaurgarritasun-egoerari, haurrek osasunerako duen eskubideari, hezkuntzari, eta abarri dagokionez).

“14. Ohar orokorra (2013), haurrek bere interes gorenari lehentasunezkoa izateko duen eskubideari buruzkoa” xedapenean, Haurren Eskubideen Batzordeak ezartzen du kontzeptua hirukoitza dela:

- Eskubide errealak: interes gorenari “ebaluatuko da eta kontuan hartuko da hainbat interes aztertzean, eztabaidatutako gai bati buruz erabaki bat hartzeko, eta eskubide hori praktikan jarriko dela bermatuko da, baldin eta erabaki bat hartu behar bada”, bai norbanakoan, bai talde-mailan eta adin txikiko herritar guztien multzoan.
- Interpretaziozko funtsezko kontzeptu juridikoa: oharra xedatzen du: “Ohar juridiko batek interpretazio bat baino gehiago onartzen baditu, interes gorenari modurik eraginkorrenean gogobetetzen duen interpretazioa aukeratuko da”.
- Prozedura-araua: haur eta nerabeei eragiten dieten erabakiak hartu behar direnean, norbanakoari, taldeari edo adingabeen multzo osoari dagokionez, erabakiaren balizko ondorioen (positiboak edo negatiboak) estimazioa egin behar da eta haien interes gorenaren alde egiten dutenen alde egin.

Interes gorenari ebaluatzeko, ohar orokorraren bidez azaltzen du Batzordeak zer elementu hartu behar diren kontuan. Gehien nabarmentzen diren artean aipatzekoak dira hauek: haur eta nerabearen adina eta heldutasuna; bere iritzia; bere identitatea; osasuna eta hezkuntza bezalako eskubideetarako sarbidea; bere zaintza, babes eta segurtasuna; integrazio eta garapen eraginkorra sustatzeko hartzen diren konponbideak egonkortzeko beharra; haien nortasunean eta etorkizuneko garapenean sor daitekeen edozein aldaketa material edo emozional izateko arriskua ahalik eta gehien murrizteko beharra; bizitza heldu eta independenterako trantsizioa prestatzea, bere gaitasun eta baldintza pertsonalen arabera; edo familia-ingurunea zaintzea eta harreman pertsonalei eustea.

Beraz, arlo guztietan eta haur eta nerabeei eragiten dieten prozesu legal, administratibo edo programa guztietan aplikatu beharreko printzipioa da.

HAUR ETA NERABEEK DISKRIMINAZIORIK EZ JASATEKO DUTEN ESKUBIDEA:

HEHrentzat funtsezko lau printzipioetako bat da diskriminaziorik ez jasateko eskubidea. Termino orokorretan esan nahi du haur eta nerabe guztiek, inolako salbuespenik gabe, Hitzarmenean jasotzen diren eskubide guztietarako sarbidea izan behar dutela.

Haur eta nerabeak ez dira diskriminatu behar adinagatik, ezta jatorriagatik, arrazagatik, desgaitasunagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, sexu-orientazioagatik edo beste edozein arrazoirengatik ere.

Alabaina, haur eta nerabeek diskriminazioa jasan dezakete gizarte helduzentristan adingabeak izateagatik eta, gainera, diskriminazioa jasan dezakete arrazismoagatik, matxismoagatik edo LGBTIfobiagatik, gizartean presente baitaude oraindik ere.

Haur eta nerabeek eta helduek legearen, administrazioaren edo programen aurrean berdintasun erreala eta eraginkorra izan dezaten lortzeko bi estrategia osagarri behar dira:

Alde batetik, haur eta nerabeen beharrak eta interesak sistematikoki eta zeharka diseinuan sartzeari, baita legeen, politiken eta prozeduren ezarpenean eta ebaluazioan ere. Horretarako, legeak, programak edo jarduketak administratiboak egiterakoan oraindik ere badagoen helduzentrista ikusarazi eta aldatu behar da, baita eskubideak aitortuak izateaz gain haur eta nerabeek modu eraginkorrean erabil ditzaten aitortuak izateko beharrezkoak diren neurri guztiak sartu ere. Hala, beharrezkoa da urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan ageri den eta uztailaren 28ko 26/2015 Legeak, haur eta nerabeen babes-sistema aldatzekoak, aurreikusten dituen terminoetan ageri diren haur eta nerabeen eskubideen eraginaren ebaluazioa txertatzea.

Bestalde, estrategia hori osatzeko, puntualki "ad hoc" neurriak sartu beharko dira jarduketa-arauetan, prozeduretan, protokoloetan eta, funtsean, erakunde publikoen jarduketak guztietan, betiere, adin txikikoek baliabide eta zerbitzuetara aukera berdintasunean eta helduentzako emaitza berdinekin sartzeko aukera izan dezaten.

Finean, haur eta nerabeek diskriminaziorik ez jasateak ez du esan nahi haur eta nerabe guztiak modu berean tratatu behar direnik eta are gutxiago helduak bezala tratatu behar dituztenik. Guztiz kontrakoa, haur eta nerabeen abiapuntu desberdinak izan behar dira kontuan baliabideetara, onuretara, eskubideetara eta aukeretara heltzeko eta kontrolatzeko. Beharrezkoa da diskriminaziorako baldintzak sortzen ari diren askotariko arazoak kontuan izatea, kasu bakoitzerako neurri zuzentzaile egokiak direnak sartuz, ekintza positiboak barne, haur eta nerabe guztiek, salbuespenik gabe, haien eskubideak modu eraginkorrean gauzatzeko.

HAUR ETA NERABEEK DISKRIMINAZIORIK EZ JASATEKO DUTEN ESKUBIDEA:

Haur eta nerabeen parte-hartzea funtsezko eskubidea da diskriminaziorik ezarekin, interes gorenaren lehentasunarekin, bizirauteko bermearekin eta erabateko garapenarekin batera, eta HEHren lau oinarrietako bat da.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 12. artikulua arabera, haurrek haien iritzia propioa osatzeko baldintzak izatea bermatu behar dute Estatuak; era berean, haiei eragiten dieten egoeren gaineko iritzia modu librean adierazteko eskubidea ere bermatu behar dute, eta haien iritzia kontuan izan behar dituzte adinaren eta heldutasun mailaren arabera. Gainera, eskubide hori aipatzen dute 13. (adierazpen-askatasunerako eskubidea), 15. (elkartzeko askatasuna izateko eskubidea) eta 17. artikuluek (informazio egokia eskuratzeko eskubidea).

Beste arau batzuek ere, hala nola haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak, haurren eta nerabeen iritzia kontuan hartzeko betebeharra aipatzen dute: "Adingabearen desioak, sentimenduak eta iritzia kontuan izatea, baita progresiboki parte hartzeko duen eskubidea ere, bere adinaren, heldutasunaren, garapenaren eta eboluzio pertsonalaren arabera, bere interes gorena zehazteko prozesuan".

Halaber, hori sustatzeak haur eta nerabeak bizi diren komunitatean edo gizartean parte hartzen duten pertsona arduratsuak izateko gaitasunak eta erantzukizunak eskuratzen laguntzen du. Helburu horretarako egokia da haien eskubideen ezagutza eta gauzatze progresiboa sustatzea, eta esperientzia horiek bere komunitatearen garapenari ekarpena egin diezaioke, baita autonomia progresiboa praktikan jarri ere.

Haurren eta nerabeen parte-hartzeko eskubidea hauek osatzen dute, besteak beste:

- Eragiten dieten gaien gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, kuantitate eta kalitate egokikoa.
- Kezka eragiten dieten edo interesatzen zaizkien gaien inguruan haien ideiak osatu eta adierazteko, eta haien iritzia emateko eskubidea. Eta iritzia osatzeko edo adierazteko prozesu horretan pertsona helduek botererik edo eraginik ez izateko eskubidea.
- Besteek haiek emandako iritzia entzuteko eta errespetatzeko eskubidea. Helduek horretarako behar den denbora eta espazioak eskaini beharko dituzte.
- Haur eta nerabeek emandako iritzia kontuan hartzeko eta eragiten dieten gaiei buruz hartzen diren erabakietan eragina izateko eskubidea.

Estrategia honen esparruan, haur eta nerabeen bizitza pertsonalean, familian, komunitatean edo gizartean eragina duten legedia, jarduketak administratibo edo programatiko guztiek haur eta nerabeen parte-hartzea izan beharko dute, eragiten dieten gauza guztietan uneoro aktiboki entzunak izateko aukera eskainiz.

"Gurasoek ahalegin handia egiten dute zoriontsu izan zaitezten, baina galdetu gabe: haien desirak eta frustrazioak zuregan proiektatzen dituzte".

Haur edo nerabe baten lekukotza.

HAUR ETA NERABEEN BIZITZEKO, BIZIRAUTEN ETA GARATZEKO ESKUBIDEA:

HEHk ezartzen du haur eta nerabeek eskubidea dutela bizitzarako, biziraupenerako eta garapenerako. Horrek esan nahi du haien duintasuna eta garapen osoa bermatuko duen bizitza izan behar dutela, hor barruan sartzen dira, hitzarmenaren arabera, garapenaren dimentsio fisikoa, burukoa, espirituala, morala eta soziala.

Haurren Eskubideen Batzordeak 2017an argitu zuen bizitzeko eskubidea zentzurik zabalenean ulertu behar dela, eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kultural gisa. Beraz, haurren bizitzaren aurka egin dezaketen gertakarien aurrean babesteaz gain, bizitza duina izateko gutxieneko baldintzak bermatu behar dira.

Halaber, batzordearen arabera, bizirauteko printzipioa bere osotasunean interpretatu behar da, HEHn zehazten diren gainerako eskubide guztiekin artikulatuz. Alde horretatik, erakunde publikoek beharrezko neurri guztiak hartu behar dituzte haur eta nerabeen bizitza luzatzeko eta hura duina izateko.

Haur eta nerabeen garapenerako eskubideari dagokionez, hasieran aipatu dugun moduan, osoa izan behar da eta dimentsio guztiak hartu behar ditu kontuan. Gainera, interes gorenaren printzipioa ezartzeko bezala, kasu bakoitza aztertu behar da eta hainbat diziplina uztartu, hala nola pediatria, psikologia, gizarte-lana edo hezkuntza, eta generoak, arrazak edo klaseak sortzen dituen aurreiritziak eta estereotipoak saihestu.

Termino orokorretan, funtsezko printzipio honek esan nahi du erakunde publikoek haur eta nerabe guztien gizarteratzerako beharrezko ekintza guztiak sustatu behar dituela; dimentsio guztietan garapena erabatekoa dela bermatzeko, eskubide horren aurka egiten duen edozein portaera saihesteko eta bizitzaren aurkako ekintzak ikertzeko eta zigortzeko.

Zeharkako ikuspegiak

ERREPARAZIOA:

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa da eta giza eskubideen urraketan biktima guztiek dute erreparaziorako eskubidea.

Erreparaziorako printzipioaren kontzeptua gatazka armatuen eremuetan errespetatu ez diren giza eskubideetatik dator. Gerora, eta erreparaziorako justizia-ereduaren barruan, beste giza eskubideen urraketa batzuetan ezartzen eta garatzen hasi zen.

Erreparaziorako printzipioa berriki eta pixkanaka sartu da haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren arloan; beraz, oraindik ere bide luzea dago modu eraginkorrean txertatu eta finkatzeko. Estrategia honetan, esparru orokor gisa hartzen ditugu nazioarteko erakundeek eta giza eskubideen defentsan lan egiten dutenek eskaintzen dituzten jarraibideak.

Nazio Batuetako Batzar Orokorrak 2005eko abenduaren 4ko 60/147 ebazpenean eman zituen "Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketan eta nazioarteko zuzenbide

humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekursoak jartzeko eta erreparazioak lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibidea". Ebazpen honetan aipatzen dira erreparazioaren esparruan kontuan izan behar diren bost neurri nagusiak: lehengoratzea, indemnizazioa, birgaitzea, gogobetzea eta ez errepikatze bermea. Halaber, erreferentzia gisa har daiteke EUDELek eta Emakunde⁹³, Nazio Batuen esparrutik abiatuta, EAEko tokiko erakunde publikoetatik indarkeria matxistaren kasuak erreparatzeko printzipioa zehaztu eta lurreratzen laguntzeko egin zuten lana.

Erreparaziorako printzipioak esan nahi du biktimaren eskubideak arretaren erdigunean kokatzea. Biktima guztiek babesa eta arreta osoa jasotzeko duten eskubidea da.

Printzipio hau presente izan behar da zeharka jarduteko arlo eta maila guztietan. Zeharkakotasunetik, maila (norbanakoa, kolektiboa eta publikoa), arlo (soziala, sinbolikoa, ekonomikoa, juridikoa) eta kasu zehatz desberdinetan jardun daiteke biktimekin, eragiten dion kalte motan jarriz arreta (sexu-erasoa, sexuagatiko laneko jazarpenera, sexu-jazarpenera, etab.).

Erreparazio-arretaren arabera, indarkeriatik bizirik atera diren biktimak subjektu aktiboak dira sendatze-prozesuan.

. Esan nahi du indarkeriaren berehalako ondorioak jorratzea bizitzako dimentsio guztietan: osasunean, hezkuntzan, ingurune sozialean, afektiboan, justizian. Halaber, gerokoei ere erreparatzea eskatzen du, epe ertain-luzean ager daitezkeen ondorioei jarraipena egiteko baliabideen bitartez. Hori funtsezkoa dela ikusi da, esaterako, sexu-abusuak eman eta hamarkadak igaro ostean publikoki salatu dituzten kasuetan.

Halaber, biktima bakoitzaren ezaugarri berezietatik abiatu behar duen arreta pertsonalizatua eskatzen du, bere egoeran esku hartzen duten arrisku-faktore guztiak eta babesleak kontuan hartzen dituen ikuspegi intersektionala txertatuz. Gainera, arreta osoa izan behar da, aurretik esan dugun moduan, indarkeriak eragindako arlo guztietan jarri ahal izateko arreta: fisikoan, psikologikoan, sozialean, emozionalean, etab.

Era berean, erreparazioa gehitzeak esan nahi du biktimaren- biziraun duen pertsonaren ahalduztetik bere eskubideak berrezartzea eta erreparazio publiko-soziala egitea, egiaren printzipioan oinarrituz, eta haur eta nerabeen aurkako indarkeria-eskubideen urraketa dela aitortuz.

Estrategia honen asmoa ez da erreparaziorako politika eta neurri zehatzak zein izan behar diren zehaztea. Alabaina, lanean jarraitzeko baldintzak sortu nahi ditu, giza eskubideen sustapenean eta defentsan lan egiten duten askotariko eragileek duten esperientzia eta ezagutza batuz, arlo honetan eta EAEko errealitate zehatzean erreparazioaren printzipioa txertatzen duten politikak sustatu daitezten.

BIGARREN BIKTIMIZAZIOAREN PREBENTZIOA:

Umek administrazioaren edozein instituzio publiko edo pribatutara jotzeak haien eskubideak errespetatzearen eta gauzatzearen berme izan behar luke beti. Bereziki

93 BERDINSAREA-EUDEL. *Indarkeria matxistaren biktimen erreparaziorako tokiko jarduketak*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2021.

beharrezkoa da hala dela bermatzea eskubide urraketak jasan dituzten eta edozein indarkeria mota pairatu duten haur eta nerabeen kasuan.

Alabaina, batzuetan, indarkeria jasan duten haur eta nerabeek erakundeek eragindako bigarren biktimizazioa bizi dute., hau da, biktimak artatzen dituzten erakunde eta profesionalen partetik praktika txarrak jasaten dituzte eta sufrimendu gehiago gehitzen diete bizi izan dituzten esperientzia traumatikoei.

Bigarren biktimizazioa haur eta nerabeen aurkako biktimei erantzuna ematerakoan gerta daiteke (detekzioarekin, arretarekin, babesarekin edo erreparazioarekin izan dezake zerikusia), haien eskubideak ezagutzen ez direlako, baliabide espezializatuak eta egokituak falta direlako edo arauak, prozedurek eta protokoloek duten ikuspegi helduzentrista dela eta. Horrek haur eta nerabeen behar espezifikoak ikusezin bihurtu eta alde batera uzten ditu. Bigarren biktimizazioa eskubideak gauzatzea luzatu, zaildu, eragotzi, mehatxatu edo urratu dezaketen praktika desgokiak edo gutxiegiak ere izan daitezke.

“Denek ez dute laguntza eskatzeko gaitasun bera eta laguntza eskatzerakoan kasurik egiten ez badizute, beste kolpe bat da”.

Haur edo nerabe baten lekukotza

Printzipio honek gidatzen dituen jarduketek bigarren biktimizazioa saihestu behar dute, koordinatutako jarduketak diseinatuz, eginbide errepikakorrak saihestuz, azkartasuna eta espezializazioa bermatuz, eta estereotiporik eta zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik gabeko arreta bermatuz. Bermatu behar da haur eta nerabeekin, haien familiarekin eta/edo ingurunearekin egiten diren jarduketek zuzeneko edo zeharkako ondorio negatiborik edo kaltegarriak ez izatea haien interes gorenean.

DIBERTSITATEA ETA INTERSEKZIONALITATEA:

Haurrak eta nerabeak pertsona anitzak dira eta aniztasun hori ikusarazi, aitortu eta babestu egin behar da, haien eskubideen erabateko garapena eta gauzatze eraginkorra bermatzeko. Horretarako, estrategia honek sustatzen du familia-eredu eta adingabeko guztiek haien bizitzako arlo guztietan modu askean eta erabat garatzeko aukera izatea, diskriminaziorik, indarkeriarik edo bazterkeriak pairatu behar izan gabe.

Printzipio honek ulertzen du eragile, erakunde, sistema eta herritar guztiek erantzukizun kolektiboa dutela adingabe guztiek haien haurtzaroz eta nerabezaroz gozatzen dutela bermatzeko, eta haien eskubideak eta askatasunak zaintzeko, arraza, kolorea, sexua, sexu-orientazioa, genero-identitatea, hizkuntza, desgaitasuna, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri herrialdea edo soziala, bizilekua, maila ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza dela eta diskriminaziorik jasan beharrik gabe.

Gizarte inklusibo batean, dibertsitatea balioa eta aukera da, eta ez mehatxua. Printzipio hau betetzeko, ezinbestekoa da ikuspegi intersektionaletik jardutea, hau da, bizi diren testuinguru soziala eta kulturala kontuan izanik, haur eta nerabeen identitatean eragina

duten faktore guztiak kontuan hartuz, elkar nola eragiten duten aztertuz eta bizitzako arlo guztietan zer nolako eragina duten arretaz jarraituz.

Interseksionalitate-kontzeptua pertsona edo kolektibo bat osatzen duten askotariko kategoria sozialak⁹⁴ eta horiek eskubideen eta aukeren inguruan duten eragina ikusarazteko sortu zen. Orduetik, tresna hau zabaldu eta finkatu egin da azterketak egiteko, pertsonekin lan egiteko eta politikak egiteko. Izan ere, eskubide eta aukerak izateko hainbat identitatek eragiteko duten modua ulertzen laguntzen du eta baita gure bizitzako arlo baten gainean eragiten duten politikak, programak, zerbitzuak eta legeak besteei tinko lotuta daudela ikusteko ere.⁹⁵

GENERO-IKUSPEGIA:

Genero-ikuspegia txertatzeak aukera ematen du haur eta nerabeen identitateen eta subjektibotasunen eraikuntza errespetatzeko eta laguntzeko, haien ahalmena eta gaitasunen garapena hedatzeko.⁹⁶

Ikuspegi hau haur eta nerabeen politiketan txertatzea funtsezkoa da desberdintasunekin amaitu eta haur eta nerabeen berdintasuna sustatzeko. Haur eta nerabeen egunerokoan eta indarkeria-egoeretan dauden faktore sozialak, komunitarioak, familiakoak eta indibidualak ulertzeko eta testuinguruan jartzeko tresna da.

“Neskak ez gara mutilak bezain seguru sentitzen kalean, batez ere argi edo jende gutxi dagoenean”.

Haur edo nerabe baten lekukotza.

Eraikuntza sozialean, komunitatearenean, familienean eta norbanakoen bizitzetan eragina duten balioak, aginduak, estereotipoak edo rolak begiratu eta aztertzea beharrezkoa da emakume eta gizon guztiak zeharkatzen dituzten jokabideak, desberdintasunak eta diskriminazioak ulertzeko. Sexu-genero sistemak funtsezko garrantzia du desberdintasunen, diskriminazioan eta indarkeriaren eraikuntzan gure sisteman. Hortik dator modu sistematikoan kontuan izateko beharra.

Maila makrosozialean, genero-ikuspegiak aukera ematen digu genero-rolak eta estereotipoak; haurrei esleitzen zaizkien aurreikuspenak eta aginduak; eta haien zaintzaren ardura duten emakume eta gizon helduen mugak eta portaerak ikusarazi eta ulertzeko. Izan ere, horrek guztiak eragin zuzena du, oro har, gizartearen eta, zehazki, familien funtzionamenduan eta eraikuntzan.

94 1989an sortu zuen terminoa Kimberlé Williams Crenshaw akademiko eta irakasleak, zeina arrazaren teoria kritikoan espezializatua baitzegoen. Ikerlariak ikusarazi nahi zuen “norbanako bakoitzak hainbat gizarte-kategorien parte izateagatik pairatzen dituen zapalkuntzak edo dituen pribilegioak azaltzen dituen fenomenoak”.

95 AWID. “Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica”. *Emakumeen eskubideak eta aldaketa ekonomikoa* 9. zenbakia (2004ko abuztua). https://www.awid.org/sites/default/files/atoms/files/interseccionalidad_una_herramienta_para_la_justicia_de_genero_y_la_justicia_economica.pdf

96 URUGUAIKO HAUR ETA NERABEEN INSTITUTUA *Perspectiva de género en políticas de primera infancia, infancia y adolescencia*. Montevideo: INAU-Uruguaiako Gobernua, 2019.

Komunitate mailan, genero-ikuspegiak baldintza sozioekonomikoak eta baliabideetarako irisgarritasun-baldintzak ulertzen laguntzen digu, baliabide eta zerbitzuetarako sarbidean desberdintasuna dakartenak, eta hainbat fenomeno eragiten ditu, hala nola pobreziaren feminizazioa eta pobreziaren infantilizazioa, edo kontziliaziorako eta erantzukidetasunerako zailtasunak.

Familiaren edo lehen mailako harremanen mailan ezinbesteko tresna da, besteak beste, emakume eta gizonek haur eta nerabeen zaintzan duten inplikazioaren desberdintasun iraunkorrak, amatasunaren edo aitatasunaren jardunean agindu tradizionalak nola eragiten duten eta familiaren osaketa eta funtzionamendua nolakoa den aztertzeko. Ezinbestekoa da tresna hau erabiltzea familietan emakume helduen aurka ematen den indarkeria matxista ulertzeko, horrek zuzenean eragiten baitio haur eta nerabeen ongizate eta garapenari.

Maila indibidualean, aurretik aipatu dugun moduan, sexua kontuan hartu beharreko aldagaia da. Gizarte patriarkal honetan, neska haur eta nerabeek indarkeria espezifiko batzuk pairatzen dituzte, dinamika, maiztasun, larritasun eta ondorio bereizgarriak dituztenak, eta horiek ezin dira alde batera utzi.

Ereduaren irizpideak

ERANTZUNKIDETASUNA:

Estrategia honetan gizartearen erantzunkidetasun bateraturako aurrerapausoak ematea proposatzen da eta, zehazki, euskal erakundeena, haur eta nerabeen zaintzarako eta, bereziki, haur eta nerabeekiko indarkeria-egoeren prebentziorako, aurretiazko detekziorako, arretarako, babeserako eta erreparaziorako.

Estrategia honek haur eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko ikuspegi holistikoa hartzearen funtsezko garrantzia aitortzen du, haur eta nerabe guztiei bizitzako arlo guztietan eskubide guztiak bermatzen dizkie eta botere publiko guztiak eta gizarte osoa inplikatzeko du.

Horregatik du estrategia honek izaera multidimentsionala eta erakundeen artekoa. Botere publikoak dira, arlo eta maila guztietatik, haur eta nerabeen eskubideen erantzule nagusiak. Arlo desberdinei eragiten dieten helburuak eta jarduteko ildoak jasotzen ditu: hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, justizia, segurtasuna, kultura edo berdintasuna, besteak beste, baita administrazioan dauden hiru mailak ere: erkidegokoa, aldundietakoa eta tokikoak.

Hala ere, botere publikoak ez dira sartuta dauden eragile bakarrak. Erantzunkidetasunean oinarritzen den gizarte-babeserako eta gizarte-harremanetarako eredia eraikitzeko, funtsezkoa da eragile publikoen eta pribatuen arteko loturak indartzen jarraitzea; haur eta nerabeen arloan lan egiten duten eragile sozial, sindikatu, enpresetako elkarte, eta hirugarren sektoreko erakundeen inplikazioa sustatuz, baita familiarena, sexu-aniztasunarena, kulturartekotasunarena, desgaitasunarena edo gizarte-bazterkeriarena ere.

Azken finean, beharrezkoa da familiek, emakumeek eta gizonek, erakundeek, eragile ekonomiko eta sozialek, komunikabideek eta gizarte osoak haur eta nerabeen sustapenaren eta babesaren rol aktiboa eta ardura hartzeko lan egitea. Erantzukizunak esan nahi du guztiek hartzen dutela parte haur eta nerabeen zaintzan, eragile guztiek ezagutu behar dutela HEHren baitan indarrean dagoen araudia, gaitasunak, funtzioak eta printzipioak, haien rolaen arabera.

ERANTZUKIZUN PUBLIKOA:

Estrategia honen asmoa da egunerokoan haur eta nerabeekin lan egin eta elkarreragina duten eragile publiko eta pribatu guztientzat marko komuna eta jarraibideak ezartzea.

Alabaina, hori garatzeko beharrezkoa da sistema, maila, zerbitzu edo erantzukizun publikoko baliabide guztien konpromisoa eta lidergoa, hala nola indarkeria pairatzen duten haur eta nerabeen babes osorako politikak eta neurriak ezartzeko eta ebaluatzeko. HEH betetzeko, botere publikoek neurri administratibo, legal eta bestelako guztiak hartuko dituzte, aitortutako eskubideak eraginkorrak izan daitezten.

Gainera, erakunde publikoek familiak eta haur eta nerabeei laguntzarako eta babes informalerako beste elkartasun-sareak babestu eta lagundu behar dituzte, baita indarkeriaren prebentzioa ere.

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA:

Irisgarritasunaren eta Bizitza Independentearen Behatokiak bere webgunean eskaintzen duen oinarrizko definizioen glosarioaren arabera, "inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuak eta zerbitzuak bete behar duten baldintza da, baita objektuak edo baliabideek, tresnak eta gailuak ere; pertsona guztiek baldintza seguru eta erosoetan eta ahalik eta modurik autonomo eta naturalenean ulertu, erabili eta baliatu ahal izateko".

Irisgarritasunaren kontzeptua desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko garatu da funtsean, baina dimentsio integrala hartu du, eta espazio, produktu eta zerbitzu guztietan orokortu daiteke. Aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa betetzeko ezinbesteko irizpidea bihurtu da.

Diseinu unibertsalaren estrategia hartzen du, hau da, inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, gailuak edo tresnak pertsona guztiek erabili ahal izateko moduan diseinatzea.

HAUR ETA NERABEENTZAKO INBERTSIO SOZIALA:

Haurtzaroan inbertsioa egiteak esan nahi du giza garapena sustatzea eta gizarte osoaren ongizate kolektiboari ekarpena egitea. Giza eskubideen, berdintasunaren eta gizarte-justiziaren arloko kontua da, herritar guztiei ekartzen dizkie onurak eta gizarteak eraldatzeko funtsezko elementua da.

Europako Batzordeko 2013ko otsailaren 20ko “Haurtzaroan inbertitu: desabantailen zikloa apurtu” gomendioak aitortzen du EBko herrialde gehienetan haur eta nerabeek pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arrisku handiagoa dutela helduek baino, eta pobrezian edo bazterkerian hazten diren haur eta nerabeek aukera gutxiago dituztela eskolan errendimendu ona izateko, osasuntsu egoteko eta bizitzako hurrengo faseetan haien potentzial guztia aprobetxatzeko.

Horregatik, batzordeak gomendio hauek ematen ditu:

- Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren belaunaldi arteko erreprodukzioarekin amaitzea.
- Esku hartze goiztiarra eta prebentzioa ezinbestekoak dira politika efiziente eta eraginkorrakoak egiteko.
- Pobrezia eta gizarte-bazterkeria eta haien ondorioak pertsonen bizitzako lehen urteetan zuzentzea bi fenomeno horiek orokorrean jorratzeko ahaleginak handitzea da.

Haur eta nerabeen ikuspegia presente egon behar da erakundeen aurrekontuetan, egiten den inbertsioa identifikagarria izan dadin eta, gerora, eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea erraztu dezan⁹⁷.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA:

Indarkeria pairatzen duten haur eta nerabeek kalitatezko arreta jasotzen dutela bermatzeko, beharrezkoa da sistema eta maila guztiek funtzionatzea, etengabe hobekuntzari dagokionez. Prozesuak, baliabideak eta zerbitzuak etengabe berrikustea erraztuko duten kultura eta beharrezko baldintzak instalatzea, akatsak hautemateko, konponbideak bilatzeko, hobetzeko alderdiak identifikatzeko eta, lehentasunez, ekintza edo omisioagatik kalitatea galtzea edo are bigarren biktimizazioa sortzea eragin dezaketen elementu guztiak saihesteko. Erakunde erantzuleek baldintzak sortu beharko dituzte arloan lan egiten duten langile guztiek zerbitzuen eta haien jarduketan eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko etengabe moduak bilatu ahal izateko.

Bestalde, informazio publikora heltzeko eskubidea Europako eta estatuko hainbat araubidetan aitortu eta jasotzen da. Eskubide hori gauzatzeko funtsezkoa da erakundeek gardentasunez jardutea eta herritarren aurrean kontuak ematea. Gainera, gardentasunak herritarrek erakundeen ekintzen gainean duten konfiantza, parte-hartzea eta kontrol zuzena areagotzen ditu eta demokrazia indartzen du.

Jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzeko, informaziorako sarbidea arautu eta bermatzeko, eta gobernu onaren betebeharrak ezartzeko, 19/2013 Legea onartu zen, Gardentasunari, Informazio Publikorako Sarbideari eta Gobernu Onari buruzkoa, eta administrazio publiko guztiei ezartzen zaie. Lege horretan berresten da gardentasuna dela gobernuko gai guztiak herritarrei jakinaraztea, zehazki “publiko dena,

⁹⁷ UNICEFetik esperientziak garatu dira, administrazio publikoak egiten dituzten aurrekontuan haurren aldetik aztertzeke proposamen metodologikoa txertatuz; partida garrantzitsuak, haurrei esleitutako gastuaren zenbatekoa eta haur eta nerabeen eskubideetara bideratuta dagoen aurrekontuaren gastu handiagoa edo txikiagoa identifikatuz.

guztiona dena eraikitzen parte hartu eta laguntzeko (...). Ez da “ikusten uzteko” zeregin pasiboa, herritarrak ondo informatuta egon daitezen ahalbidetzen duten politikak behar ditu”⁹⁸.

Etengabeko hobekuntzarako, gardentasunerako eta kontuak emateko ezinbestekoa da informazioa biltzeko sistema fidagarriak garatzea, jarduketak monitorizatu, lortutako emaitzak ebaluatu eta gero eta eraginkorragoak diren baliabideak, prozedurak eta tresnak bilatu eta garatzeko datuak izateko.

98 Iturria: Gardena Eusko Jaurlaritzako datuen gardentasunaren eta ikusgarritasunaren ataria da.

HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA JARDUKETA-ILDOAK

EAEko haur eta nerabeekiko errealitatearen diagnostikotik abiatuta, estrategia honek lau **ardatz edo helburu estrategiko** ezartzen ditu, eta honetatik eratortzen diren erronkei erantzuteko datozen lau urteetako helburu edo xedeei dagozkie. Gainera, aipatu dugun moduan, helburuetako bakoitza betetzeko eragileek jarraitu beharko lituzketen bide edo **jarduteko ildo nagusiak** aipatzen ditu, palanka gisa funtziona dezaketen elementuak identifikatuz.

Lehenengo bi ardatzek sustapenean, prebentzioan, aurretiazko detekzioan eta kasuen komunikazioan sakontzeko behar diren neurriak zehazten dituzte. Aurretik egin daitekeen lanean jarraibide-multzo handia azaldu nahi izan da, arretarako eta erreparazioarako beharrak murriztu ahal izateko. Izatez, hirugarren ardatzak indarkeria pairatu duten haur eta nerabeen arretarekin eta erreparazioarekin zerikusia duen funtsezko lana zehazten du. Zirkulua laugarren ardatzarekin ixten da, sistema bere osotasunean indartzen duen ardatzarekin.

Zehatzago:

Lehenengo ardatzak lehen mailako **eskubideen sustapenean eta prebentzioan** jartzen du arreta. Ardatz honen esparruaren barruan, indarkeria prebenitzea eta prebalentzia murriztea da asmoa, gizartera, profesionalengana eta haur eta nerabeengana bideratutako jarduketa-ildoen bitartez, Helburu hori lortzen lagunduko duten palanketako batzuk dira Tratu Onaren Kultura, erantzunkidetasuna, ingurune segurak, haur eta nerabeen eskubideak, partaidetza, bizitzarako gaitasunak edo heziketa sexu-afektiboa. Horiek guztiak sustapenerako eta prebentziorako elementu gakoak dira.

Bigarren ardatzabalizko indarkeriakasuen **aurretiazko detekzioaren** eta komunikazioaren ingurukoa da. Gero eta lehenago egiten den detekzioan aurrerapausoak egitea da asmoa, haur eta nerabeengan indarkeriak izan dezakeen eragina ahalik eta gehien murrizteko. Helburu hori lortzen lagundu dezaketen palanketako batzuk dira hauek: sentsibilizazioa eta informazioa, komunikatzeko bideen dibertsifikazioa eta irisgarritasuna, detekzio goiztiarra egiteko tresnen gaitasuna eta diseinua, lankidetzarako hitzarmenak, sarean eginiko lana edo indarkeria-modu sotilenean desnaturalizazioa.

Hirugarren ardatzak indarkeria-mota desberdinen **arreta eta erreparazioa** jorratzen ditu. Ardatz honen esparruan, haur eta nerabeek eta haien familiek dituzten arreta, babes eta erreparazio-beharrei erantzuteko arreta osoa sustatu nahi da. Norabide horretarantz aurrerapausoak emateko, gakoak dira partaidetza eta entzumen aktiboa, bigarren bktimizazioa saihestea, erantzun batzuen espezializazioa, arretaren pertsonalizazioa eta generoaren eta interseksionalizatearen ikuspegia.

Laugarren ardatza **lankidetzara eta ezagutzaren kudeaketara** dago bideratuta, eta ezagutza eta erantzunen eraginkortasuna areagotzeko informazio-sistema eta etengabeko hobekuntza garatzea da helburua. Helburu hori lortzen lagun dezakete jarduketa egokien trukeek, ikerketak, ebaluazioak, datu-bilketaren sistematizazioak eta arrisku psikosozialen zaintzak.

Hurrengo taulan modu eskematikoan ageri dira lau ardatzak dagozkien lau helburu estrategiko eta jarduketa-ildoekin:

ARDATZA	HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUERA ILDOA
<p style="text-align: center;">1. PREBENTZIOA ETA ESKUBIDEEN SUSTAPENA</p>	<p>1. Haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzea, giza eskubideen urraketaren prebalentzia murrizteko, Tratu Onaren Kultura, ingurune seguruak, eta haur eta nerabeen eskubideen gauzatze eraginkorra sustatuz.</p>	<p>1.1. Ezagutzaren sustapena eta haur eta nerabeen eskubideak gauzatzea, batez ere haur eta nerabeen parte hartzeko eskubidea; izan ere, inguruan rol aktiboa izatearekin lotutako trebetasunak lantzeko eta balioak eskuratzeko aukera ematen du, bai eta guztion aurrerabiderako lankidetzan aritzeko ere, ahalduntzean lagun baitezakete.</p> <p>1.2. Haur eta nerabeek bizitzarako balioak eta gaitasunak bereganatzea, hala nola bizikidetzarako gaitasunak hartzeko eta jarrerak garatzeko tresnetan, Tratu Onaren Kulturarekin bat egiteko eta indarkeria eta bere ondorioak prebenitzeko.</p> <p>1.3. Haur eta nerabeek heziketa sexu-afektiboa jasotzea, enpatiatik eta errespetutik harreman afektibo eta sexual parekideak eta haiekiko eta beste pertsonetik inolako indarkeriarik gabeak garatzeko tresnak lortu ahal izateko.</p> <p>1.4. Arlo desberdinetan haur eta nerabeentzat erreferentziazkoak diren profesionalak eta boluntarioak sentsibilizatzea eta gaitzea Tratu Onen Kulturari dagokionez, indarkeriazkoak ez diren harremanak, errespetuzkoak, afektiboak, positiboak eta parekideak izateko eta ingurune seguruak bermatzeko (fisikoak eta emozionalak) jokabideak eta balioak indartu ditzaten.</p> <p>1.5. Hurbileko testuinguruetan ekipamenduak eta baliabide sozio-hezitzaileak, kulturalak, aisialdikoak eta kirolekoak indartzea, ikuspegi komunitariorik eta lankidetzatik lan egiteko.</p> <p>1.6. Gizarte osoa sentsibilizatzea eta Tratu Onaren Kulturaren Inguruan informatzea, elkarbizitzarako eredu gisa sen ona eta indarkeriarik eza sustatzeko.</p> <p>1.7. Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea, seme-alabak dituzten familiak eta gizarteak berak Tratu Onaren Kulturarekin bat datozen gaitasunak lortzeko eta jarrerak garatzeko eta indarkeria eta bere ondorioak prebenitzeko.</p>

<p style="text-align: center;">2. HAUTEMATE GOIZTIARRA ETA KOMUNIKAZIOA</p>	<p>2 Indarkeria-kasuen edo indarkeria-arriskuen hautemate goiztiarra bermatzea haur eta nerabeengan izan dezakeen eragina murrizteko eta arreta berezia jartzea sozializatzeko lehen mailako agertokietan edo hurbileko inguruneetan jarduten duten eragileek egiten duten zereginean.</p>	<p>2.1. Haur eta nerabeak emozioak identifikatu eta ezagutzeko gaitzea, kaltegarriak izan daitezkeen edo eskubideak urra ditzaketen haiekiko edo beste haur eta nerabeekiko jarrerak hauteman eta desnaturalizatzeko, eta hala isiltasuna apurtu ahal izateko tresnak izan ditzaten.</p> <p>2.2. Komunikatzeko eta entzuteko bideak eta kanalak indartu eta dibertsifikatzea, haur eta nerabeentzat irisgarriak, hurbilekoak, konfidentzialak, fidagarriak eta seguruak izan daitezten.</p> <p>2.3. Sentsibilizazioa, gaitasun jarraitua eta arlo desberdinetan (eskolan, kirolean, aisialdian eta denbora librean...) haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalak eta boluntarioek eta hurbileko beste eragile batzuek (lehen arretako osasun-zentroek, udaltzainek...) oinarrizko ezagutza egokiak eta beharrezko babesak dituztela bermatzea, indarkeria motaren bat sufritzen ari diren edo sufritzeko arriskua duten haur eta nerabeak identifikatu ahal izateko.</p> <p>2.4. Arlo eta administrazio maila desberdinetako profesionalen arteko sareko lana sustatzea, lankidetzarako hitzarmenak sustatuz, protokoloak berrikusiz eta eguneratuz, koordinaziorako eremu egonkorak edo barneko eta diziplina anitzeko jarduketa koordinatu hobeago bat indartzeko beste edozein tresna eratzea, edo indarkeriaren balizko egoerak hauteman diren egoerak bideratu eta jarraipena egiteko baliabideak indartzea.</p> <p>2.5. Herritar guztiei bideratutako sentsibilizazioa eta informazioa, indarkeria mota desberdinak aitortzeko, haur eta nerabeen hitza zalantzan ez jartzeko eta indarkeria-kasuak erakundeei aktiboki jakinarazteko, betiere, haur eta nerabea baloratu, artatu eta babestu ahal izateko.</p> <p>2.6. Salaketa-kateen eta arreta-baliabideen inguruko zabalpena egitea herritarren, profesionalen eta boluntarioen artean.</p>
--	---	--

<p style="text-align: center;">3. ARRETA ETA ERREPARAZIOA</p>	<p>3. Indarkeria mota desberdinetan sartuta dauden haur eta nerabe guztien (biktima, testigu edo erasotzaile moduan) eta haien familien arreta, babes- eta erreparazio-beharrei erantzuteko arreta osoa bermatzea, espezializazioa eta pertsonalizazioa indartuz eta berriro biktimizatzea eragotziz.</p>	<p>3.1. Parte-hartzea eta haur eta nerabe guztien entzumen aktiboa sustatzea haien bizitzako erabakiak hartzeko prozedura guztietan, haien adin eta heldutasunaren arabera, haien bizitzari eta osatzeari eragiten dieten prozesuetan haien iritzia kontuan hartua izan dadin, indarrean dagoen legediari dagokionez.</p> <p>3.2. Haur eta nerabeetan oinarritzen den arreta-eredua sustatzea, kasu bakoitzaren beharretara egokitzeko nahikoa pertsonalizatua eta osoa dena.</p> <p>3.3. Institutuzio edo erakundeen partetik Haur eta nerabeen bigarren biktimizazioa eragin dezaketen jarduketan prebentzioa egitea , eskubide urraketak ikusaraziz eta horien inguruan sentsibilizatuz.</p> <p>3.4. Haur eta nerabeei familia-ingurune egonkorrak eta seguruak bermatuko dizkieten neurriak indartzea, zaurgarritasun-egoeran daudenei arreta berezia jarriz, familientzako laguntza eta babes osoaren bitartez.</p> <p>3.5. Maila guztietan jasandako kaltea eta indarkeriaren ondorioak artatzeko bitarteko gisa erreparazioa sartzea, lehengoratzeko, indemnizatzeko, birgaitzeko, gogobetetzeko eta berriz gerta ez dadin bermatzeko neurriak garatuz, eta erabat osatzeko jarduketak, programak eta zerbitzuak indartzean arreta berezia jarriz.</p> <p>3.6. Genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea, baita dibertsitatearen ikuspegia ere, begirada intersektzionaletik arreta handia eskaini ahal izateko faktore soziokulturalei. Izan ere, horiek baldintzatzen dituzte indarkeria-kasuak, haien ondorioak eta osatzeko aukerak.</p> <p>3.7. Oreka handiagoa eta lurraldearen homogeneotasuna bermatuko duten estandarrak ezartzea, EAEko herritar guztiek baliabideetara, zerbitzuetara eta gutxieneko kalitatezko arretara sarbide bera izan dezaten.</p> <p>3.8. Esku hartzean profesionalak diren pertsonen prestakuntza jarraitua , espezializazio maila egokia bermatzeko, arlo guztietan, haurren eta nerabeen behar espezifikoak dagokienez.</p>
--	--	---

<p style="text-align: center;">4. LANKIDETZA ETA EZAGUTZAREN KUDEAKETA</p>	<p>4. Informazio sistema baten eta etengabeko hobekuntzaren garapena sustatzea, baita eragileen eta sistemen arteko lankidetzaren ere, ezagutza eta erantzunen eraginkortasuna handitzeko, ikerketa, berrikuntza eta ahaleginen koordinazioa sustatuz.</p>	<p>4.1. Eragile eta sistema desberdinen arteko lankidetzaren sustapena, arreta osoa eskaintzeko eta haur eta nerabe guztien eskubideen erabateko ezarpena babestu eta sustatzeko konpromiso partekatuan ahaleginak artikulatzeko.</p> <p>4.2. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren ikerketa sustatzea, baita arlo guztietako indarkeria mota desberdinen intzidentziaren eta prebalentziaren eboluzioaren aldizkako datu-bilketa eta jarraipena ere</p> <p>4.3. Ekimen berritzaileak sustatzea eta jarduketa egokiak hedatzea, sortzen diren erronkei erantzuteko edo aurre hartzeko egokiak direnak.</p> <p>4.4. Ikerketa eta haur eta nerabeek parte hartu duten programa eta zerbitzuen emaitzen ebaluazioa sustatzea, hobetzeko arloak identifikatu eta egokitu ahal izateko.</p> <p>4.5. Langileen arrisku psikosozialen zaintza sustatzea, batez ere haur eta nerabeei eta haien familiei arreta eskaintzen dietenena, arretarako, babeserako eta erreparazioarako prozesuak ahalik eta osasun-baldintzarik onenetan aurrera eramanez ahal izateko eta, horrela, zerbitzuen kalitatea hobetu ahal izateko.</p>
---	---	--

Atal honetan, helburu eta jarduteko ildo nagusien aurkezpen orokorra egin dugu, gero, hurrengo lau ataletan, bakoitza arrazoitu eta sakontzeko. Alde horretatik, hurrengo ataletan hainbat **jarraibide** sartu ditugu gida gisa, desio diren helburuak lortzeko planteatzen diren bideak eragile desberdinek egin ahal izateko, printzipio batzuekin eta balio komun batzuekin koherentzian.

Esan dugun moduan, estrategia honen xedea da gizarte osoak, haur eta nerabeek eta eragile publiko eta pribatu guztiek barne, modu aktiboan parte hartzea haur eta nerabeen eskubideen sustapenean, baita adingabeen aurkako edozein indarkeria-motaren prebentzioan, arretan eta erreparazioan ere. Hala eta guztiz ere, haur eta nerabeen eskubideen gauzatze egonkorrerako botere publikoek duten erantzukizun espezifikoaren arabera, estrategia honek arreta jartzen du erakunde publikoek egiten duten lanaren orientazioan, baina arlo honetan lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeei ere erreferentzia bat emateko asmoa du. Ondorengo atalek ere erreferentzia egiten diote modu espezifikoagoan helburuetako bakoitza lortzen lagun dezaketen **eragileei**.

1. ARDATZA: ESKUBIDEEN SUSTAPENA ETA PREBENTZIOA

Helburu estrategikoa

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzea, giza eskubideen urraketa honen prebalentzia murrizteko, Tratu Onen Kultura, ingurune seguruak eta haur eta nerabeen eskubideen gauzatze eraginkorra sustatuz.

Justifikazioa

ZERGATIK DA HAIN GARRANTZITSUA PREBENTZIOA?

Haur eta nerabeen aurkako indarkeriak oso errotuta dago egiturazko arrazoietan eta arrazoi kulturalatan. Hainbat modu hartzen ditu eta horietako asko **oharkabean igaro** daitezke, oso naturalizatuta baitaude. Modu ikusgarri eta muturrekoenetatik hasi, hala nola eraso fisiko edo sexualetatik, eta tratu txar psikologikoetaraino hartzen du, hala nola mehatxuak, xantaia edo bazterkeria, eta bertan sartzen dira ere asmo txarrik gabe egindako kalteak, esaterako, axolagabekeria edo deskuidua. Haur eta nerabeen bizitzako arlo edo testuinguru oso desberdinetan eman daiteke (eskolan, aisialdian eta denbora librean, erakundeetan, familian...) eta hainbat pertsonak gauzatu dezakete, biktimak ezagutu ala ez (senideek, berdinek, medikuek, hezitzaileek, beste heldu ezezagun batzuek...).

Badirudi gizartea bereziki kontzientziatua dagoela indar fisikoa eta zigorra jokabideak zuzentzeko modu gisa desagerrarazten. Alabaina, arrisku-faktore nagusienetako bat da egun oraindik ere hein batean gizartean dirauen pertzepzio hau da: haur eta nerabeen aurkako familia barruko indarkeria **kontu pribatua** dela, eta, beraz, botere publikoek ez dutela esku hartu behar. Gainera, iruditegi kolektiboan oraindik ere nagusitzen den ideia da kasu isolatu batzuk direla edo arlo mugatuetan gertatzen direla.

Funtsezkoa da gogoan izatea haur eta nerabeen aurkako indarkeria-adierazpen horiek guztiek Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean eta HEHn jasotzen diren haur eta nerabeen **giza eskubideak** urratzen dituztela.

Tratu txar guztiak larriak dira definizioz eta berdin arbuiatu behar dira, baina haurren aurkako tratu txarrek **ondorio** oso espezifikoak dituzte; izan ere, biktimen garunaren

garapenari eragiten dio zuzenean. Ondorioak izugarriak dira maila indibidualean, biktimaren osasun fisiko eta emozionalari dagokionez, baina eragina dute baita ere harreman sozialen edo elkarbizitzaren arloan, eta, finean, pertsonen, gizarteen eta herrialdeen garapenean.

Esan bezala, indarkeria honen **prebalentziaren** inguruko datu gutxi dauden arren, kalkulatu da Espainiako haur eta nerabeen % 25ek gutxienez zaintzaileek eragindako indarkeria-motaren bat pairatu duela⁹⁹. Bai kaltetutako pertsonen kopuruak, bai haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren ondorioen larritasunak ohartarazten dute premiazkoa dela gelditzea.

ZER PALANKA IZAN DAITEZKE BEREZIKI ERABILGARRIAK PREBENTZIORAKO? ZERGATIK?

Indarkeria honetan eragina duten faktoreak ugariak dira eta eredu ekologikoaren arabera, maila makrosozialean, komunitatean, familian edo norbanakoan aurki daitezke. Horregatik, prebentzioaren arloan egindako lanak ikuspegi osoa izatea eta koordinatutako maila desberdinetako estrategiak zabaltzea eskatzen du. Erantzunak maila instituzional guztietatik zein kolektibotik eta norbanakotik aktibatu behar dira, eta haur eta nerabeei, familiei, sektore jakin batzuetako profesionaleri eta gizarte osoari zuzendu behar zaizkio jarduketak.

Arazo honekin amaitzeko, aldaketa sozial sakona behar da indarkeria hori elikatzen duten egiturak aldatzeko. Aldaketa lortu ahal izateko, **Tratu Onaren Kultura** sustatu behar da gizartean, giza eskubideetan eta indarkeriarik ezean oinarritutako elkarbizitza-ereduak bermatzeko eta herritarrak sentibilizatzeko, haur eta nerabeen zaintzaren arloan gizarteko erantzunkidetasuna eskatuz.

Haurrekiko tratua helduek haur eta nerabeen beharrei erantzuteko dituzten eskumenen emaitza da, baina baita komunitateak familiei eta eskolei eskaintzen dizkieten beharreen ere, esaterako, zeregin hori babesteko lehentasunezko inguruneak (baina ez eskusiboak). Haur eta nerabeen ongizatea pertsonen ekarpen eta erantzukizun indibidualen batura gainditzen duen prozesuaren emaitza da. Familia, eskola, komunitate-eremua, aisialdi-taldeak, kirol-taldeak, komunikazioak eta abar eragile sozializatzaileak dira eta hezi, prestatu eta balioak erakusten dizkigute. Horiekin hazi eta eraikitzen ditugu harremanak. Balioen eta harreman-eredu osasungarrien dibulgazioa eragile guzti horien erantzukizuna da. Izan ere, beste diskurtso batzuk sustatuz eta zabalduz lor daiteke haur eta nerabeek onarpenerako eta autozaintzarako moduak ihardestea.

Eragile horiek bizitzan zehar sor daitezkeen gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko bestelako aukerak eskain ditzakete, eta, aldi berean, hezkuntza integrala sustatu, haur eta nerabeei balio-sistema, ezagutzak eta trebetasunak (kognitiboak, portaerakoak, emozionalak eta sozialak) eskaintzeko, **bizitzan zehar erabat garatu** eta haien aurreikuspen eta erronkei arrakastaz aurre egiten **laguntzeko tresna gisa**.

99 Iturria: BLASCO DEL MORAL, C. *Más me duele a mí. La violencia que se ejerce en casa*. Madrid: Save The Children, 2018.

Halaber, eragile horiek trebakuntza egokia dute, eta haur eta nerabeen inguruak mota guztietako indarkeriarik gabeko inguruak direla berma dezakete, hau da heziketa-prozesuak eta elkarbizitza positiboak ematen diren **ingurune seguruak** eta babesleak direla, eta jarrera eta portaera errespetuzkoak, arduratsuak eta lankidetzakoak izaten dituztela.

Bizimodu osasungarria lortzeko eta mantentzeko garatu beharreko trebetasun horien artean, honako hauek aipa daitezke: komunikazio-estrategia asertiboak praktikatzea, emozioak egoki erabiltzen ikastea eta gatazkak konpontzeko ezagutza eta trebetasun egokiak erabiltzea. **Osasun sexual-afektiboaren heziketak** indarkeria-egoeren prebentzioan, berdintasunaren sustapenean eta dibertsitatearen errespetuan duen garrantzia ere nabarmendu behar da. Bere garrantzia honako hauetan datza: bere burua maitatzen eta baloratzen laguntzeko duen ahalmenean, bere autoestimua garatuz eta indarkeria matxistan eragiten duten estereotipoak desmuntatuz, atxikimendu osasungarrietan oinarritutako harreman osasuntsuak eraikitzen eta beste pertsona batzuekiko autozainketako eta zaintzako jarrerak garatzen, konfiantzan eta komunikazioan oinarritutako berdintasunezko harremanak sustatuz Haur eta nerabeak errespetuan oinarritzen diren harremanak izateko hobeto prestatuak egon daitezen lortzeko gaitasunak eskuratzea da helburua.

Prebentzioak eragin handiagoa du gertutasunetik, hurbiltasunetik eta jarduketa integraletatik egiten denean. Horregatik, garrantzitsua da **komunitate-arloan** dauden eragileek prebentzioaren inguruan egiten duten lana babestu eta indartzea. Komunitatean bertan eskaintzen diren zerbitzuek, eskolaren bidez, lehen arretako osasun-zentroaren bidez, komunikazioaren prebentzio-planari esker segurtasunaren arloa oinarri hartuta edo aisialdi eta denbora libreko elkarte baten bidez, funtsezko zeregina egiten dute haur batek indarkeria pairatzeko dituen aukerak murrizterako eta, horregatik, beharrezkoa da ildo horretan jardutea.

Haurrenganako tratua ona ez da indarkeriaren prebentziorako estrategia edo osasun fisiko, psikologiko eta emozionalaren sustapena soilik, nahiz eta horretan laguntzen duen. "Tratua ona oinarritzko betebeharra izan behar da, eta modu naturalean barne hartu behar ditu haur eta nerabeen eskubideak eta beharrak; gainera, haur eta nerabeekin eta haien arten elkar eragiteko dinamika positiboa sustatzea ahalbidetu behar du"¹⁰⁰. Azken finean, tratua onaren kulturaren asmoa haurraren ongizatea da, bere eskubideen errespetuan oinarrituz, eta gizartearen testuinguru osoa norabide horretara bideratuta egon behar da horretarako.

Alde horretatik, garrantzitsua da herritarren artean haurren eskubideen ezagutza eta aitortpena sustatzeko lan egitea. Halaber, helduzentrista zalantzan jarri eta haur eta nerabeen erabateko garapenerako egokia den testuinguru soziala sortu behar da, eskubideen ikuspegia kontuan hartu eta haien beharrak egungo dimentsioaren parte kontuan izateko, eta ez "garapenean" dauden pertsonen edo "etorkizuneko helduak" izango direnen eskubide gisa. Haurrak trantsizioko agertokizat hartzeak ikuspegi helduzentrista sortzen du, haurren idiosinkrasia ukatzen du bere horretan eta haien beharrak ez ditu aitortzen eta behar bezala ulertzen.

Begirada horrek berak, haurrak eta nerabeak mendekotasunaren eta autonomiarik ezaren giltzarrietatik ulertzen dituenak, gehiegizko babesa ematen die adingabeei,

100 SAVE THE CHILDREN. *Violencia contra la infancia. Hacia una estrategia integral*. Madrid: Save The Children, 2015.

beren eskubideak bete-betean bizi ahal izateko gai izan ez daitezten. Haur eta nerabeek parte hartzeko eta entzunak izateko duten eskubidea da HEHko lau oinarrietako bat eta horrek ekarpen positiboa egin diezaioke haur eta nerabeen **ahalduntzeari**, autonomia indartzeari eta libre, informatuta eta prestatuta erabakiak hartzeko gaitasunari.

Haurrenganako Tratu Ona sustatzeak esan nahi du lotura afektibo egonkorren eta atxikimendu-harreman positiboen garapena pertsonen garapen-prozesurako oinarritzko ardatz gisa hartzea, batez ere haurrentzako. Horretarako helduen prestakuntza bermatu behar dugu eta **gurasotasun positiboa** sustatu. Gurasotasun-gaitasunak garatzea ez da soilik haur eta nerabeei tratu txarrak emateko aukerak murriztea eta tratu txar horien ondorioak modulatzeko, baita haur eta nerabeek garapen zoriontsuagoa izatea eta ongizate maila altuagoa lortzea ere. Gurasoei harreman osasuntsu eta afektiboak sustatzeko gurasotasun positiborako tresnak eskaintzeak aukera ematen du haur eta nerabeek konfiantzazko ingurunean hazteko, haien buruarengan konfiantza gehiago izateko eta manipulazioaren aurrean hain zaurgarri ez izateko; izan ere, manipulazioa abusu mota guztietan dago.

Era berean, familia-bizitza eta lana uztartzeko neurriak sustatzeak gurasoei heziketarako denbora gehiago izateko aukera emango lieke. Ezin da ahaztu gurasotasun positiboaren eta familien erantzunkidetasunaren artean dagoen lotura; izan ere, zaintza-lanen banaketa parekideagoa eta jasangarriagoa da.

Jarduteko ildoak

Aurretik azaldu dugunaren bidetik, zazpi jarduteko ildo proposatzen ditugu indarkeria hau prebenitu eta ezabatzeko: lehen hirurek haur eta nerabeei zuzendutako lana dute helburu, hurrengo biak haur eta nerabeekin zuzenean lan egiten duten pertsoneri daude zuzenduta (profesionalak edo boluntarioak), eta azkeneko biak familiekin eta gizarte osoarekin egiteko jarduketetara daude bideratuta.

- 1.1. Ezagutzaren sustapena eta haur eta nerabeen eskubideak gauzatzea, batez ere haur eta nerabeen parte hartzeko eskubidea;** izan ere, inguruan rol aktiboa izatearekin lotutako trebetasunak lantzeko eta balioak eskuratzeko aukera ematen du, bai eta guztion aurrerabiderako lankidetzan aritzeko ere, ahalduntzean lagun baitezakete.
- 1.2. Haur eta nerabeek bizitzarako balioak eta gaitasunak bereganatzea**, hala nola bizikidetzarako gaitasunak hartzeko eta jarrerak garatzeko tresnetan, Tratu Onaren Kulturarekin bat egiteko eta indarkeria eta bere ondorioak prebenitzeko.
- 1.3. Haur eta nerabeek heziketa sexual-afektiboa jasotzea**, enpatiatik eta errespetutik harreman afektibo eta sexual parekideak eta haiekiko eta beste pertsonetik inolako indarkeriarik gabeak garatzeko tresnak lortu ahal izateko.
- 1.4. Arlo desberdinetan haur eta nerabeentzat erreferentziazkoak diren profesionalak eta boluntarioak sentsibilizatzea eta gaitzea Tratu Onen**

Kulturari dagokionez, indarkeriazkoak ez diren harremanak, errespetuzkoak, afektiboak, positiboak eta parekideak izateko eta ingurune seguruak bermatzeko (fisikoak eta emozionalak) jokabideak eta balioak indartu ditzaten.

- 1.5. Hurbileko testuinguruetan ekipamenduak eta baliabide sozio-hezitzaileak, kulturalak, aisialdikoak eta kirolekoak indartzea**, ikuspegi komunitariotik eta lankidetzatik lan egiteko.
- 1.6. Gizarte osoa sentsibilizatzea eta Tratu Onaren Kulturaren Inguruan informatzea**, elkarbizitzarako eredu gisa sen ona eta indarkeriarik eza sustatzeko.
- 1.7. Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea**, seme-alabak dituzten familiak eta gizarteak berak Tratu Onaren Kulturarekin bat datozen gaitasunak lortzeko eta jarrerak garatzeko, eta indarkeria eta horren ondorioak prebenitzeko.

Jarraibideak

Atal honetan, hainbat eragilek sustapenaren eta prebentzioaren inguruan egiten duten lana bideratzeko jarduketaren hainbat gako eskainiko ditugu. Jarraibideetako askok jarduketa mota hauetarako printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak finkatzen lagun dezakete (dokumentu honetako “printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak” atalean ageri dira). Beste batzuek erreferentzia egiten diete arreta berezia jarri behar zaien arloei, diagnostikoaren emaitzekin eta horiei EAEn egun ematen zaien erantzunarekin koherentzian.

FUNTSEZKO PRINTZIOEI DAGOKIENEZ...

- Beharrezko jarraipena, intentsitatea eta lurralde-irismena duten sentsibilizazio-ekintzak egitea komeni da (komunikazio kanpainak, etab.), herritar guztiei zuzenduta, haur eta nerabe guztiek bizitza duina eta erabateko garapena izateko eskubidea dutela dioen mezua finkatzeko. Haur eta nerabeek rol aktiboa eta protagonista izan dezakete ekintza hauetan. Adingabeek haien eskubideak erabat gauzatzeko baldintzak sortzeko ardura helduena dela ahaztu gabe, haur eta nerabeak halako ekimenetan sartzeari herritartasun arduratsuak izateko modu bat da. Gainera, haur eta nerabeengana mezuak errazago heltzea erraztu dezake horrek.
- Aurreko ideiak esan nahi du sustatzeko eta prebenitzeko jarduketak haur eta nerabe guztiei zuzendu behar zaizkiela, eta ez soilik arrisku- edo zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboak. Nabarmendu behar da haur eta nerabe guztiek dutela eremu seguru eta babesleetan egoteko eta horietatik mugitzeko eskubidea, estereotiporik, agindurik edo aurreiritzirik gabe, eremu parekide eta bidezkoagoetan.
- Interesgarria izan daiteke bizitzarako gaitasunak lortzeko neurrien artean erresilientzia garatzeko neurriak ere kontuan izatea, diziplina positiborako

estrategien bitartez. Horretarako, egoera zailak bizi dituzten haur eta nerabeei lagun diezaieketen faktoreen inguruan egin behar da lan, egoera horietan espero daitekeena baino egokitzapen pertsonal eta sozial hobea lortzeko.

- Haur eta nerabeen parte hartzeko eskubide eraginkorra bermatzeko, garrantzitsua da parte-hartzearen kultura gizartean sustatzea eta arlo guztietara hedatzea: hezkuntzara, osasunera, segurtasunera, familiara, etab. Halaber, beharrezkoa da hasierako desberdintasunak aitortzea eta izaera inklusiboa duten parte-hartze prozesuak sustatzea, haur eta nerabeei eragiten dieten behar eta egoera desberdinak kontuan izateko eta adingabe guztiek haien ingurunean aktiboki parte hartzeko dituzten oztopoak kentzeko.
- Tratu Onaren Kultura sustatzerako orduan, komeni da 360 ikuspegia izatea^o, hau da, arreta haur eta nerabeengan jartzeaz gain, pertsona helduei ere bideratuta dauden sentsibilizazio-neurriak sustatzea (familiak eta herritarrak, oro har). Tratu Onaren Kultura sustatzeak esan nahi du guztien ongia eta printzipio etikoekiko errespetuan eta giza eskubideen balioetan oinarritzen den bizikidetzaren sustatzen dituzten politikak garatzea, pertsona guztien eskubideetan eta batez ere HEHak adarrikatzen dituen eskubideetan.
- Orain arte egin den lana indartu daiteke instalakuntzak, prozedurak, hizkuntza eta, finean, erantzuna haur eta nerabeen beharretara egokitzeko, zerbitzuak gero eta hurbilagoak, irisgarriagoak eta "lagunkoiagoak" izan daitezen haur eta nerabeei entzuteko.

ZEHARKAKO IKUSPEGIEI DAGOKIENEZ...

- Familiekin batera egiteko prebentziora bideratuta dauden programak eta zerbitzuak diseinatzerakoan, garrantzitsua da haur eta nerabeak hazi eta garatzen diren familia-eredu desberdinak kontuan izatea. Funtsezkoa da diseinuan formula hauek sartzea: familia guztiek parte hartu ahal izateko kontziliazioa errazten dutenak; familien barruan erantzunkidetasuna sustatzen dutenak; arrisku-egoeran edo zaugarritasun handiagoan dauden familien sarbidea errazten dutenak; talde-lana arreta indibidualizatuagoekin uztartzea ahalbidetzen dutenak; komunitatearen ikuspegia eta familien ingurune naturaleko lana integratzen dutenak; eta familien autonomia sustatzen dutenak.
- Komeni da prebentzio-programetan adin eta bizi-egoera aldakorretara egokitzea, jaioaurreko alditik nerabegarora arte. Jaio aurreko aldian, jaiotza inguruko denboraldia eta lehen haurtzaroaren prebentzioa kontuan hartzen dituzten programak indartu behar dira.
- Garrantzitsua da indarkeriaren egiturazko arrazoiengan eragina duten prebentzio-estrategiak garatzea. Genero-desberdintasunek gizarte osoa zeharkatzen dutela eta askotariko diskriminazio eta indarkeria moten atzean daudela kontuan izanik, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea,

baita herritar guztien arteko dibertsitatearen errespetua ere. Genero-rolekin, maitasun erromantikoaren ideiarekin, maskulinitate berrien eraikuntzarekin, sexu-orientazioekin, genero-identitateekin eta abarrekin lotura duten alderdiak herritarrekin lantzen jarraitzea gakoa da.

- Hezkuntza afektibo-sexuala jorratzen duen ikuspegia zabaltzea komeni da, eta haur eta nerabeek adin goiztiarretatik jaso dezaten sustatzea. Beharrezkoa da soilik sexu bidezko transmisioa duten gaixotasunen eta infekzioen edo desio ez diren haurdunaldien prebentzioan arreta jartzen duen ikuspegia gaintzea, eta arreta norberaren zaintzarako eta beste pertsonetikiko zaintzarako jarreraren sustapenera bideratzea, hori baita babesteko faktorea. Besteak beste, honako hauek sustatu behar dira: gorputzaren ezagutza eta norbere buruarekiko errespetua, hori baita gainerakoek zu errespetatzeko abiapuntua; ahalduntzea eta autoestimua indartzea; maskulinitatearen, feminitatearen eta harremanen bestelako ereduak; arauaren barruan sartzen ez diren beste gorputz eta estetikak errespetatzea, etab.
- Prebentzioaren ikuspegitik, garrantzitsua da Harremanaren, Informazioaren eta Komunikazioaren Tresnak (HIKT)¹⁰¹ modu seguru eta arduratsuan erabiltzeko trebakuntza; izan ere, horiek mundu digitalak eskaintzen dituen aukerak aprobeztatzea eta testuinguru horietan eman daitezkeen arrisku edo indarkeria egoera guzti horiek modu babeslean identifikatu eta erantzutea ahalbidetzen diete haur eta nerabeei eta haien erreferentziazko helduei.
- Garrantzitsua da erakundeetatik datozen prebentziorako eta sentsibilizaziorako ekimenak eta, hasiera batean, haur eta nerabeen eguneroko bizitzatik urrunago egon litezkeenak hurbildu eta egokitzea. Esaterako, haur eta nerabeen segurtasunerako zerbitzuak hurbiltzeko elementu garrantzitsua da eskoletan arrisku-adierazleen, arriskuen, jokabide ez onargarrien eta eskubideen aurkakoen berri emateko hitzaldiak eskaintzea, baita horiek jakinarazteko kanalen berri ematea ere. Horrek guztiak pairatzen ari direna kontatzeko beldurra arintzen lagun dezake.

EREDUAREN IRIZPIDEEI DAGOKIENEZ...

- Prebentzioa emaitza gehiago eta hobeak lortu ahal izateko lan-arloa da, ahalik eta eragile eta sistema gehienek parte hartzen badute, ikuspegiak, arloak eta jarduketa-mailak osatu ahal izateko. Prebentzio-ekintzak gizarte-zerbitzuetatik haratago eta eskolatik harago hedatzea komeni da, hedabideak, familiak eta beste gune batzuetatik lan egiten duten profesionalak inplikaturik, sozializazioko lehen mailako testuinguruei arreta berezia eskainiz (kirola, akademiak, eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdia, kultura) eta HIKTak erabiliz (harremanetarako, informaziorako eta komunikaziorako teknologiak). Horrek guztiak esan nahi du erakundearen eta sektorearen artean koordinatzeko formulak garatu behar direla,

101 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

nazioartean adierazgarriak diren egunetan indarrak eta mezuak batu, esaterako apirilaren 25ean, eta eragile publiko eta pribatuen eta gizarte zibilaren elkarlana sustatu.

- Beharrezkoa da komunitatearen esku-hartzea indartzea eta horretarako, lurraldean bertatik lan egiten duten eragile guztiak eta haien arteko aliantzak indartzea. Garrantzitsua da komunitateko eragileek indarkeriaren prebentzioaren arloan duten eragin altua balioestea. Arlo oso desberdinetatik lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeez ari gara, haien artean aipatzekoak dira: kulturartekotasunaren inguruan lan egiten duten elkarteak, emakumeen elkarteak, sexu-aniztasunaren arloan lan egiten duten erakundeak, denbora libreko hezkidetzak taldeak, kirol taldeak, kultur elkarteak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen alde lan egiten duten elkarteak, guraso-elkarteak, etab.
- Bereziki garrantzitsua da hezkuntza-prozesuetan esku hartzen duten eragile guztien arteko elkarlana ahalbidetzen duten ereduak artikulatzea. Hezkuntza formalaren eta ez formalaren arloan arteko sinergiak lortzea, norabide berean lan egiten duten hezkuntza-komunitate artikulatuak sortzeko. Horrek jarduketak antolatu, koordinatu eta optimizatzea ahalbidetuko du, baita haur eta nerabeek jasotzen dituzten mezuei koherentzia handiagoa ematea ere, parte hartzen duten hezkuntza-eremu desberdinetan
- Komeniko litzateke haur eta nerabeekin zuzenean lan egiten duten pertsonak sensibilizatzeko eta langileak trebatzeko ekintzek erabakiak hartzeko postuak dituzten langileak barne hartzeko aukera ere kontuan hartzea. Horrela, politika, arau edo egintza administratiboan diseinuan eskubideen ikuspegia eta haur eta nerabeen ikuspegia txertatzea erraztuko litzateke.

BESTE IKUSPEGI BATZUEI DAGOKIENEZ...

- Kirol hezitzailea egiten duten pertsonen osasuna hobetzen duen jarduera izateaz gain, komunitatearen ongizateari lagun diezaiokeen tresna da eta Tratu Onaren Kulturarekin bat datozen balioak sustatzen dituen espazio pribilegiatua. Garrantzitsua da haur eta nerabeei eskaintzen zaizkien kirol-proposamenak garapenean oinarritzen diren kirol-eredutik egitea eta bermatzea kirol-hezitzailean indarkeria-motarik eta portaera diskriminatzailek ez dagoela. Ikuspegi honetatik, kirol-jarduera bizitza errealeko egoerak eta arazoak babestutako ingurune batean kudeatzeko eremua izan daiteke. Gizarteratzea eta sozializazioa ahalbidetu dezake; partaidetza, elkarlana, talde-lana eta aurkarietako errespetua bezalako balioak edo aurkako egoerak gainditzeko gaitasuna transmititu ditzake, esaterako, galtzea.
- Arreta berezia jarri behar zaio hezkuntza formalaren arlotik egiten den lanari eta haur eta nerabeen prebentzioaren eta ahalduentzaren inguruan duen potentzialari. Lehen hezkuntzak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzak hartzen ditu haur eta

nerabe guztiak, baita haien familiako erreferente nagusiak ere. Horri esker, haur eta nerabeek izaera prebentiboa eta legegilea duten eta denboran jasangarriak diren programetarako sarbiderako aukera handiak dituzte EAEko lurralde osoko haur eta nerabe guztiek.

- Haur eta nerabeak garatu, jolastu, elkar eragina izan eta berdinen artean harremanak izaten ikasten dute kulturaren, kirolaren, aisialdiaren eta denbora librearen arloan. Eremu horiek erreferentziazko helduek, familiek eta haur eta nerabeek parteka ditzakete, beraz, aukera sorta handia eskain dezakete prebentziorako eta tratu onaren sustapenerako.

Eragileak

Esan dugun moduan, eragile publiko eta pribatu guztiak eta gizarte osoa daude planteatu den helburua lortzera deituta. Eskubideen sustapenean eta indarkeriaren prebentzioan esku hartzen dute arlo oso desberdinetan lan egiten duten eragileek (hezkuntzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan, justizian, segurtasunean, kulturaren, denbora librean eta kirolean eta beste batzuetan). Hala ere, eskumenak, funtzioak irismena eta lurraldeko ezarpena dela eta horietako batzuek ardatz honetako ildoekin lotura duten jarduketak sustatzeko potentzial handiagoa dute.

Hurrengo infografiaren helburua esku hartzen duten eragile guztien ikuspegia eskaintzea da, protagonismo handiena izan dezaketen horien zeregina nabarmenduz. Kasu honetan zehazki, eragile gakoak dira: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta hezkuntza formaleko gainerako eragileak; denbora libreko, kulturako eta kiroleko hezkuntza arloko eragileak; Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta lehen arretako zentroak; Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Familia eta Haurren Zuzendaritza eta Emakunde); udaletako gizarte-zerbitzuak; eta beste eragile batzuk, haien artean komunikabideak eta haurren eskubideak sustatzen dituzten erakundeak.



Oharra: Erdiko zirkuluan daude helburu estrategikoa lortzeko jarduketa-ildoak sustatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen sistemak eta eragileak. Eragileen harremanak ez dira zehatzak. Kasu bakoitzean adierazgarrienak direnak jaso nahi izan dira, baina horrek ez du esan nahi jardun dezaketene beste batzuk ere ezin direla egon.

2. ARDATZA: HAUTEMATE GOIZTIARRA ETA KOMUNIKAZIOA

Helburu estrategikoa

Indarkeria-kasuen edo indarkeria-arriskuen hautemate goiztiarra bermatzea haur eta nerabeengan izan dezakeen eragina murrizteko eta arreta berezia jartzea sozializatzeko lehen mailako agertokietan edo hurbileko inguruneetan jarduten duten eragileek egiten duten zereginetan..

Justifikazioa

ZERGATIK DA HAIN GARRANTZITSUA HAUTEMATE GOIZTIARRA?

Ondorioen mailan eragin handiagoa du intentsitatearen eta bizi izan den denborak tratu txarren moduak baino (emozionala, fisikoa, sexuala edo axolagabekeria). Tratu txar jarraituak kronifikazioa sortu ohi du eta nahasmendu somatiko, portaerako eta psikologiko garrantzitsuak sor ditzake, eta kasurik larrienen haur edo nerabearen heriotza ere eragin dezake. Horregatik, oso garrantzitsua da hautemate goiztiarra.

Gaur egun, **kronifikatutako** kasuen proportzio handiarekin ari da lan egiten. Izan ere, sarritan, esku hartzen denean, jada babes gabeko egoeraren historia luze bat dago atzean. Kasu horietan, esku-hartzea askoz ere luzeagoa eta zailagoa da. Arreta berezia eskaini behar zaio hautemate goiztiarrari, esku-hartze goiztiarra egin ahal izateko. Izan ere, esku-hartzea zenbat eta goiztiarragoa izan, orduan eta arrakasta handiagoa lortzen dela egiaztatzen duten ebidentzia argiak daude.

Arlo desberdinetako profesional ugari **hautemateko zailtasunak** dituzte, baita indarkeria-egoerak jakinarazteko ere. Haur eta nerabeen inguruan lan egiten duten profesionalak ez badakite indarkeriaren balizko biktima izan daitekeen norbait hautematen, denboran luzatuko da eta haurrak gertatu dena kontatzen duenean, ez sinesteko edo zeharka adierazitakoa ez ulertzeko aukera gehiago egon daiteke.

Hautemate goiztiarrarekin batera, komunikazioa funtsezkoa da indarkeria-egoerak errepika daitezen saihesteko eta kalteak arintzeko. Alde horretatik, haur eta nerabeen babes integralerako legeak arautzen du herritar guztiek indarkeria-zantzuak berehala jakinarazteko duten betebeharra. Betebehar hori are zorrotzagoa da adingabeekin modu zuzenagoan lan egiten duten pertsonentzat. Haien kasuan, administrazio publikoek betebeharra dute informazioa jakinarazteko eta elkar trukatzeko haiei mekanismo egokiak emateko.

ZER PALANKAIZAN DAITEZKE BEREZIKI ERABILGARRIAK HAUTEMATE GOIZTIARRERAKO ZERGATIK?

Indarkeria ingurune hurbilenekoetako pertsonak erabiltzen dute sarri, lekukorik ez dagoenean indarkeria erabiltzen duten konfiantzazko erreferenteek. Horrek nahasmena eta sinesgogortasuna sortzen ditu, isiltasuna gailentzea errazten du eta gehiegizkoak, zaurgarriak eta indarkeriazkoak diren harremanak izateko moduak naturaliza daitezke. Indarkeria-kasuak ahalik eta azkarren hautemateko, beharrezkoa da haur eta nerabeak trebatzea, emozioak identifikatu, ezagutu eta hitzetan jartzeko tresnak eskainiz eta eskubideak kaltetu edo urratzen dituzten haienganako portaerak desnaturalizatuz.

Haur eta nerabeek haien eskubideen eta jasan ditzaketen indarkeria moten inguruko kontzientzia handiagoa hartzeko aurrerapausoak eman dira, baina oraindik ibilbide handia dago egiteko indarkeriaren adierazpenak identifikatzea lortu arte, onargarriak eta onargarriak ez diren portaerak diskriminatu arte, etab. Berriki UNICEFek egin duen ikerketa batean kontsultatutako haur eta nerabeen % 32k testuinguru segurua erasorik ezarekin lotzen du (erasorik, irainik, mehatxurik edo umilaziorik jasaten ez dute eremuie egiten diete erreferentzia); beste % 34,3k testuinguru segurua askatasunarekin lotzen du, inork baldintzatu gabe nahi dudana egitearekin eta beste % 33,9k eskubideen errespetuarekin.¹⁰²

Alde horretatik, garrantzia berezia du **hezkuntza emozionalaren** inguruan egiten den lanak eta hezkuntza sexual-afektiboak. Haur eta nerabeei hautemate goiztiarrerako beharrezko gaitasunak emateak hiru arlo jorratzea esan nahi du: afektibotasuna, sexualitatea eta babes¹⁰³. Haur eta nerabeei harremanetako intimitate-mailak bereizteko, pribatutasunari eta intimitateari balioa emateko eta haien gorputzaren gaineko kontzientzia adin goiztiarretatik izateko tresnak eskaintzea, arrisku-egoerak hauteman ahal izateko. Horrela, haur eta nerabeak subjektu aktiboak izan daitezke balizko indarkeria-egoerak hauteman eta jakinarazteko.

Halaber, hautematen ikasi ostean, laguntza eskatzen erakutsi behar zaie. Haur eta nerabeek laguntza eska dezaten errazteko, garrantzitsua da komunikazio-kanal formalak dibertsifikatzea eta haur eta nerabeek horiek ezagutzea, baina, batez ere, funtsezkoa da babes afektiboko sare sendoak eraikitzea familiaratik harago, indarkeria-egoeraren bat pairatzen badute harengana jotzeko. Erasotzaileak isolatzen ahaleginduko dira, beraz,

¹⁰² UNICEF. *Infancia y Violencia: Estudio participativo de la situación en España y construcción de propuestas para mejorar la atención a la infancia y adolescencia* UNICEF España, 2021.

¹⁰³ HORNO, Pepa. *Prebentzioak duen garrantzia: hezkuntza afektibo-sexuala haurtzaroko eta nerabezaroko aldi desberdinetan*. Donostia: Arartekoa, 2019.

“lotura afektibo positiboen sarea eraikitzea, bai familia barruan, bai kanpoan, pertsonaren indar emozionalaren bermea da eta erresilientziarako duen gaitasunarena”¹⁰⁴. Ingurune seguruak ezinbestekoak dira hautemate goiztiarrerako, ingurune seguruak erraztu egiten baitu haur eta nerabeek haien emozioak transmititzea, entzunak sentitzea eta balizko arrisku edo indarkeria-egoerak komunikatzeko konfiantza izan dezaketela sentitzea. Aldi berean, helduen arteko entzumen aktiboa sustatzea komeniko litzateke, arriskuak hautemateko gai izan daitezen, haur eta nerabeek abusu edo eraso gisako terminoak ez erabili arren.

Haur eta nerabeekin arlo desberdinetan (hezkuntzan, kulturean, kirolean, aisialdian eta denbora librean...) lan egiten duten profesionalak eta boluntarioak eta gertuko beste eragile batzuetakoak (lehen arretako osasun zentroetakoak, udaltzainak...) izan behar dira indarkeria-kasuak edo arriskuak hautemateko aliatu nagusiak. Sarri, haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalak “beldur” dira arazo horiei aurre egiterako orduan, eta sor daitezkeen zalantzen aurrean, arduraz jokatzeko hautua egin ohi dute eta ebidentzia oso argiak eta sinesgarriak izan arte itxaron ohi dute jakinarazi aurretik. Egoera hori gainditzeko pertsona horiei balizko indarkeria-egoerak bereizteko laguntzak eman behar zaizkie.

Halaber, garrantzitsua da eragile desberdinek hizkera berbera erabiltzea, bakoitzaren gaitasunak eta funtzioak ezagutzea, indarkeria zer den eta zer ez den argi izatea, indarkeria-mota desberdinak ezagutzea, tratu onaren desegokitasunaren zantzuak hautematen jakitea eta gizarte-zerbitzuetara edo beste eragile batzuetara zer kasu bideratu behar diren eta zer ez jakitea. Eragileen artean irizpide partekatuak ez izateak zaildu egiten du hautemate goiztiarra eta bideratzea.

Profesional edo boluntario horiek indarkeriaren balizko egoerak hauteman ostean, funtsezkoa da eman beharreko urratsen jarraibide argiak ematea, hau da, **protokoloak** eta lankidetzaz hitzarmen erabilgarriak izatea. Tresna horiek lagungarriak izan daitezke aukerakotasuna saihesteko, berriro biktima bihurtzen duten jarduketak murrizteko eta alderatutako mekanismoetan oinarritzen diren balorazioak egiteko.

Hain zuzen ere, arlo eta erakunde-maila desberdinetako eragileen arteko koordinazioa, elkarlana eta **sareko lana** ere ezinbestekoa da helburu hori lortzeko. Funtsezkoa da arazo honekiko erantzukidetasun-ikuspegia izatea eta jarduketa koordinatuak eta sistema, eremu eta administrazio-maila desberdinen arteko baterako lana erraztuko duten sareak sortzea bultzatzea. Sareko lanak baliabideen arteko elkarlan eraginkorra dakar, baina baita helburuak eta emaitzak partekatzea, elkarrizketa eta sinergiak sustatzea eta ikuspegi orokorra artikulatzea ere. Horrek guztiak, halaber, eraginkortasun handiagoa eta zuzeneko arreta egiten duen pertsonarentzat estres gutxiago ekar ditzake.

Era berean, gizarte guztiak hauteman eta **jakinarazteko** lan egin behar da eta horregatik bereziki garrantzitsua da haur eta nerabeek pairatzen dituzten **indarkeria-mota guztiak** ezagutarazteko ahalegina egitea, haien zaintzari dagokionez erantzunkidetasun sozialaren zentzua sortzea eta haur eta nerabeen hitzari konfiantza ematea.

104 HORNO GOICOECHEA, Pepa (2019). *Prebentzioak duen garrantzia: hezkuntza afektibo-sexuala haurtzaroko eta nerabearoko aldi ezberdinetan*. [Hitzaldia] Arartekoaren Udako Ikastaroa: Hezkuntza sexu-afektiboa sexu-abusuaren prebentziorako, Donostia. https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/3_4573_3.pdf

Ildo horretan, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Legeak II. tituluan garatzen du indarkeria-egoerak jakinarazteko betebeharra deitzen duena, eta betebehar orokor bat ezartzen du, herritar guztiei eragiten diena, eskumena duen agintaritzari berehala jakinarazteko haur eta nerabeekiko indarkeria-zantzuak daudela, eta komunikazio-eginbehar hori, legeak berak dioenez, “zorrotzagoa da haien kargua, lanbidea, lanpostua edo jarduera direla eta laguntza eskaintzeko, zaintzeko, irakasteko edo adingabeak babesteko betebeharra duten pertsonentzat”. Agindu hau betetzeko, ezinbestekoa da indarkeria-egoera posibleak jakinarazteko kanalak indartzea eta herritar guztien artean zabaltzea.

Jarduteko ildoak

Aurretik adierazitakoarekin bat eginez, **jarduteko sei ildo** planteatzen dira indarkeria honen eraginak ahalik eta gehien murrizteko: lehengo biek lotura dute haur eta nerabeen lanarekin; hurrengo bien helburua profesionalekin eta boluntarioekin lan egitea da eta azken bietan gizarte osoari zuzendutako jarduketak daude.

- 2.1. Haur eta nerabeak emozioak identifikatu eta ezagutzeko gaitzea**, kaltegarriak izan daitezkeen edo eskubideak urra ditzaketen haiekiko edo beste haur eta nerabeekiko jarrerak hauteman eta desnaturalizatzeko, eta hala isiltasuna apurtu ahal izateko tresnak izan ditzaten.
- 2.2. Komunikatzeko eta entzuteko bideak eta kanalak indartu eta dibertsifikatzea**, haur eta nerabeentzat irigarriak, hurbilekoak, konfidentzialak, fidagarriak eta seguruak izan daitezen.
- 2.3. Sentsibilizazioa, gaitasun jarraitua eta arlo desberdinetan (eskolan, kirolean, aisialdian eta denbora librean...) haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalak eta boluntarioek** eta hurbileko beste eragile batzuek (lehen arretako osasun-zentroek, udaltzainek...) **oinarrizko ezagutza egokiak eta beharrezko babesak dituztela bermatzea**, indarkeria motaren bat sufritzen ari diren edo sufritzeko arriskua duten haur eta nerabeak identifikatu ahal izateko.
- 2.4. Arlo eta administrazio maila desberdinetako profesionalen arteko sareko lana sustatzea**, lankidetzarako hitzarmenak sustatuz, protokoloak berrikusiz eta eguneratuz, koordinaziorako eremu egonkorak edo barneko eta diziplina anitzeko jarduketa koordinatu hobeago bat indartzeko beste edozein tresna eratzea, edo indarkeriaren balizko egoerak hauteman diren egoerak bideratu eta jarraipena egiteko baliabideak indartzea.
- 2.5. Herritar guztiei bideratutako sentsibilizazioa eta informazioa**, indarkeria mota desberdinak aitortzeko, haur eta nerabeen hitza zalantzan ez jartzeko eta indarkeria-kasuak erakundeei aktiboki jakinarazteko, betiere, haur eta nerabea baloratu, artatu eta babestu ahal izateko.
- 2.6. Salaketa-kateen eta arreta-baliabideen inguruko zabalpena** egitea herritarren, profesionalen eta boluntarioen artean.

Jarraibideak

Atal honetan eragile desberdinek hautemate goiztiarraren eta komunikazioaren inguruan egiten duten lana bideratzeko jarduketaren hainbat gako eskainiko ditugu. Jarraibideetako askok jarduketa mota hauetarako printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak finkatzen lagun dezakete (dokumentu honetako “printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak” atalean ageri dira). Beste batzuek erreferentzia egiten diete arreta berezia jarri behar zaien arloei, diagnostikoaren emaitzekin eta horiei EAEn egun ematen zaien erantzunarekin koherentzian.

FUNTSEZKO PRINTZIOEI DAGOKIENEZ...

- Garrantzitsua da herritarren artean, baita haur eta nerabeen artean ere, ezagutaraztea haur eta nerabeen aurkako indarkeria-mota guztiak, eta agerikoenak ez ezik baita oraindik naturalizatuak daudenak ere. Edozein haur eta nerabeen aurkako indarkeria oro onartezina dela zabaldu behar da, haur eta nerabe guztientzako gizarte seguruago eta babesle baterako aurrerapausoak emateko.
- Haur eta nerabeak subjektu aktiboak izan daitezke arrisku edo indarkeria egoeren hautemate goiztiarrean, eta horretarako tresnak eman behar zaizkie adin goiztiarretatik. Agian ez dute jakingo gertatzen ari zaienari abusu edo eraso deitzen, baina gai izango dira mina, beldurra edo nazka hautemateko eta adierazteko. Emozio horiek dira hauteman daitezkeenak eta laguntza eskatzeko eta babesteko erabil daitezkeenak. Komeniko litzateke heziketa emozionalaren inguruko lanak ikastetxeetako hezkuntzako curriculumean garrantzia handiagoa izan dezan formulak aztertzea, baita hezkuntza ez formaletan aritzen diren erakundeen programetan ere.
- Garrantzitsua da kasuak konfidentzialki jakinarazteko edo komunikatzeko kanalak izatea guztien eskura eta zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik gabeko sarbidea bermatzea, adinagatik, sexuagatik, jatorriagatik, genero-identitateagatik, hizkuntzagatik, arrazagatik, desgaitasunagatik, bizilekuagatik... Alde horretatik, desgaitasun sensoriala, fisikoa edo adimenekoa duten adingabeen irisgarritasuna, eskubide linguistikoak eta gure gizartearen errealitate eleaniztuna bermatu behar dira.

ZEHARKAKO IKUSPEGIEI DAGOKIENEZ...

- Garrantzitsua da haur eta nerabeekin indarkeriaren inguruan dituzten sinesmenak eta pertzepzioak lantzea eta sakontzea. Funtsezkoa da haur eta nerabeek ikastea maitasunaren, boterearen eta indarkeriaren artean dagoen lotura eta horretaz ohartzea, haien harremanetan suntsitzaileak eta indarkeriazkoak izan daitezkeen eredu afektiboak hauteman ahal izateko. Alde horretatik, komeni da nerabezaroan indarkeria matxistan arreta jartzea. Izan ere, datuek ohartarazten dute neska eta

mutilen arteko harremanek parekideak ez diren eskemak jarraitzen dituztela eta sexismoak haien bizitzan garapena baldintzatzen duela oraindik ere, eta ez direla horretaz ohartzen.

- Emakumeen, neska nerabeen eta haurren aurkako indarkeria-mota horien hautemate goiztiarrerako, funtsezkoa da haur eta nerabeen ongizatean eragina duen lanen bat egiten duten profesional eta boluntarioentzat generoaren inguruko prestakuntza egokia eskaintzea, lan egiten duten arloa edozein dela ere (fiskalak, epaitegietako talde psikosozialetako langileak, polizia, familien topaguneetako langileak, gizarte-zerbitzuetako langileak, irakasleak, denbora libreko monitoreak...).

EREDUAREN IRIZPIDEEI DAGOKIENEZ...

- Komunitatearen ikuspegitik lan egitearen aldeko apustua egitea lagungarria izan daiteke prebenitzeko ez ezik, hautemate goiztiarren arloan aurrerapausoak emateko ere. Komunitateko lanaren alde egiteak komunitateekin lan zuzenagoa egitea esan nahi du ; herritarren taldeekin, familiekin eta harremanak, topaketa eta elkarbizitza ematen diren ingurune naturalekin esku hartze sozio-hezitzailea izatea. Komunitatea eragile aktibo eta protagonistatzat duen lan-ikuspegia da, eragiten dieten egoerak eta arazoak hobetu eta eraldatu ahal izateko. Eragileen arteko erantzunkidetasuna, parte-hartzea, eta funtsean, hautemate goiztiarra eta balizko indarkeria-egoeren jakinarazpenak errazten dituzten laguntza formal eta informalen artikulazioa sustatzeko gaitasun handia duen tresnatzat har daiteke.
- Garrantzitsua da HEHn jasotzen diren eskubideen defentsan eta sustapenean komunikabideek rol aktiboagoa izatea, eta hori agerian geratzea haur eta nerabeekin zerikusia duen informazioan bigarren biktimizaziorik ez eginez, baita kasuak indibidualizatzea ahalbidetzen ez duten edukiak zabalduz, eta diskriminaziorik edo indarkeriarik gabeko gizarte libre baten printzipioekin eta balioekin koherenteak diren indarkeria-egoerak komunikatzeko kanalei buruzko informazioa eskainiz.
- Interesgarria izan liteke indarkeriarekin lotuta dauden arrisku-faktoreen ezagutza zabaltzeko ikerketak egitea, horrek kasuak lehenago hauteman ahal izateko kontuan izan behar diren indarkeriaren “aurretiazko adierazleak” hautematea ahalbidetuko lukeelako. Komenigarria izango litzateke profesionalen eta boluntarioen eskura jartzea adierazle-multzoak eta susmoak izanez gero jarduteko dekalogoak.
- Haur eta nerabeekin komunitatearen arloan lan egiten duten erakunde batzuk boluntarioz osatuta daudenez, profil hori ez da ahaztu behar haur eta nerabeen bizitzako arlo desberdinetan haiekin lan egiten duten pertsonen sentsibilizaziorako eta trebakuntzarako jarduketara diseinatzerakoan. Halaber, ezin da ahaztu erakunde

publikoen ardurapeko zerbitzu eta programa askoren hornidura erakunde pribatuei dagokiela, eta erakunde horietako langileak ere jarduera horien onuraduntzat hartu beharko liratekeela.

- Profesionalak eta boluntarioak trebatzeko ekintzak diseinatzerakoan, modalitate desberdinak hartu behar dira kontuan. Esaterako, kasu batzuetan, trebakuntza unibertsitate-titulu batzuk indartuz lor daiteke (gizarte-hezkuntza, haur edo lehen hezkuntza, gizarte-langintza...) eta, beste batzuetan, monitoreei eta aktibo dauden beste profesional batzuei prestakuntza-pilulak eskainiz, eta etorkizuneko profesionalak edo boluntarioak trebatzen dituzten pertsonen espezializazioa ahalbidetuz. Nolanahi ere, gutxieneko prestakuntza izateko formulak bilatu behar dira, haur eta nerabeekin lan egiten duen edozein pertsonak indarkeria mota guztiak edo tratu txarrezko portaerak hautemateko gutxieneko gakoak edo irizpideak izan ditzan bermatzeko, eta kasuak beste profesional batzuei bideratu ahal izateko.
- Hautemate goiztiarra hobetzeko, komeni da koordinazio-lan egonkorragoaren aldeko apustua egitea, inguruneke eragileen arteko sareko lana erraztuz eta kasu zehatzen arazoak konpontzeko konexio puntaletatik harago joanez. Udalerrri mailan esperientzia positiboak daude, haurren mahaiak deiturikoak, eta informazio-trukea eta eragileen arteko laguntza sustatzen dute, arrisku arineko egoerak hautemateko, jakinarazteko, etab. Eremu horiek ikuspegi partekatua eta hizkera komuna dute, eta esku hartzeko zerbitzu sozio-hezitzaileen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako zerbitzu psikosozialen lana indartzen dute, garapen komunitarioaren aldetik funtzio prebentiboa sustatuz.
- Dagoeneko protokoloak baldin badaude, berrikustea eta ebaluatzea komeniko litzateke, ezarpena testuinguruaren errealitatera egokituta dagoela eta erakunde bakoitzean esku hartzen duten pertsona guztiengana zabaldu dela egiaztatzeko. Garrantzitsua da profesionalak protokoloak ezagutzea eta, halaber, nola jokatu ez ezik, konfiantza sortu eta hautematen dituzten kasuak kudeatzen lagunduko dieten dokumentuak izatea. Halaber, komenigarria izango litzateke protokoloen jarraibideak LOVIPIK ezartzen dituen neurriekin armonizatzea, horien artean aipatu behar da indarkeria-egoeren zantzuak edo ezagutza “komunikatzeko betebeharrak kualifikatua” Era berean, haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalen aholkularitza eskaintzeko ekimenen aktibazioa baloratu behar da, zalantzak argitzeko nahikoa babes dutela bermatzeko.
- Halaber, interesgarria da haur eta nerabeekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeetan behar bezala jakinarazteko eta bideratzeko jarduketako protokoloak sustatzea, oraindik ez baitaude zabaldua.
- Hautemate goiztiarrerako protokoloek behar bezala funtzionatzeko, funtsezkoa da arlo bakoitzean haiengana jotzeko erreferentziazko pertsonak edo taldeak hautematea. Alde horretatik. Babes integralerako 8/2021 legeak hainbat figura ezartzen ditu, hala nola kirol-arloko babeserako ordezkaria edo eskola-arloko ongizaterako eta babeserako koordinatzailea.

Eragileak

Esan dugun moduan, eragile publiko eta pribatu guztiak eta gizarte osoa daude planteatu den helburua lortzera deituta. Hautemate goiztiarren eta indarkeriaren komunikazioan esku hartzen dute arlo oso desberdinetan lan egiten duten eragileak (hezkuntzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan, justizian, segurtasunean, kulturean, denbora librean eta kirolean eta beste batzuetan). Hala ere, eskumenak, funtzioak, irismena eta lurraldeko ezarpena dela eta horietako batzuek ardatz honetako ildoekin lotura duten jarduketak sustatzeko potentzial handiagoa dute.

Hurrengo infografiaren helburua esku hartzen duten eragile guztien ikuspegia eskaintzea da, protagonismo handiena izan dezaketen horien zeregina nabarmenduz. Zehazki, kasu honetan, funtsezko eragileak dira hauek: hezkuntza formalaren arloan, ikastetxeak, Laguntzarako zerbitzuak, Hezkuntzako Ikuskaritza eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila; hezkuntza ez formalaren arloan, aisialdiko taldeak, kultur eta kirol elkarteak; osasun arloan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta lehen arretako osasun zentroak eta buruko osasunekoak; gizarte-zerbitzuetan, udalerrietako oinarrizko gizarte-zerbitzuak; eta segurtasunaren arloan, bai Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila, bai Udaltzaingoa eta Ertzaintza.



Oharra: erdiko zirkuluan daude helburu estrategikoa lortzeko jarduketa-ildoak sustatzeko gakoak izan daitezkeen sistemak eta eragileak. Eragileen harremanak ez dira zehatzak. Kasu bakoitzean esanguratsuenak direnak jaso nahi izan dira, baina horrek ez du esan nahi jardun dezaketen beste batzuk ere ezin direla egon.

3. ARDATZA: ARRETA ETA ERREPARAZIOA

Helburu estrategikoa

Indarkeria mota desberdinetan sartuta dauden haur eta nerabe guztien (biktima, testigu edo erasotzaile moduan) eta haien familien arreta-, babes- eta erreparazio-beharrei erantzuteko arreta osoa bermatzea, espezializazioa eta pertsonalizazioa indartuz eta berriro biktimizatzea eragotziz.

Justifikazioa

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA ARRETA EGOKIA ETA ERREPARATZAILEA?

Araudiaren garapen berria aurrerapauso handia izan da indarkeria honen **biktimen eskubideak** aitortzeko eta indarkeriatzat zer hartu behar den argitzeko. Esan dugun moduan, Estrategia honen helburua, araudi horrekin bat eginez, lehentasuna duten printzipioak ezartzea da, baita praktikara eramateko eta eragileen arreta edo esku-hartzea bideratzeko jarraibideak eskaintzeko irizpideak ezartzea ere. Era berean, eskubide horiek bermatu behar dituzten eragile guztiek erabili beharreko hizkera errazteko kontzeptu-esparrua eskaintzen du.

Zehatzago esanda, “ekainaren 4ko 8/2021 Legea, haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean babestekoak” ezartzen du “babes, laguntza-, harrera- eta osatze-neurriak dituen arreta osorako” eskubidea. Testuak arreta osoa eskaintzeko beharrezko neurri batzuk jasotzen ditu, besteak beste, informazioa eta laguntza psikosoziala, soziala eta hezitzailea; salaketen jarraipena eta prozesu judizialtarako aholkularitza; sare eta zerbitzu publikoetarako sarbidea; berdintasunaren eta dibertsitatearen inguruko prestakuntza, etab. Gainera, koordinaziorako eta ingurune egokituak eta lagunkoiak eskaintzeko neurriak hartu behar direla dio, eta guztientzako arreta goiztiar osoa bermatu.

Gainera, biktima sistema judizialarekin harremanetan jartzen denean, Biktimaren Estatutuak ezartzen du “babeserako, informaziorako, laguntzarako eta arretarako eskubidea duela, baita parte hartze aktiborako (...) eta errespetuzko tratua, profesionala, indibidualizatua ez diskriminatzailea jasotzeko ere...”.

ZER PALANKA IZAN DAITEZKE ERABILGARRIAK ARRETA EGOKIA ETA OSATZAILEA BERMATZEKO? ZERGATIK?

Indarkeria pairatu duten pertsonen erresilientziarako gaitasuna areagotzeko, funtsezkoa da biktima prozesu osoaren erdigunean kokatzen duen arreta jasotzea, lurraldearen edozein tokitatik irisgarria dena, bere dibertsitatea eta bere testuinguruaren egoeraren askotariko dimentsioak ulertzen dituen, ikuspegi globala duena, arrisku-faktoreak eta faktore babesleak kontuan hartzen dituen, espezializatua dagoena, sareko lana egiten duena, berriro biktima bihurtzen ez duena, eta zeharka osatzeko printzipioak sartzen dituen izatea.

Haur eta nerabeen kasuan, arreta osoa eta osatzailea eskaintzeak ere esan nahi du uneoro haien interes gorena kontuan izatea eta aktiboki entzutea, iritzia eman dezaten haien adinerako eta heldutasunerako egokituta dauden baliabideak erabiltzea, haien ingurunea eta sare afektibo naturalak indartzea, eremu irisgarriak eskaintzea, lagunkoiak, egokituak eta seguruak, haien ongizateren mesederako, eta epe luzeko ondorioak eta helduarokoak prebenitu ahal izateko edo balizko askotariko biktimizazioa eta/edo indarkeriaren zikloa prebenitu ahal izateko.

Parte-hartzea haur eta nerabeen eskubideen lau oinarrietako bat bezala jasota dago HEHean. Hala ere, haur eta nerabeei ez zaie behar beste entzuten. Ildo horretan aurrerapenak egin badira ere, oro har, adingabeen lekukotzei ez zaie behar adina balio ematen, sarritan, irizpidean eta iritzian mendekoak izatearen ustea baitago. Haien bizitzetan eragina duten prozedura guztietan norbanako, talde edo kolektibo gisa parte hartzea, haien adin eta heldutasunera egokitutako bitartekoekin, erronka bat da oraindik ere esku hartzen duten eragile guztientzat.

Haur eta nerabeek haien bizitzaren inguruan duten protagonismoak eta zuzenean eragiten dieten familiako eta komunitateko prozesuen gaineko protagonismoak ahalbidetzen die haien burua babesteko, autonomiarako eta bizitzan zehar kalteak osatzeko beharrezko erresilientziarako tresnak lortzea.¹⁰⁵

Haur eta nerabeak ardatz dituen esku-hartze eredu batean, beharrezkoa da esku-hartze guztietan ibilbideen pertsonalizazio-maila egokia dagoela eta baliabide batzuk behar berezietara hobeto egokitzen direla bermatzea. Osatze-prozesua luzea da eta askotariko beharrak ditu. Hala ere, baliabideek zurrinak izateko joera dute, eta horrek ez du koherentziarik biktimak ardatz dituen ikuspuntuarekin.

Gaur egungo erantzunen arazo nagusietako bat, oro har, adingabeen erritmoetara ez egokitzea da. Kontuan izan behar da haur eta nerabeentzat hilabete batzuk denboratarte luzea direla, baina prozesu judizial edo administratibo baterako, berriz, oso motza izan daitekeela.

Bestalde, biktimaren eskura dauden baliabide eta zerbitzuetako batzuk ez dira haur eta nerabeentzako baliabide espezifikoak (esaterako, Biktimari Arreta eskaintzeko Zerbitzua, polizia-etxeak, udalerrietako gizarte-larrialdietako zerbitzuak, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-egoitzak, arreta psikologikorako

¹⁰⁵ HORNO, Pepa. *Latinoamerikako eta Karibeko Haurren Herrixketan ingurune seguruak eta babesleak sustatzea*. Aldeas Infantiles, 2018.

zerbitzuak, epaitegiak...). Baliabide horiek gehienetan ez dituzte instalazio egokiak izaten eta bertako profesionalak ez dute prestakuntza nahikorik izaten esku-hartzea haur eta nerabeen desio eta beharretara egokitu ahal izateko.

Adingabe bakoitzaren beharretan arreta jartzeko, haur eta nerabeen dibertsitatea ezagutu, aitortu eta errespetatu behar da. Garrantzitsua da kontuan izatea generoa, arraza, sexu-orientazioa edo identitatea, maila ekonomikoa... Haur eta nerabeek elementu horien gainean eraikitzen dute haien identitatea eta arrazoi horiengatik askotariko diskriminazioak pairatzeko arriskua izan dezakete gizartean. Horregatik, beharrezkoa da **genero-ikuspegia** bermatzea, baita ikuspegi **interseksionala** ere, askotariko diskriminazioa kontuan izateko, eta gizarteko dibertsitate sexual-afektiboa eta kulturantzatasuna kontuan izan eta errespetatzeko

HEHK eta nazioarteko beste gomendio batzuek **familiako inguruneari** ematen diote lehentasuna haur eta nerabeen garapen egokirako, betiere horiek segurtasuna eta babesa eskaintzen duten pertsona helduek osatzen badituzte. Alabaina, sistemak hainbat zailtasun ditu alde horretatik desiragarriak izango liratekeen mailak lortzeko.

Azken urteotan esku hartze sozio-hezitzaileko eta psikosozialeko hainbat zerbitzuek esku-hartze goiztiarrean egin duten ahalegina eta apustua nabarmendu behar da. Esku-hartze hori sustatzen jarraitu behar da, babesgabetasun-egoera arinei edo neurritsuei erantzuna emateaz gain, esku-hartze hori bigarren mailako prebentziotzat jo daitekeelako, nolabaiteko zaurgarritasuna duten kasuak larriagotzea eragozten baitu eta familiaren babesa bermatzen baitu.

Erreparaziorako printzipioa zeharka txertatzea garrantzitsua da, lehenik eta behin, haur eta nerabeekiko indarkeria eskubideen urraketa gisa aitortzen duelako, eta, ondorioz, nazioarteko esparruek ezartzen dituzten terminoetan erreparatu behar delako. Printzipio horren arabera, biktimak subjektu aktibotzat hartzen dira osatze-prozesuan eta haien beharrak eta eskubideak prozesuaren erdigunean kokatzen dira.

Esan bezala, erakundeek ekintza edo omisiogatik haur eta nerabeen eskubideak urratzen badituzte, indarkeria mota horrek **bigarren biktimizazioa** sortzen du. Hau da, pertsona hori bi aldiz izango da biktima. Lehenengo, pairatu duen delituarengatik, eta, bigarrenik, erakundeen partetik erantzun egokirik jaso ez duelako. Ez ulertzea, bere hitzari sinesgarritasunik ez ematea, hitzorduetan eta prozeduretan atzerapenak izatea, esperientzia behin eta berriz eta pertsona desberdinen aurrean berriro bizi behar izatea, neurriak atzeratzea, zeharkako diskriminazioa edo eskubideen urraketa erakundeen indarkeria mota-desberdinak dira, eta bigarren biktimizazioa sortu eta biktimen osatze-prozesuen arrakasta arriskuan jartzen dute.

Bestalde, gurea bezalako eskumen-banaketako ereduari, bereziki garrantzitsua da gutxieneko arreta-estandar batzuek adosten eta onartzen direla ziurtatzea, bermatzeko indarkeria pairatzen duen EAEko edozein haurrek edo nerabek, edozein lurraldetakoa edo udalerritakoa izanda, beharren baliokidea den arreta jasoko duela, sarbide-irizpide eta -betekizun berberen arabera.

Esparru edo sektore desberdinetan (polizia, justizia, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak) ezartzen diren gutxieneko baliabide eta zerbitzuak **eskuratze ko berdintasuna** sustatzeaz gain, estandarrez hitz egiteak berekin dakar, halaber, haurtzaroan eta

nerabezaroan indarkeria jasaten duten pertsona guztiei kalitatezko zerbitzuak emateko jarraibideak bermatzea.

Azkenik, diagnostikoak erakusten du erantzun behar diren beharrak gero eta askotarikoagoak direla eta artatzen diren egoerak konplexuagoak. Garrantzitsua da indarkeria pairatzen duten haur eta nerabeak artatzen dituzten profesionalen trebakuntza errealitate horretara egokitzea, **etengabeko prestakuntza** eta haur eta nerabeen eskubide eta behar espezifikoekin lotura duten espezializazio-maila egokia sustatuz.

Jarduteko ildoak

Aurretik azaldutakoarekin bat eginez, **zortzi jarduketa-ildo** planteatzen ditugu indarkeria hau pairatu duten edo pairatzen ari diren pertsonak artatzeko:

- 3.1. Parte-hartzea eta haur eta nerabe guztien entzumen aktiboa sustatzea haien bizitzako erabakiak hartzeko prozedura guztietan**, haien adin eta heldutasunaren arabera, haien bizitzari eta osatzeari eragiten dieten prozesuetan haien iritzia kontuan hartua izan dadin, indarrean dagoen legediari dagokionez.
- 3.2. Haur eta nerabeetan oinarritzen den arreta-eredua sustatzea**, kasu bakoitzaren beharretara egokitzeko nahikoa pertsonalizatua eta osoa dena.
- 3.3. Instituzio edo erakundeen partetik Haur eta nerabeen bigarren biktimizazioa eragin dezaketen jarduketan prebentzioa egitea**, eskubide urraketak ikusaraziz eta horien inguruan sentsibilizatuz.
- 3.4. Haur eta nerabeei familia-ingurune egonkorrak eta seguruak bermatuko dizkieten neurriak indartzea**, zaurgarritasun-egoeran daudenei arreta berezia jarritz, familientzako laguntza eta babes osoaren bitartez.
- 3.5. Maila guztietan jasandako kaltea eta indarkeriaren ondorioak artatzeko bitarteko gisa erreparazioa sartzea**, lehengoratzeko, indemnitzatzeko, birgaitzeko, gogobetetzeko eta berriz gerta ez dadin bermatzeko neurriak garatuz, eta erabat osatzeko jarduketak, programak eta zerbitzuak indartzean arreta berezia jarritz.
- 3.6. Genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea**, baita dibertsitatearen ikuspegia ere, **begirada interseksionaletik** arreta handia eskaini ahal izateko faktore soziokulturalei. Izan ere, horiek baldintzatzen dituzte indarkeria-kasuak, haien ondorioak eta osatzeko aukerak.
- 3.7. Oreka handiagoa eta lurraldearen homogeneotasuna bermatuko duten estandarrak ezartzea**, EAEko herritar guztiek baliabideetara, zerbitzuetara eta gutxieneko kalitatezko arretara sarbide bera izan dezaten.
- 3.8. Esku hartzean profesionalak diren pertsonen prestakuntza jarraitua**, espezializazio maila **egokia** bermatzeko, arlo guztietan, **haur eta nerabeen behar espezifikoekin dagokienez.**

Jarraibideak

Atal honetan eragile desberdinek arretaren eta erreparazioaren inguruan egiten duten lana bideratzeko jarduketaren hainbat gako eskainiko ditugu. Jarraibideetako askok jarduketa mota hauetarako printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak finkatzen lagun dezakete (dokumentu honetako "printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak" atalean ageri dira). Beste batzuek erreferentzia egiten diete arreta berezia jarri behar zaien arloei, diagnostikoaren emaitzekin eta horiei EAEn egun ematen zaien erantzunarekin koherentzian.

FUNTSEZKO PRINTZIOEI DAGOKIENEZ...

- Haur eta nerabeei entzuteko profesionalak trebakuntza espezifikoa behar dute. Horregatik, entzunak izateko eskubidea bermatzeko profesionalak trebatu behar dira. Halaber, funtsezkoa da entzuteko ekintza haien denboretara egokitzea eta kontuan izatea haur eta nerabeei entzuteko denborak oso desberdinak direla normalean helduei entzuteko aurreikusten ditugunekin alderatuta. Aldi berean, gure gizartean oro har helduen hitzak adingabeenak baino balio handiagoa duenez, garrantzitsua da profesionalak sentsibilizatzea haur eta nerabeen lekukotzari ematen zaion sinesgarritasuna eta garrantzia handitzeko.
- Garrantzitsua da herritar guztiekin lan egiten duten eragileek haien arreta haur eta nerabeen behar espezifikoetara egokitzeko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea; izan ere, haiei entzuteko ekintza eta ematen zaien laguntza ez da helduenaren modukoa. Haur eta nerabeen beharrak eta eskubideak ezagutzen ez badituzte, profesional horiek arreta desegokia eman diezaiekete eta diskriminazioa sor daiteke. Halaber, ezinbestekoa da haur eta nerabeentzat espezifikoak ez diren baliabide guztietan (esaterako, epaitegietan, polizia-etxeetan, etab.) haien beharretara egokitutako espazio lagunkoiak egokitzeko aurrerapausoak ematea, berriro bikitimizatzeko probabilitateak murrizteko.
- Haur eta nerabeen bizitzari eragiten dieten erabakiei dagokienez, arretaren edo esku hartzearen une edo prozesu desberdinetan haur eta nerabeen iritzia jasotzea errazten duten tresnak garatu beharko lirateke. Gainera, tresna horiek behar bezala egokituta egon behar dute adin desberdinei ezarri ahal izateko, eta bilakaeraren etapa bakoitzean haur eta nerabeek dituzten beharrak kontuan hartzea ahalbidetu behar dute.
- Funtsezkoa da paradigma-aldaketa izatea, babesgabetasunetik lan egiteari utzi eta babesetik lan egiten hasteko. Horrek hautemate goiztiarrean inbertsioa areagotzea dakar, baliabide gehiago eskainiz eta zaurgarritasun-egoeran dauden familiei eta oraindik babesgabetasun-egoeran ez daudenei laguntza sozio-hezitzaile handiagoa eskaintzeko programak sustatuz. Ideia horrek lotura estua du komunitateko lana sustatzearekin eta printzipio horretatik familien eta haur eta nerabeen hurbileko inguruetan lan egiten duten eragileen aliantzekin.

- Eskuragarri dauden datuek aditzera ematen dute, baliabideen modalitatea handitu, malgutu eta dibertsifikatzeko neurriak sustatzen jarraitu behar dela, baita familiaren babesa bermatzeko eta harrera-familiak eta adopzioak areagotzeko formulak ere.
- Gizartearen eta familiaren arrisku-faktoreak erabakigarriak ez diren arren, garrantzitsua da arreta eskaintzea eskubideen sarbide faltarekin, diskriminazioarekin eta indarkeria pairatzeko arrisku handiagoarekin zerikusia dutenean. Alde horretatik, arreta berezia eskaini behar zaie familien pobrezia eta prekariedade sozioekonomikoaren egoerei.
- Ez da ahaztu behar haur eta nerabeek adingabeen aurkako indarkeria erabiltzen dutela, eta kasu horietan, HEHean jasotzen diren paradigmen eta eskubideen arabera esku hartu behar da. Erasotzaile adingabearekin hartzen diren neurriak bere adin eta heldutasunera egokituta daudela bermatu behar da, baita biktimaren eskubideak berrosatzera, berreziketara eta kontzientzia hartzera bideratuta daudela ere, eta ez soilik zigorra ezartzera.

ZEHARKAKO IKUSPEGIEI DAGOKIENEZ...

- Erreparaziorako printzipioaren baitan jarduteko parte-hartzea eta entzutea dira gakoak; berehalako kalteei eta bizitzan zehar sor daitezkeen berehalakoak ez diren kalteei erreparatzen zaie, eskubideak berrezartzen dira, eta egia, aitortza, erreparazioa eta berriro ez errepikatzeko bermeak ematen zaizkio norbanakoari, familiari, komunitateari eta gizarteari.
- Kasubakoitzerako diseinatu eta ezartzen diren erreparaziorako jarduketek kontuan hartu behar dute haur eta nerabeen familiekin eta ingurune hurbilenekoarekin egindako lana (gurasoak, aiton-amonak, anai-arrebak...). Garrantzitsua da ikuspegi hori ez ahaztea, baita funtzio babeslea betetzen duten familiekin ere. Alde batetik, kontuan izan behar da epe motz, ertain eta luzera izan ditzaketen ondorio larriez gain, indarkeriak eragin negatiboa duela egoera horiek pairatzen dituzten adingabeen inguruan eta haien gaitasunak indartzeko laguntza eta babesa behar duela. Bestalde, familien zeregina ezinbestekoa da indarkeria jasan duten haur eta nerabeen osatze fisiko eta emozionalerako.
- Erreparazio-prozesuetarako funtsezkoa da erabateko osatzea ahalbidetzen duten zerbitzuak eta aukerak eskaintzea. Alde horretatik, LOPIVIk irizpide orokorretan ezartzen du indarkeria pairatu duten haur eta nerabeen osatze fisikoa, psikologikoa, emozionala eta gizarteratzea sustatzeko ekintza integrala egiteko beharrezko neurri guztiak hartu behar direla.
- Baliabideetara eta esku hartzeko protokoloetara sartzeko baliabideek aukera eman behar dute beharra duten adingabeek haien errealitatera egokitutako arreta jasotzeko, haur eta nerabeen eta haien familien dibertsitatea aitortuz, baita egoera honetan eragina duten askotariko faktoreak ere.

- Zerbitzuak eta programak diseinatzerakoan genero-ikuspegia kontuan hartu eta ezartzeak esan nahi du emakume eta gizonak eta haurrak modu desberdinean baldintzatzen dituzten faktore sozial eta kulturaletan, ohituretan, portaeretan, balioetan, jarreretan, estereotipoetan eta aurreiritzietan arretoa jartzea.
- Desgaitasuna duten haur eta nerabeek pairatzen duten indarkeriari arretoa berezia eskaini behar zaio, ezaugarri espezifikoak zituelako, eta arretan lan egiten dutenek ezagutu eta kontuan izan behar dituzte.
- Bigarren biktimizazioa saihesteko ikuspegi zabala izan behar da eta prozesu judizialak eta administratiboak ez ezik, eragileek arlo desberdinetatik egiten dituzten jarduketak guztiak izan behar dira kontuan: hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, osasuna, segurtasuna, etab. Berririko biktimizatzea nola prebenitu eta saihestu daitekeen espresuki jasotzen duten xedapenak ezartzea komeniko litzateke, norabide horretan neurriak errazago hartu ahal izateko.
- HEHK berririko biktimizatzea edo bigarren aldiz biktimizatzea prebenitzeko funtsezko tresnak eskaintzen ditu: haur eta nerabeen interes gorena eragiten dieten neurri guztietan aztertu eta txertatzea, izan ongizate sozialerako sistemetatik, judizialeetatik, administratibotik edo organo legegileetatik; eta entzunak izateko eta eragiten dieten auzi guztietan iritzia adierazteko aukera ematea, haien adina eta heldutasuna kontuan izanda betiere.
- Haur eta nerabeen aurkako erakundeen indarkeria gelditzeko jarrera proaktiboa izan behar da eskubideak urratzen dituzten balizko jarrerak hautematerakoan, monitorizatuz, ebaluatuz, ikertuz eta aldi baterako kontuak emateko erregistro-mekanismoak gaituz.
- Haur eta nerabeen aurkako Indarkeriaren inguruko Mundu Txostenak nabarmentzen du babes-zentroetan dauden haur eta nerabeen zaurgarritasun egoera berezia; beraz, garrantzitsua da babes-sistemaren neurriak indartzeko lanean jarraitzea eta haur eta nerabeei laguntzeko eta atxikimendu-sistemetan arretoa berezia jartzea.
- Haur eta nerabeek Justizia Administrazioako organo batekin edo antzeko administrazio batekin duten edozein harremani aplikatu dakizkiokeen estandarrek,¹⁰⁶ nazioartean onartutakoek, ezartzen dute prozedura batek haur eta nerabeen eskubideak erabat errespetatzeko, honako elementu hauek izan behar dituela: kaltetutako haur edo nerabearentzako informazioa eta aholkularitza, bere intimitatearen eta familiako bizitzaren babesa; bere segurtasuna bermatzea, prebentziorako neurri bereziak hartu behar badira ere; haur eta nerabeen eskubideei eta beharrei buruzko diziplina anitzeko prestakuntza egokia eta espezializatua; delituren bat egin duen adingabe batentzat askatasuna mugatzen duten neurriak hartzen badira, azkeneko neurria izan behar dira eta ahalik eta iraupenik laburrena izan behar du.

¹⁰⁶ Haur eta nerabeei egokitutako Justiziaren inguruko Europako Kontseiluko Jarraibideak, 2012eko azaroaren 17ko Europako Kontseiluan ministroen batzordeak onartu zituenak.

- Arlo judizialean zehazki, estandar horiek ezartzen dute haur eta nerabeen prozeduretan zehar honi erreparatu beharko zaiola: beharrezkoa izanez gero, prozesu judizial bat martxan jartzeko epaitegietarako sarbidea dutela; haien interesei gehien komeni zaien aholkularitza juridikoa eta legezko ordezkariak izan dezaketela (doako justizia eta defendatzaile juridikoak haur eta nerabeen interesak ordezkatzeko ez datozenerako); prozedurak luzapen bidegabeak ez izatea; prozeduraren antolaketa eta haiek parte hartu behar duten ingurunea erosoak izatea eta haien ulermen-mailara egokituta dagoen hizkera erabiltzea; haur eta nerabeekin probak egiterakoan arreta berezia jartzea, batez ere aitortza hartzerakoan, erasotzailearekin harremana saihestuz eta beharrezkoak ez diren errepikapenak saihestuz, hala nola denborarekin balioa, naturaltasuna eta sinesgarritasuna galtzen dutela diotenak (aurretik nor bere gain hartzen dituen proben erabilera eta onarpena).
- Laguntza ekonomikoak dagokienez, garrantzitsua da laguntza jakin batzuk jasotzen dituzten, eta haur eta nerabeak bizi diren familia-unitateko kide diren pertsona helduek zigorrak jasotzen badituzte (betebeharrak ez betetzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik) erne egotea, zigor horrek eraginak izango dituelako haurren ongizatean eta eskubideetan.

EREDUAREN IRIZPIDEI DAGOKIENEZ...

- Oro har, haur eta nerabeen indarkeria-kasuak jorrazteko ereduak ikuspegi integral argia izan behar du eta esku hartzen duten eragile desberdinek hartu behar dute parte (segurtasuna, justizia, gizarte-zerbitzuak, osasuna...) biktimaren behar desberdinak asetzeko eta arreta pertsonala eta jarraitua izango dela bermatzeko. Haur eta nerabeak zerbitzu bakoitzetik historia errepikatuz "igaro" behar izatea saihestu behar da, eta baita ibilbidearen une batzuetan erreferentziazko profesionalik gabe esku hartzea etetea ere. Horrek berriro biktimizatzea saihestu eta arretaren kalitatea hobetu dezake.
- Artatzen diren kasuak gero eta konplexuagoak dira eta arreta eman behar zaien pertsonak askotariko gertakizunak dituzte, horregatik komeniko litzateke kasuak jorrazterakoan diziplina arteko ikuspegia bermatzen duten lan-sistemak sustatzea. Halaber, barkamenari eta koordinazioari dagokionez hobekuntzak ezartzeak, erantzunak behar aldakorretara egokitzeko eta baliabide zeharkakoagoak eskaintzeko gaitasun handiagoa duten sistemak ekar ditzake.
- Hori sustatzeko erabilgarria izan daiteke gogoetarako eta eragileen artean elkar ezagutzeko espazioak sortzea, eskumenen artean dagoen zatiketa gainditu, korapiloak askatu eta adostasunak lortzeko, baita partekatutako esku hartzeak eta elkarlan puntualetatik harago doazen ekintza bateratuak martxan jartzeko ere.

- Eragileen arteko elkarlana eta sareko lana funtsezkoa da arretak ikuspegi komunitarioa izan dezan, haur eta nerabeen ohiko ingurunean lan egiten duten profesionalen jardunari lehentasuna emateko eta inguruko pertsonen mantenua errazteko. Halaber, horri esker estigmatizazioa saihestu daiteke eta aukera-berdintasuna, sarbidearen parekidetasuna eta normalizazioa susta daitezke.
- Garrantzitsua da espezializatutako giza baliabide, baliabide ekonomiko eta material nahikoak finkatzea babes-sistemetan, haur eta nerabeak behar bezala artatzeko, eta babes-modalitate guztietan ingurune segurua, entzumena, laguntza eta erreferenteentzako etengabeko prestakuntza bermatu ahal izateko.
- Komeniko litzateke gutxieneko estandarren eta esparru metodologiko komunen identifikazioan aurrerapausoak ematea, nazioarteko arauekin bat eginez eta praktika onetan oinarrituz, EAEko lurralde historikoetako erantzukizun publikoko zerbitzu eta prestazioetarako sarbidean oreka handiagoa eskainiz. Horretarako, lurralde bakoitzeko lurralde-ezaugarriari eta beharrei jarri behar zaie arreta, batez ere, landa-eremuetan areagotu daitezkeen sarbide-zailtasunei.

Eragileak

Esan dugun moduan, eragile publiko eta pribatu guztiak eta gizarte osoa daude planteatu den helburua lortzera deituta. Oso arlo desberdinetan (hezkuntzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan, justizian, segurtasunean, kulturean, denbora librean, kirolean eta beste batzuetan) lan egiten duten eragileek esku hartzen dute indarkeriaren arretan eta erreparazioan, baina horietako batzuek, haien eskumenak, irismena eta lurraldean duten ezarpena direla eta, ardatz honetako jarduketara-ildoekin lotuta dauden jarduketak sustatzeko ahal handiagoa dute.

Hurrengo infografiaren helburua esku hartzen duten eragile guztien ikuspegia eskaintzea da, protagonismo handiena izan dezaketen horien zeregina nabarmenduz. Kasu honetan, zehazki, funtsezko eragileak dira: lehen arretaren arloko eta osasun-sistema espezializatuko eragileak; aldundietako gizarte-zerbitzuak; segurtasunaren arloan lan egiten duten eragile guztiak eta justiziaren arloan lan egiten dutenak.



Oharra: erdiko zirkuluan daude helburu estrategikoa lortzeko jarduketa-ildoak sustatzeko gakoak izan daitezkeen sistemak eta eragileak. Eragileen harremanak ez dira zehatzak. Kasu bakoitzean esanguratsuenak direnak jaso nahi izan dira, baina horrek ez du esan nahi jardun dezaketen beste batzuk ere ezin direnik egon.

4. ARDATZA: LANKIDETZA ETA EZAGUTZAREN KUDEAKETA

Helburu estrategikoa

Informazio sistema baten eta etengabeko hobekuntzaren garapena sustatzea, baita eragileen eta sistemen arteko lankidetzaren ere, ezagutza eta erantzunen eraginkortasuna handitzeko, ikerketa, berrikuntza eta ahaleginen koordinazioa sustatuz.

Justifikazioa

ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK LANKIDETZA ETA EZAGUTZAREN KUDEATZEA?

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria fenomeno poliedrikoa da, erroak askotariko faktoreetan dituen eskubideen urraketa, maila guztietan ondorioak dituena; indibidualean, komunitatean eta gizartean, eta pairatzen duen pertsonaren bizitzako arlo guztietan eragina izan dezakeena; osasun fisikoan eta emozionalean, hezkuntzan, segurtasunean, egoera ekonomikoan eta sozialean, etab.

Arazoaren **dimentsioak** eta esku hartzen duten eragileen **dibertsitateak** erantzunkidetasunean oinarritzen diren erakundeen apustuak behar dituzte. Fenomeno hau arlo edo sistema bakarretik jorratzea ez litzateke nahikoa izango, **osatu gabeko ikuspegitik** jorratuko litzatekeelako eta partziala eta oso murrizta izango litzatekeelako. Fenomeno osoaren erantzunari ezin dio eta ez lioke sistema bakar batek erantzun behar. Indarkeriak dituen askotariko dimentsioak direla eta, disziplina, maila, estrategia, teknika, espezializazio, neurri eta politika ugari artikulatu eta jarri behar dira martxan, eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen, eta baliabideak indartu, optimizatu eta atzeralika ditzaten. Alabaina, garrantzitsuena da osotasuna bermatzea, berriro ez biktimizatzea, arretan koherentzia eta jarraikortasuna izatea eta indarkeria pairatu duten edo pairatzen ari diren pertsonen erreparazioa izatea. Lankidetzaren ezinbestekoa da **kalitatezko** erantzun osoak eskaintzeko.

Bestalde, egun ez dago datuak jasotzeko sistema egokirik haur eta nerabeen aurkako indarkeria mota desberdinen jarraipena egin ahal izateko, ezta indarkeriaren prebalentzia

neurtzea ahalbidetzen duen mekanismorik ere. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren ezagutza handitzea eta hobetzea lagungarria izan daiteke: Indarkeriaren adierazpen-mota desberdinak pairatzen dituzten haur eta nerabeen kopurua zehatzago **kuantifikatzeko** eta denboran zehar izan duen bilakaera ezagutzeko; indarkeriarekin lotura duten faktoreetan eta ondorioetan **sakontzeko**; **arrakastatsuenak** diren erantzun eta esku-hartze motak aztertzeko; etab. Azken finean, ezagutza hobeto kudeatzea lagungarria izan daiteke arazo honi bere dimentsioaren arabera aurre egiteko, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki, eta indarkeriaren prebentziorako, hautemate goiztiarrerako, arretarako, babeserako eta erreparaziorako hartzen diren neurrien eta politiken kalitatea hobetzeko.

ZER PALANKA IZAN DAITEZKE ERABILGARRIAK LANKIDETZA ETA EZAGUTZAREN KUDEAKETA HOBETZEKO? ZERGATIK?

Garrantzitsua da lehen arretako gizarte-zerbitzuen lidergoa aitortzea, lehen hartzaileak eta babes-sistamarako sarbidea diren aldetik. Izan ere, gainerako sistemak laguntzen eta orientatzen izugarritzko lana egiten dute, indarkeriako egoerak hautematen, nahiz jakinarazten, bai eta gainerako sistemekin loturak ezartzen ere. Hala ere, aipatu dugun moduan, adingabeen indarkeriaren arazoaren ardura ezin da soilik gizarte-zerbitzuen sistemarena izan.

Halaber, funtsezkoa da hainbat sistemetako profesionalen ikuspegi desberdinen osagarritasuna aitortzea edo are, sistema beraren barruan dauden eta eskumen desberdinak dituzten maila administratibo desberdinena. Esku-hartzea sektore bakar baten esku uztea eragotzi behar da, kasua kontrastatu eta **koordinatzen** denean, irtenbide posibleei buruzko ikuspuntu zabalagoa eta aberatsagoa lortzen delako.

Esan dugun moduan, **datuen** gabeziari aurre egiteko beharrezkoa da arlo guztietako indarkeria moten inguruko intzidentzia eta prebalentzia zehaztasun handiagoarekin ezagutzeko neurriak hartzea eta bilakaeraren aldizkako jarraipena egitea, joerak aztertu ahal izateko. Halaber, garrantzitsua da arazoaren azpian dauden faktoreen eta horien ondorioen ikerketa sustatzea. Horrek guztiak beharrezko erantzuna hobeto planifikatzen lagun lezake.

Ikerketarako baliabideak eskainiz gero, **praktika onak** hauteman eta ekimen berritzaileak egin daitezke, arazoei aurre hartu eta prebentzioan eta hautemate goiztiarrean enfasi handiagoa jartzeko, indarkeriaren ondorioak arindu beharrean.

Neurrien eta politiken kalitatea hobetzeko, garrantzitsua da ebaluazioaren **kultura** ere hedatzea, eta programen eta egiten diren beste neurrien emaitzak neurtzea ahalbidetuko duten kontuak ematea. Neurtuz gero, hobekuntzak hauteman daitezke eta, gerora, horien arabera egokitu arretarako prozedurak, baita erakundeen arteko koordinazio-protokoloak, eta abar ere. Halaber, jarduketek duten eragina ebaluatzeak aukera emango du arreta-ereduen edo beste alderdi batzuen inguruko erabakiak ebidentzietan oinarrituta hartzeko. Gainera, aintzat izan behar da ebaluazioa gardentasun-ariketa bat dela eta herri-administrazioek konpromisotzat bere gain hartu beharko luketen kontu-ematea.

Bestalde, indarkeria pairatzen duten adingabeen arretan lan egiten duten profesionalak **arriku psikosozial** maila handiak pairatu behar dituzte eta horrek eragin negatiboak ditu

haien osasunean. Ondorioz, eragina du txandakatze mailan eta absentismoaren tasan. Horrek, azkenean, zeharkako eragina izan dezake zerbitzuen kudeaketan, helburuak betetzean eta arretaren kalitatean.

Jarduteko ildoak

Aurretik adierazitakoarekin bat eginez, **bost jarduketa-ildo** planteatzen dira arazo honen ulermena eta erantzunak hobetzeko. Guztiak haur eta nerabeen ongizatearen alde lan egiten duten profesionaleri eta boluntarioei daude zuzenduta.

- 4.1. Eragile eta sistema desberdinen arteko lankidetzaren sustapena**, arreta osoa eskaintzeko eta haur eta nerabe guztien eskubideen erabateko ezarpena babestu eta sustatzeko konpromiso partekatuan ahaleginak artikulatzeko.
- 4.2. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren ikerketa sustatzea, baita arlo guztietako indarkeria mota desberdinen intzidentziaren eta prebalentziaren eboluzioaren aldizkako datu-bilketa eta jarraipena ere**
- 4.3. Ekimen berritzaileak sustatzea eta jarduketa egokiak hedatzea**, sortzen diren eronkei erantzuteko edo aurre hartzeko egokiak direnak.
- 4.4. Ikerketa eta haur eta nerabeek parte hartu duten programa eta zerbitzuen emaitzen ebaluazioa sustatzea**, hobetzeko arloak identifikatu eta egokitu ahal izateko.
- 4.5. Langileen arrisku psikosozialen zaintza sustatzea**, batez ere haur eta nerabeei eta haien familiei arreta eskaintzen dietenena, arretarako, babeserako eta erreparaziorako prozesuak ahalik eta osasun-baldintzarik onenetan aurrera eraman ahal izateko eta, horrela, zerbitzuen kalitatea hobetu ahal izateko.

Jarraibideak

Atal honetan eragile desberdinek lankidetzaren eta ezagutzaren kudeaketaren inguruan egiten duten lana bideratzeko jarduketaren hainbat gako eskainiko dira. Jarraibideetako askok jarduketa mota hauetarako printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak finkatzen lagun dezakete (dokumentu honetako "printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak" atalean ageri dira). Beste batzuek erreferentzia egiten diete arreta berezia jarri behar zaien arloei, diagnostikoaren emaitzekin eta horiei EAEn egun ematen zaien erantzunarekin koherentzian.

FUNTSEZKO PRINTZIOEI DAGOKIENEZ...

- Ikerketaren garapena adingabearen interes gorena kontuan hartuta sustatu behar da. Interesgarria izan liteke printzipio hori lurreratzen lagunduko duten eta haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalei printzipio hori neurtzeko eta jarduera guztietan printzipio horren nagusitasuna gauzatzeko irizpideak eskainiko dizkieten tresnen garapenean aurrera egitea. Garapen horrek, era berean, eskubideen gatazka-egoeretan (esaterako, gurasoen eskubideek haur eta nerabeen eskubideekin talka egiten dutenean) erabakiak hartzerakoan irizpideak trukatzeko eta gogoetarako espazioak zabal litzake.
- Beharrezkotzat hartzen da haur eta nerabe guztien parte-hartzea txertatzeko lanean jarraitzea, eta herritar gisa eragiten dieten proiektu, programa edo beste jarduketak batzuen diseinuan, ezarpenean, jarraipenean eta amaierako ebaluazioan zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik ez izatea generoagatik, jatorriagatik, desgaitasunagatik edo beste arrazoi bategatik.
- Haur eta nerabeek maila desberdinetan (tokikoa, lurraldekoa...) parte hartu ahal izateko kanal egonkorrak sustatu behar dira, aldizkako ebaluazioak egiteko, gai interesgarri jakin batzuetan sakontzeko, aurretik martxan zeuden ekimenak alderatzeko edo berrikusteko, etab.

ZEHARKAKO IKUSPEGIEI DAGOKIENEZ...

- Garrantzitsua da haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren arlo espezifikoan Erreparaziorako Eskubidearen aplikazio praktikorako neurri eta politiken inguruko ezagutza ikertzea eta zabaltzea, erreparazioa txertatzea ahalbidetuko duten jarraibideak, gidak edo gidaliburuak eskaini ahal izateko.
- Haur eta nerabeetan espezializatuta dauden organoen eta berdintasunean, dibertsitatean eta migrazioetan lan egiten duten organo politikoek arteko aliantzak eta elkarlana sortzea komeniko litzateke, lurraldeko maila guztien artean lan artikulatua eta koherentea egin ahal izateko.
- Errealitate hau aztertzeko genero-ikuspegia izatea garrantzitsua da, politika jakin batzuek haur eta nerabeengan izan dezaketen eragin desberdina ikusarazten lagun dezakeelako.

EREDUAREN IRIZPIDEEI DAGOKIENEZ...

- Komenigarria izango litzateke sistemen arteko elkarrenganako ezagutza hobetzea. Esku hartzen duten eragileen esku hartzearen zatiketak eta dibertsitateak mapa konplexua sortzen dute eta egungo baliabideen inguruko informazioa

sakabanatuta dago. Horrek azaltzen du zergatik ez den beti eragileek egiten duten lana ezagutzen, eta, ondorioz, zaila da eskaini nahi den arreta osoak behar duen sektoreen arteko ikuspegia izatea. Egoera hori alda liteke baliabideen mapa eginez, aldizka eguneratuz eta zabalduz, eta eragileen arteko gogoeta partekatua izateko aldizkako topaketa egonkorrak sustatuz.

- Programen emaitzak ebaluatzeko beharrezkoa da aurretik informazioa biltzeko sistema egokiak diseinatzea. Horretarako adierazleak aurreikusi behar dira, datu bilketarako protokoloa diseinatu eta zabaldu eta datuak jaso behar dituzten pertsonak datu-bilketaren balio erantsiaren inguruan sentsibilizatu. Halaber, zerbitzuak eta programak artikulatu eta antolatzerako orduan, datuen erregistroak ebaluatzeko zenbat denbora beharko duen aurreikustea komeniko litzateke, zuzeneko arretan dauden profesionalen gainkarga saihestu ahal izateko. Alde horretatik, gakoa izan daiteke unibertsitateekin eta beste ikerketa-zentro batzuekin aliantzak sortzea. Izan ere, administrazio publikoei lagun diezaiekete haien jarduketan emaitzak ebaluatzen, tresnak eskainiz, ad-hoc ikerketak diseinatuz, etab.
- Interesgarria izango litzateke bai esku hartzean aritzen diren profesionalak, bai programen eta zerbitzuen kudeaketaz arduratzen diren arduradunak sentsibilizatzea, dagoeneko badauden zerbitzu batzuk berrikusi, hobetu eta egokitu ahal izateko tresnatzat har dezaten ebaluazioa, haur eta nerabeekin eta haien familiarekin lortzen diren emaitzak bermatuz. Egungo esku-hartze ereduak berrikustea eta esku hartze osoagoak eta berritzaileagoak garatzea da asmoa. Berrikuntzak ez du zertan programa eta zerbitzu berriak sortzeko programa izan, dagoeneko daudenak egokitu eta hobetu ere egin daitezke.
- Komeniko litzateke erakunde eta sistema guztietako administrazio-erregistroetan informazioa biltzeko dauden irizpideak estandarizatzeko eta bateratzeko aurrerapausoak ematea, intzidentziaren zein prebalentziaren inguruko datuen tratamendu estatistiko egokia, alderagarria eta denboran irautean duena bermatzeko. Halaber, interesgarria litzateke zeregin hori sinplifikatzen duten digitalizazio-prozesuak sustatzea.
- Praktika honen bilketa sustatzea ere komeniko litzateke, ikuspegia estatuko eta Europako esperientzietara zabalduz, eta trukeak, bisitak eta partekatutako gogoetak sustatuz. Bereziki interesgarria da arazo berriei erantzun osoa eman ahal izateko esperientziak hautematea.
- Haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalei eragiten dieten arrisku psikosozialerako maila altuei erantzuteko: arloko lanpostuek dituzten arrisku espezifikoak hauteman behar dira; gainkargak saihesteko neurriak hartu, arreta ratioetan jarritz; lan-osasuneko sailak areagotu; laguntza-baliabideetarako sarbidea erraztu, esaterako, ikuskaritza eta atsedean hartzeko programak;

jarduera profesional hori aitortu eta balioan jarri; lan-baldintzak zaindu, etab. Arrisku mailak izugarri igo daitezke profesionalek espezializazio, esperientzia edo laguntza nahikorik ez badute. Alderdi horri erreparatuz gero, arretaren kalitatea ere hobetuko da.

- Etengabeko hobekuntzaren ikuspegia txertatzeko beharrezkoak dira gogoeta, sareko lana, lankidetzak, giza baliabide nahikoak eta prestatuak izatea, ebaluazioa, datu-bilketa eta prestakuntza. Horretarako, denboraren inbertsio handia egin behar da diseinuan, eta programen eta planen antolakuntzan. Zerbitzuak planifikatzeko, zuzeneko arretako zereginak kontuan hartzen dira gehienetan, baina arreta horrek bere horretan ez du bermatzen lortu nahi den osotasuna, koherentzia, eraginkortasuna eta kalitatea.
- Garrantzitsua da datuen babesa diziplinen arteko esku-hartzea sustatu, ahalbidetu eta indartzen duten informazio-trukerako sistemekin uztartzeko prozedurak garatzea. Gai horren inguruko praktikak berrikusi beharko lirateke, informazio-trukerako sistemak hobetzeko eta profesionalen artean zer informazio partekatu behar den adosteko. Halaber, interesgarria izango litzateke biktimizazioaren aurkako printzipioa (haur edo nerabeak behin eta berriro lekukotasuna eman behar izatea saihestea) konfidentzialtasunaren eskubidearekin uztartzea.
- Lankidetzarako, datu-bilketarako eta praktika onetarako jarduketa-ildoak ikuspegi orokorretik sustatzea komeni da, elkarren artean artikulatuta eta estu lotuta egon daitezen, eta elkar atzeraelikatu eta indartu daitezen. Alde horretatik, interesgarria izan liteke erkidegoan erakundeen eta sektoreen arteko lan-esparru bateratua sustatzea, jarduteko eta ebaluatzeko printzipioak, konpromisoak, jarraibideak eta ereduak izateko. Egitura horri esker, koordinaziorako eta lankidetzarako espazioak aldundiko eta tokiko maila guztietara zabal litezke eta eragile desberdinen arteko dinamika egonkorrak eta egituratuak finkatu litezke.
- Interesgarria litzateke Europako funtsak eskuratzeko formulak aztertzea, beharrezkotzat hartzen diren ikerketa-ildoak garatu ahal izateko.
- Komeniko litzateke haur eta nerabeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko instituzioek eta erakundeek egiten ahalegina aurrekontu-konpromisoetara eramatea eta bilakaeraren jarraipena egitea.
- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Haur eta Nerabeen Behatokia haurren aurkako indarkeriaren inguruan dituen erantzukizunekin, helburuekin eta erronkekin koherentzian indartzeak Estrategia hori hedatzen lagun dezake.

Eragileak

Esan dugun moduan, eragile publiko eta pribatu guztiak eta gizarte osoa daude planteatu den helburua lortzeko deituta. Oso arlo desberdinetan (hezkuntzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan, justizian, segurtasunean, kulturean, denbora librean, kirolean eta beste batzuetan) lan egiten duten eragileek esku hartzen dute lankidetzaren eta ezagutzaren kudeaketan, baina horietako batzuek, haien eskumenak, irismena eta lurraldean duten ezarpena direla eta, ardatz honetako jarduketara-ildoekin lotuta dauden jarduketara sustatzeko ahal handiagoa dute.

Hurrengo infografiaren helburua esku hartzen duten eragile guztien ikuspegia eskaintzea da, protagonismo handiena izan dezaketen horien zeregina nabarmenduz. Kasu honetan zehazki, funtsezko eragileak dira: Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritza; hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, osasunean eta justizian eskumena duten eta estatistikez, berrikuntzaz, ikerketaz edo plangintzaz arduratzen diren zuzendaritzak edo dibisioak; Arartekoa eta unibertsitateetako eta beste erakundeetako ikerketa-zentroak.



Oharra: erdiko zirkuluan daude helburu estrategikoa lortzeko jarduketara-ildoak sustatzeko gakoak izan daitezkeen sistemak eta eragileak. Eragileen harremanak ez dira zehatzak. Kasu bakoitzean esanguratsuenak direnak jaso nahi izan dira, baina horrek ez du esan nahi jardun dezaketen beste batzuk ere ezin direla egon.

ESTRATEGIAREN GOBERNANTZA

Atal honetan azalduko dugu estrategiaren atxikimendurako, lidergorako, sustapenerako, koordinaziorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako antolaketaaren arkitektura.

ATXIKIMENDUA

Estrategia honen asmoa haur eta nerabeen indarkeriaren inguruko ikuspegi partekatua eraikitzeko tresna izatea da; esperientzia, pilotutako ezagutza eta norabide berean aurrerapausoak emateko eragile ugari egunero egiten dituzten ahaleginak artikulatu ahal izateko.

Horregatik, deialdia egingo da haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren eskubideen sustapenean, prebentzioan, hautemate goiztiarrean, arretan eta erreparazioan eragin nabarmena izan dezaketen Hirugarren Sektoreko erakunde publiko eta pribatu guztiak Estrategiara atxiki daitezzen. Erakundeok Estrategia indarrean dagoen edozein unetan atxiki ahal izango dira eta konpromiso hauek izango dituzte:

- **Erakunde publikoen kasuan**, atxikitako erakundeak sustatzen dituen politika publiko guztietan (planak, programak, zerbitzuak...) Estrategia honetan zehaztutako printzipioak, ikuspegiak, irizpideak eta jarraibideak txertatu beharko ditu. Gainera, estrategia indarrean dagoen bitartean, urtero jakinarazi beharko du Estrategia honetako zer helburu estrategiko eta jarduketa-ildo ezartzeko asmoa duen eta horien ezarpen-maila zein izango den.
- **Erakunde pribatuen kasuan**, atxikitako erakundeak sustatzen dituen ekimenetan Estrategia honetan zehaztutako printzipioak, ikuspegiak, irizpideak eta jarraibideak txertatu beharko ditu. Gainera, nahi duten erakundeek, urtero jakinarazi ahal izango dute Estrategia honetako zer helburu estrategiko eta jarduketa-ildo ezartzeko asmoa duten eta horien ezarpen-maila zein izango den.

Atxikitako erakundeak publikoki jakinaraziko dira eta Estrategiaren ezarpenean ematen diren aurrerapausoen inguruko aldizkako informazio xehea jasoko dute. Beste ekintza batzuen artean, Estrategiaren urteko jarraipen-txostenak eta jasotako informazio guztiarekin osatutako amaierako ebaluazioa igortzea da asmoa, eta gaiaren inguruan antolatzen diren jardunaldietan parte har dezaten gonbidatzea, besteak beste.

LIDERGOA, SUSTAPENA ETA KOORDINAZIOA

Estrategia behar bezala ezartzeko egin behar diren lidergo-, sustapen- eta koordinazio-lanak **Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritzaren** ardura izango dira.

Bere funtzioak betetzeko, Familia eta Haurren Zuzendaritzak ardura hauek izango ditu:

- Informazioaren bilketa sistematizatzea eta urteko jarraipen-txostena egitea, jarduketa-ildo eta ardatz bakoitzean erakunde desberdinek egin dituzten ekintza esanguratsuenen inguruko lorpenen eta oztopoen berri emateko.
- Diagnostikoan erabili diren adierazle nagusien jarraipena egitea, bai aldiaren amaieran estrategia osoak EAEko haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren arazoaren prebentzioan eta lanketan izan duen eragina baloratzeko, bai estrategia indarrean dagoen aldian zehar eragina izan dezaketen datu jakin batzuen bilakaeraren aurrean helburuak edo jarduketa-ildoak berrikusteko beharra hautemateko.
- Urteko jarraipen-txostenak sustatu eta egitea eta Estrategiaren indarraldiaren amaieran azken ebaluazioa egitea, jarduketan aldetik izan diren aurrerapenak jasotzeaz gain, hasierako diagnostikoa eguneratu eta egoeraren bilakaera aztertzeke. Halaber, txosten honetan estrategien eta helburuen formulazioen aldaketak eta egokitzapenak proposatu ahal izango dira, ebaluazioak hala gomendatzen badu.
- Estrategiara atxikita dauden eta strategiaren ardatz edo jarduketa-ildo batekin lotura duten instituzio eta erakundeek egindako jarduketa nagusien garapenaren inguruko informazio-trukea sustatzea.
- Estrategiaren ezarpenarekin zuzenean lotuta dauden jarduerak egiten dituzten erakundeen arteko lankidetzak sustatzea.
- Gehienezko gardentasuna eta kontu-ematea sustatzea, herritarrek eta gizarte-eragile desberdinek aldi horretan zehar izan diren lorpen nagusien berri izateko.

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Estrategiaren jarraipena **Haur eta Nerabeen Batzorde Iraunkor Sektorialak**¹⁰⁷ egiten du (edo, hala badagokio, ordezkatzeko organoak). Sailen eta Erakundeen arteko Batzordean Hirugarren Sektorereko erakundeak ere badaude, eta estrategia honen ezarpenaren aurrerapenen berri emango zaio urtero. Batzordearen parte ez diren eta atxikita dauden erakundeek jarraipen eta ebaluazio-txosten publikoen bidez jakinaraziko zaie.

¹⁰⁷ Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala sortu, osatu eta funtzioak ezartzeko urriaren 2ko 165/2007 Dekretua.

Batzorde Iraunkorraren edo organo baliokidearen bitartez strategiaren jarraipena egin eta ebaluatzeko, **laneko batzordeak** sortu ahal izango dira gai espezifikoak jorratzeko. Horretarako, osaerak, helburuak, funtzionamendurako arauak eta batzordeen iraupenak finkatuko dira.


Halaber, organoak aldaketak eta egokitzapenak proposatu ahal izango ditu strategiak eta helburuak formulatzeko, ebaluazioak hala gomendatzen badu.

I. ERANSKINA: OHAR METODOLOGIKOAK

Estrategia hau egiteko, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritzak EDE Fundazioaren laguntza teknikoa izan du, 2021. urtean zehar egindako prozesuan informazioa bildu eta aztertzeko.

Nabarmendu behar da erakunde publiko eta beste eragile sozial askoren ekarpen ugari biltzeko aukera eman duela **parte-hartzeko prozesuak**, eta horrek eragina du EAEko haur eta nerabeen ongizatean, eta oso sistema eta arlo desberdinetatik hedatzen da: hezkuntzatik, osasunetik, gizarte-zerbitzuetatik, segurtasunetik, justiziatik, kulturatik, aisialditik eta denbora libretik, kiroletik eta beste batzuetatik. Halaber, prozesuan zuzenean parte hartu dute gure **autonomia erkidegoko** haur eta nerabeek, eragiten dien indarkeriaren inguruan duten ikuspegia txertatzeko. Guztira, 80 haur eta nerabe eta 60 profesional inguruk hartu dute parte prozesuan.

Jarraian, **informazioa biltzeko aktibatu diren ekimen** nagusiak bilduko ditugu, eta horien barruan daude teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak biltzen dituztenak:



- **DOKUMENTUEN BERRIKUSKETA:** prozesu honetan erreferentziatzen hartu da 2019ko “Haur eta nerabeen aurkako indarkeria: diagnostikoa, erronkak eta orientabideak”, txostena. Txosten horrek EAEn arazoak duen dimentsioa eskaini eta sistemaren erantzuna ebaluatzeaz gain, hobetzeko erronkak eta orientabideak hauteman zituen. Era berean, bigarren mailako hainbat iturri berrikusi dira (araudiaren erreferentziak, estatistika-operazioak, ikerketak, erakundeen memoriak, etab.) bertan jasotzen ziren datuak eguneratzeko, bai araudi mailako esparruari dagokionez, bai egoeraren diagnostikoari eta baliabideen mapari dagokionez.

Gainerako, nazioarteko beste estrategia batzuen edukia bildu eta aztertu da, bereziki Europakoa, baita espezializatutako organismoen gomendio-txostenena ere.

- **GALDETEGIAK:** galdetegiak esker aurretik aipatutako jarduketarako desberdinetako profesional askoren ekarpenak jaso ahal izan dira, udalekin, aldundiekin, erkidegoko administrazio publikoarekin zein hirugarren sektoreko erakundeekin lotura dutenak. Zehazki, teknika honen bitartez 2019ko diagnostikoa hauteman ziren erronkak alderatu eta eguneratu dira, strategiaren helburuekin eta jarduketarako lotura duten ideiak jaso dira eta nabarmentzen diren praktiken inguruko iradokizunen lehen bilketa egin da.
- **ELKARRIZKETAK:** elkarrizketa sakonak egin dira, haien kargua, funtzioak, ibilbidea edo espezializazioa direla eta bereziki interesgarriak diren pertsonekin galdetegietan jorratu diren gai batzuk sakontzeko.
- **TAILERRAK:** edukiak alderatzeko eta ekarpen gehigarriak jasotzeko topaketa desberdinak antolatu dira esku hartzen duten eragile nagusiekin, estrategia aberasteko. Zehatzago esanda:
 - **Haur eta nerabeekin tailerrak:** Arartekoaren eta EAeko hiru hiriburuetako udalen laguntzari esker, EAEn egun dauden haur eta nerabeen parte hartzerako organo egonkorretako haur eta nerabe batzuen parte-hartzea eduki ahal izan da prozesuan. Bizipenetan eta parte-hartzean oinarritzen den metodologia, eta haur eta nerabeei egokitutako DBHko eta Batxilergoko materialak erabili dira.
 - **Gizarte zibileko erakundeekin tailerrak:** bai eskubideen sustapenean eta prebentzioan, bai esku-hartzearen arloan EAeko haur eta nerabeen ongizatearen alde lan adierazgarria egiten duten hirugarren sektoreko erakundeekin gonbidatu zaie tailerrean parte hartzera. Bertan, strategiaren zirriborroaren elementu nagusiak aurkeztu eta kontrastatu dira.
 - **Administrazio publikoko teknikariekin tailerrak:** haur eta nerabeen prebentzioan edo arretan esku hartzen duten zuzendaritza, sail eta erakunde askotako teknikarientzako tailerra antolatu da. Topaketa honi esker strategiaren zirriborroaren irakurketa eta azterketa partekatua egin ahal izan da, aberasteko.

- **BESTE ESTRATEGIA BATZUK:** aurreko estrategiez gain, beste ekintza hauek ere egin dira:
 - **Haur eta nerabeek parte hartzeko organoen dokumentazioa:** egun EAEn aktibo dauden haur eta nerabeen parte-hartze organo iraunkor eta egonkorren ardura duten erakunde askori kontsultatu zaie, gai berria landu duten organo horien materiala bildu eta berrikusteko.
 - **Lankidetzeta-hitzarmena UNICEFekin:** estrategia hau garatu den denboran, UNICEFek adingabeen aurkako indarkeriaren inguruko azterketa egin du estatuan. Bi lan-prozesuen arteko sinergiak aprobetxatzeko, lankidetzeta-hitzarmena egin da, informazioa eta materialak partekatu ahal izateko.
 - **Idatzizko ekarpenak:** prozesuaren amaierako fasean, strategiaren zirriborroa igorri zaie prozesuan parte hartu duten eragile guztiei eta amaierako testuari azkeneko ekarpenak egin ahal izateko epea ezarri da.

Jarraian, prozesuaren faseren batean parte hartu duten erakunde publikoen, erakunde pribatuen eta pertsona adituen zerrenda gehitu dugu:

ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

Hezkuntzaren arloa:

- » **Berritzeguneak,** Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza, Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Hezkuntzako ikuskaritza,** Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundea.**

Gizarte-zerbitzuen arloa:

- » **Gizarte-zerbitzuen zuzendaritza,** Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Zeuk Esan, haurrei eta nerabeei laguntzeko zerbitzua,** Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko Adingabeen eta Familien Saila, **Arabako Foru Aldundia.**
- » Foru Aldundiko Haurren Zerbitzua, **Bizkaiko Foru Aldundia.**
- » Haur eta Nerabeen Babeserako Zerbitzua, **Gipuzkoako Foru Aldundia.**
- » Haurrentzako eta familientzako Zerbitzua, **Gasteizko Udala.**
- » Adingabeen Babeserako Negoziatua, **Bilboko Udala.**
- » Haur eta Familientzako Babes Zerbitzua, **Donostiako Udala.**
- » **EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarte**

Osasunaren arloa:

- » **Donostia Ospitaleko Pediatria Zerbitzua**, Euskadiko Osasun Sistema-Osakidetza, Eusko Jaurlaritza.
- » **Bastidako Osasun Zentroko Pediatria Zerbitzua**, Euskadiko Osasun Sistema-Osakidetza, Eusko Jaurlaritza.
- » Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuko **Haur eta Gazteen Psikiatria Saila**, Euskadiko Osasun Sistema-Osakidetza, Eusko Jaurlaritza.
- » **EAEko Arreta Soziosanitarioaren Koordinazioa**, Osasun Saila eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.

Kultur, aisialdi, denbora libre eta kirol arloa:

- » **Jarduera Fisikoko eta Kiroleko Zuzendaritza**, Kultura eta Hizkuntza-Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Kultur Sailburuordetza**, Kultura eta Hizkuntza-Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Gazteria Zuzendaritza**, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.

Segurtasunaren arloa:

- » **Ertzaintza**, Segurtasun Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Udaletako **Udaltzaingoa**

Justiziaren arloa:

- » **EAEko Justizia Auzitegi Gorena.**
- » **Euskadiko Adingabeen Fiskaltza.**
- » **Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea**, Justizia Sailburuordetza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Talde psikosozial judiziala**, Justizia Sailburuordetza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Biktimaren Arreta Zerbitzua**, Justizia Sailburuordetza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.

Beste arlo batzuk:

- » **Familien eta haurren zuzendaritza**, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Arartekoaren** haur eta nerabeen bulegoa.
- » **Emakunde-** Emakumearen Euskal Erakundea.
- » **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
- » **Migrazio eta Asilo Zuzendaritza**, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Berdinu** Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualentzako (LGTBI) informazio- eta arreta-zerbitzua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saila, Eusko Jaurlaritza.
- » **Administrazio Publikoko Euskal Institutua**
- » **Euskadiko Gobernu Ordezkaritza.**

ERAKUNDE PRIBATUAK:

- » Biztanle afro-amerikarren **AFRO** elkarte.
- » **Astialedi** Sarea.
- » **AVAIM** - Tratu Txarrak Jasotako Haurren Laguntzarako Euskal Elkarte.
- » **Berriztu** elkarte.
- » **Bizgarri** elkarte.
- » **Caritas** Bizkaia.
- » **Gurutze Gorria**
- » Euskadiko Gizarte **Hezitzaileen** Elkargoa.
- » **Errespetuz**- Pertsona transexualak babesteko eta gizarteratzeko elkarte.
- » **Garaitza** elkarte.
- » **Gehitu** Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualen elkarte.
- » Gizarteratzeko Arabako **IRSE** elkarte.
- » Euskadiko **Emakume Ijitoen** Elkarte.
- » **Nevipen** Ijito Elkarte.
- » **Ortzadar** Fundazioa.
- » Bizkaiko **Psikologoen** Elkargo Ofiziala.
- » **Save The Children** Euskadi.
- » **Suspergintza** Elkarte.
- » Gipuzkoako **Gizarte Langintzako** Elkargo Ofiziala.
- » **UNICEF**-Euskadiko Batzordea.

ADITUAK:

- » Iñaki Alonso Romero.
- » Ignacia Arruabarrena.
- » Pepa Horno.
- » Raul Lizana Zamudio.
- » Felix Lopez Sanchez.
- » Jesús Otaño.

II. ERANSKINA:

ARAUDI-ESPARRUA

NAZIOARTEKOA:

- Haurren Eskubideei buruzko Genevako Adierazpena, 1924.
- Haurren Eskubideei buruzko Adierazpena, 1959.
- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989.
- Haurraren Eskubideen Batzordea
 - 8. Ohar Orokorra, zigor fisikoen eta beste zigor anker edo umiliagarrien aurka babesteko haurraren eskubideari buruzkoa.
 - 13. Ohar Orokorra, adingabeek indarkeria mota bat bera ere ez pairatzeko duten eskubideari eta indarkeria-egoeretan esku hartzeko beharrari buruzkoa.
 - 14. Ohar Orokorra, adingabearen interes gorenari buruzkoa.
 - 18. Ohar Orokorra, Batzordeko 31. Ohar Orokorrarekin lotuta dagoena, haur eta emakumeei eragiten dieten praktika txarrei dagokienez (esaterako, neskabilen abandonua, dietaren muturreko mugak, zigor fisikoa, sexu-jazarpena, indarkeria, behartutako haur-ezkontza edo emakumeen genitalen mutilazioa), emakumeen aurkako diskriminazioa ezabatzeari buruzkoa.
- Hagako Hitzarmena, 1993ko maiatzaren 29koa, Haurren Babesaren eta Nazioarteko Adopzioetako Lankidetzaren ingurukoa.
- Hagako Hitzarmena, 1996ko urriaren 19koa, gurasoen erantzukizunaren eta haurrak babesteko neurrien gaineko lege aplikagarriaren, aitorenpenaren, gauzatzearen eta lankidetzaren gainekoa.
- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa. Haurren salmentari, haurren prostituzioari eta haurrak pornografiarako erabiltzeari dagokionez. (2000).
- Garapen Jasangarriarako 2030 Agenda, batez ere 16.2. GJH: tratu txarrekin, esplotazioarekin, salerosketarekin eta haurren aurkako indarkeria eta tortura mota guztiekin amaitzea. 5. GJH, batez ere 5.2. Helburua: neska eta emakume guztien aurkako indarkeria mota guztiekin amaitzea, bai arlo publikoan, bai pribatuan, salerosketarekin eta sexu-esplotazioarekin edo beste mota batzuetako esplotazioarekin barne. Eta 5.3. helburua: praktika kaltegarri guztiak ezabatzea, hala nola haurren ezkontza, ezkontza goiztiarra eta behartua, eta emakumeen genitalen mutilazioa.
- Desgaitasuna duten Pertsonen Inguruko Nazio Batuen Hitzarmena 2008.

EUROPAN:

- Autoritateen eskumenei buruzko Hagako Hitzarmena eta adingabeen babesaren arloan ezar daitekeen legea, 1961.
- Ezkontza-harremanetik kanpo jaiotako haurren estatus juridikoari buruzko Hitzarmena Estrasburgo, 1975.
- Haurren nazioarteko bahiketaren alderdi zibilen inguruko Hagako Hitzarmena, 1980.
- Haurren Eskubideei buruzko Europako Gutuna, 1992.
- Haurren Babesaren eta Nazioarteko Adopzioetako Lankidetzaren inguruko hitzarmena, 1993.
- Haurren eskubideen baliatzeari buruzko Europako Hitzarmena, 1996.
- Europako Kontseiluaren 1286 gomendioa, haurrentzako Europako strategiari buruzkoa, 1996.
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 2001.
- EBren Agenda haurren eskubideen alde, 2001.
- Adingabearen harreman pertsonalei buruzko Europako Kontseiluko Hitzarmena, 2003.
- Haurren Eskubideei buruzko Europar Batasunaren Estrategiarantz, 2006.
- Haurrak esplotaziotik eta sexu-abusutik babesteko hitzarmena, 2007.
- EBren Agenda haurren eskubideen alde, 2011.
- Europako Parlamentuko eta Batzordeko 2011/36/UE Zuzendaritza, 2011ko apirilaren 5ekoa, gizakien salerosketaren prebentzioari eta borrokari, eta biktimen babesari buruzkoa. Zuzendaritza horrek Kontseiluaren 2002/629/JA erabakia ordezkatzeko du.
- Europar Batasuneko Hitzarmena, 2012.
- Haurtzaroan inbertitzea: desabantailen zikloa apurtzea, Europako Batzordea, 2013.
- Adingabearen eskubideak babesteko ildoak, 2017.
- Europako Kontseiluaren haurren eskubideen aldeko Haurtzaroko Estrategia 2016-2021.
- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen Europako estrategia 2021-2030.

ESTATUAN:

- Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilararen Legea partzialki aldatzen dituena.
- 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautu duena.
- Prozedura Kriminalaren Legea.
- 2013ko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta gizarteratzearen Lege Orokorren Testu Bategina onartzen dituena.
- Apirilaren 27ko 4/2015 Legea, delituaren biktimaren estatutuari buruzkoa.

- Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa, haurren eta nerabeen babes-sistema aldatzen duena.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Legea, haur eta nerabeen babes-sistema aldatzen duena.
- 2021eko ekainaren 2ko 8/2021 Legea, desgaitasuna duten pertsonen haien gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntzeko legedia zibila eta prozesala erreformatzen duena.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa.

EAEN:

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.
- 13/2008 Legea, Familiei laguntzekoa.
- EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Plana 2018-2022.
- Familien eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna 2018.
- Gazte Justiziaren V. Plana 2020-2024.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa
- Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako laguntza hobetzeko 2009ko otsaileko erakundeen arteko II. akordioa.
- Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoak 2017-2020 aldirako.
- Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia.
- Euskadiko Mendekotasunen VII. Plana 2017-2021.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana
- Euskadin haurren obesitatea prebenitzeko estrategia.
- EAEko ikastetxeetan eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko gida.
- EAEko hezkuntza sistemarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023).

III. ERANSKINA: KONTZEPTU INTERESGARRIEN GLOSARIOA

Atal honetan, haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren inguruan funtsezkoak diren eta estrategia honetan zehar maiz erabiltzen diren kontzeptu batzuk aurkeztuko ditugu. Horrela, hizkera komuna sortzea eta gehien erabiltzen diren kontzeptuak ulertzea sustatu nahi dugu.

SUSTAPENA:

Haur eta nerabeak eskubide espezifikoak dituzten gizarteko subjektu aktibo gisa aitortzea eta horiek modu eraginkorren bete daitezen sustatzea funtsezkoa da indarkeria prebenitzeko. Sustapenak erreferentzia egiten dio mantentzeari, hobetzeari edo eraldatzeari, haur eta nerabe guztien garapen osorako baldintza egokiak eskaintzen dituen gizarteko testuingurua sortzeari. Herritarren eskubideen gauzatze eraginkorra eta berdintasuna sustatzea ezinbestekoa da kalteberak, diskriminatzaileak edo indarkeriazkoak izan daitezkeen egoerak saihesteko.

PREBENTZIOA:

Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren Mundu Txostenaren mezu nagusietako bat da indarkeria mota bat bera ere ez dela justifikagarria eta indarkeria guztiak prebenitu daitezkeela. Prebenitzeak aurreikustea esan nahi du, aurre hartzea, zerbait gerta dadin saihestea edo eragozte. Arlo horretan espezializatuta dagoen literaturak hiru prebentzio maila hautematen ditu¹⁰⁸: lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena. Estrategia honek lehenengo ardatzean jartzen du arreta eta lehenengo mailako prebentziorako jarduketaraildoak planteatzen ditu.

Prebentzio maila honetan estrategia orokorrak ezartzen dira, herritar guztiei zuzentzen zaizkienak, indarkeriaren intzidentzia eta prebalentzia murrizteko. Maila horren helburu nagusia aldaketa soziokulturalak eta pertsonen jarrera-aldaketak sustatzea da, haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren oinarrian dauden arrisku-faktoreak aldatu ahal izateko. Arrisku-faktore horiek izan daitezke pertsonen arteko gatazkak konpontzeko indarkeria onartzea, hazteko jarraibide autoritarioak eta naturalizatuak izatea edo zigor gisa diziplina ezartzeko aukeratzat hartzea, besteak beste.

108 MORALES GONZÁLEZ, Jose Manuel, COSTA CABANILLAS, Miguel. *La prevención de la violencia en la infancia y la adolescencia. Una aproximación conceptual integral*. Intervención Psicosocial, 2001, 10. liburukia, 2 1221-239 orriak, Madrilgo Psikologiako Elkargo Ofiziala <https://journals.copmadrid.org/pi/archivos/76940.pdf>

Euskadiko eskumenen esparruak maila desberdinetarako prebentzio-egitura du, lurraldean irismen desberdina duten estrategiak sustatzeko, haien artean indartu eta herritar guztiengana hobeto hel daitezen bermatzeko.

HAUTEMATE GOIZTIARRA:

Hautemate goiztiarra funtsezkoa da ondorio eta kalte handiagoak sor daitezen eragozteko berehala esku hartu ahal izateko. Indarkeria-egoera orotan, zenbait zeinu, seinale, zantzu, adierazle, jarrera edo jokabide oharkabeen gera daitezke, horiek identifikatzeko prestakuntza egokia izan ezean, eta indarkeria-egoera posible bati buruzko orientazioa eman dezakete.

. Profesionalek zuzenean behatuta, hirugarrengeok emandako informazioari esker, edo haur edo nerabeak berak adierazten duelako hauteman daiteke. Oso garrantzitsua da arrisku-faktoreak, babes-faktoreak eta adierazle *susmagarriak ezagutzea*, hautemate-goiztiarra errazten baitute hainbat arlo eta mailatik, arloan espezializatuta ez egon arren.

Indarkeriaren inguruko kontzientziazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza beharrezko elementuak dira indarkeria-egoeren hautemate goiztiarrerako estrategiak ezartzeko. Halaber, indarkeriaren hautemate goiztiarra erakundeen arteko jarduketara eta koordinazio jarraibideen bitartez osatu behar da, jakinarazteko eta bideratzeko ibilbide argiak ezar ditzaten, arreta eta babes bermatuko duen balorazio espezializatua, berehalakoa eta azkarra izateko.

TRATU ONA:

LOPIVI onartu zenetik, kontzeptu honen inguruko legezko definizioa daukagu: “Lege honen arabera, tratu on gisa ulertzen da haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideak defendatu eta aktiboki elkarren arteko errespetua, gizakiaren duintasuna, elkarbizitza demokratikoa, gatazkak modu baketsuan konpontzea, legearen aurrean babes berdina izateko eskubidea, aukera-berdintasuna eta haurren eta nerabeen diskriminazioaren debekua sustatzen dituenena”.

Tresna honek ekarpen nabarmena egiten dio prebentzioari eta aldaketa soziokulturalen sustapenari. Tratu ona sustatzea haurrak babesteko legezko esparru bateratua izatea da, arau-aginduak betetzeko gai den eta harago joan nahi duen erakunde-egitura izatea, haur eta nerabeak zaintzeko erantzunkidetasuna gizartea osoak izan dezan.

Haur eta nerabeen aurkako indarkeriari dagokionez, bi ikuspegi osagarri hauteman dira, nahiz eta sarri aurkakotzat jotzen diren¹⁰⁹: hutsunearen eredia eta ongizatearen eredia. Lehengoak tratu txarrak eman dituen pertsonarengan eta eragindako kaltearengan jartzen du arreta, eta legezko erabakiak hartzea ahalbidetzen du, hori da sistema judizialean gailendu izan dena. Bigarrenak haur eta nerabearen ongizatean jartzen du arreta, ez da muturreko tratu txarretara mugatzen, erakundeen indarkeria eta indarkeria soziala aitortzen ditu, eta prebentzioaren ikuspegitik jarduten du. Eredua hau tratu onaren barruan sartzen da.

¹⁰⁹ LOPEZ SÁNCHEZ, Félix. *Haur eta nerabeen beharrak: familiaren, ikastetxearen eta gizartearen erantzuna*. Madril: Pirámide, 2008.

GURASOTASUN POSITIBOA

Europar Batasunean, gurasotasun positiboaren definizioa Rec 19 Gomendioaren (2006) arabera ezarri da¹¹⁰, eta hala jasotzen da: “Haur eta nerabeen interes gorenean oinarritzen den gurasoen portaera da; haiek zaintzen ditu, haien gaitasunak garatzen ditu, ez da indarkeriazkoa, eta ezagutza eta orientabidea eskaintzen ditu, haien artean haurraren garapen osoa ahalbidetzen duten mugak ezartzen ditu”. Gomendioaren arabera, guraso¹¹¹ izatearen helburua seme-alabekin harreman positiboak sustatzea da, gurasoen erantzukizunean oinarrituta, adingabeak familia barruan dituen eskubideak bermatzeko eta haur eta nerabeen garapena eta ongizatea optimizatzeko.

Hauek dira gurasotasun positiboa bideratzen duten printzipioak¹¹²:

- Harreman afektibo goxoak: onartuak eta maitatuak sentitzeko, adinarekin maitasuna adierazteko moduak aldatzen doazen heinean.
- Arauak eta balioak ikasteko errutinak eta ohiturak, ereduak, gidalerroak eta ikuskaritza eskaintzen dituen **ingurune egituratua** izatea.
- Eguneroko eta eskolako ikasketetan **akuilatzea eta laguntzea**, motibazioa eta gaitasunak sustatzeko.
- Seme-alaben **balioa aitortzeak** haiek pertsonatzat hartzea esan nahi du, haien munduarekiko interesa erakustea, haien esperientziak balioztatzea, haien kezketan inplikatzeko, eta haien beharrei erantzutea.
- Seme-alaben **gaikuntza**, eragile aktiboak eta lehiakorrak diren pertzepzioa handitzeko, gauzak aldatzeko eta gainerakoengan eragiteko gai direnak.
- **Indarkeriarik gabeko hezkuntza**, era guztietako zigor fisikorik edo psikologikorik gabea.

lido horretatik, kontzeptua berriki jaso eta zehaztu da LOVIPI legean: “Gurasotasun positiboa da gurasoen edo adingabearen tutoretza, zaintza edo harrera duten pertsonen portaera, haurraren edo nerabearen interes gorenean oinarritzen dena, eta adingabea ingurune afektiboan eta indarkeriarik gabean haztera bideratuta dagoena. Barne hartzen ditu iritzia adierazteko eskubidea, parte hartzekoa, eragiten dien gaietan kontuan hartua izatekoa, eta eskubideetan eta betebeharretan oinarritutako hezkuntza, gaitasunen garapena ahalbidetzen duena, ezagutza eta orientabidea eskaintzen dituen eta arlo guztietan garatzea ahalbidetzen duena”¹¹³.

110 Gurasotasun positiboa babesteko politiken gainean Europako Ministroen Batzardeak Estatu Kideei egindako Rec (2006) 19 gomendia, <https://www.mscbs.gob.es/ssi/familiasInfancia/parentalidadPos2012/docs/informeRecomendacion.pdf>

111 “Guraso” terminoak ez die soilik biologikoei egiten erreferentzia, haur eta nerabeen zaintzan eta heziketan parte-hartzen duten pertsona guztiei baizik.

112 HAINBAT EGILE. *Gurasotasun positiboa eta familiei laguntzeko udal-politikak*. Madril: FEMP eta Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa, 2010.

113 Legeak eranstean du gurasotasun positiboa sustatzeko jarduketak ezingo direla inolaz ere gurasoen arteko gatazketan esku hartzeko, adostu gabeko zaintza partekatua inposatzeko edo oinarri zientifikorik ez duten egoeren kasuan erabili, esaterako, existitzen ez den gurasoen alineazio sindromearen kasuan.

IKUSPEGI KOMUNITARIOA:

Ikuspegi komunitarioa duten arreta-ereduen osagaiak edo berezko ezaugarriak dira “FSE+ Estrategiaren Dokumentua 2021-2027” dokumentuan jasotzen direnak, erantzukizun publikoa duten pertsonen arretarako eta zerbitzuen kudeaketarako.

Ikuspegi komunitarioa funtsezkoa da pertsonak haien ohiko bizi ingurunean mantentzeko lehentasuna ematen zaionean. Eredua ezartzerakoan modu ezin hobean artikulatzen diren printzipioetako batzuk hauek dira: zerbitzuek herritarrekiko duten hurbiltasuna, osotasuna, erakundeartekotasuna, aukera-berdintasuna, sarbide-berdintasuna, normalizazioa edo arreta pertsonalizatua eta jarraitua.

Ikuspegi komunitarioa laguntzeko eta bideratzeko zereginetatik harago doa, pertsonetan oinarritzen den lan-esparrua ezartzen du maila pertsonalean, komunitarioan, taldeetan, familian edo norbanakoan. Pertsonen autonomia ahalik eta handiena bilatzea da asmoa, zailtasunak gainditzea, ongizatea babestea eta testuinguru bakoitzean desberdintasunak sortzen dituzten arrazoak eraldatzea.

EAEn, haur eta nerabeen garapenean esku hartzen duten zenbait arlotako ikuspegi komunitarioa arau edo planetan jasotzen da. Osasunaren arlotik, 2013-2020 Osasun Planak bere ekintzen artean sartu ditu: “Osasun-arloko ekintza komunitarioa garatzea eta indartzea, biztanleriaren osasuneko esku-hartzeen bidez, eragile guztien parte-hartzearekin eta protagonismoarekin.”. Gizarte-zerbitzuen arloan, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak zehatz azaltzen du ikuspegi komunitarioa dela bere arreta-eredua.

Lege horren arabera, ikuspegi hau da zerbitzuak diseinatzeko eta ezartzeko erreferentzia, eta, alde horretatik, baliabideak tokiko komunitatearen ezaugarrietara egokitzea ahalbidetzen du tokiko pertsonen eta erakundeen parte hartzearekin, arreta pertsonen ohiko ingurunean eskaintzea lehenesten du, arreta-plan osoak eta pertsonalizatuak ematea, eta esku hartzen duten eragile guztien jarraipena, koherentzia eta koordinazioa bermatuko duten erreferentziazko profesionalakizatea. Gainera, ikuspegi komunitarioaren esparruan, prebentzioaren ikuspegitik lan egiteko beharra nabarmentzen da, hau da, egoerak sortu aurretik jardutea edo hauteman ostean berriro gerta daitezen eragozte.

INGURUNE SEGURUAK ETA BABESLEAK:

Ingurune segurua eta babeslea¹¹⁴, batez ere, indarkeria-mota orotatik libre dagoen gunea da. Giza eskubideekiko errespetuan oinarritzen den ingurunea da, afektua eta goxotasun emozionala dituen ingurunea, eta haur eta nerabeak subjektu aktibo eta protagonistatzat dituen. Ingurune horrek haur eta nerabe guztiak erabat garatzeko egokia izan behar du, tratu onerako eta genero-berdintasunerako egokia, eta haien parte-hartzea eta autonomia sustatzen dituen. Oinarri horien gainean eraikitzen den ingurunean ez dago erasoak izateko aukerarik.

114 HORNO, Pepa. *Latinoamerikako eta Karibeko Haurren Herrixketan ingurune seguruak eta babesleak sustatzea*. Aldeas Infantiles, 2018.

Ingurune seguruak eraikitzekeo kompetentzia profesional garrantzitsua da afektibitate kontzientea, eta sarri ikusezin bihurtzen da edo pertsonalitatearen ezaugarriekin lotzen da. Hori pertsona batek modu kontzientean, boluntarioan eta sistematikoan ingurune babeslea, eta emozionalki goxoa sortzeko eta bertan harreman afektibo positiboak eraikitzekeo duen gaitasuna da. Pertsonekin eta batez ere sufritzen ari diren pertsonekin lan egiten duten profesionalen kasuan, afektibotasuna ez da aukera bat, betebeharra baizik. Afektibotasun kontzientea inguruneetan sustatu, ebaluatu eta sistematizatu beharreko gaitasun profesionala da. Horretarako beharrezkoak diren baldintza pertsonalak eta antolakuntzakoak sortzea ahalbidetzen duten trebakuntza eta garapen-prozesuen bitartez lortzen da kompetentzia hori.¹¹⁵

Ingurune seguru eta babesle horiek sortzeko azken ardura helduena da, haien izan behar baitute ikuspegi kontzientea, baita haur eta nerabeen zaintzaren ardura duten instituzio edo erakunde pribatuena ere. Nabarmendu behar da indarkeria pairatu duten edo pairatzen ari diren haur eta nerabeen kasuan, osatzeko ezinbesteko baldintza dela ingurune seguruak eta babesleak eskaintzea.

HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA:

Hezkuntza afektibo-sexuala indarkeria eta genero-diskriminazioa prebenitzeko funtsezko tresna da. Nazioarteko erakundeek eta espezializatutako erakundeek hezkuntza sexual-afektiboa ikasgeletan sistematikoki txertatzeko beharra nabarmentzen dute. OMEren¹¹⁶ arabera, sexualitatearen eta sexu-osasunaren arloan dauden giza eskubideak dira sexu-eskubideak. Horien artean daude esaterako, informaziorako eskubidea edo hezkuntzarako eskubidea. Alde horretatik, nazioarteko erakundeak berresten du "hezkuntzaren sektorean, adin bakoitzera egokitutako sexu-heziketa osoaren inguruko orientabideak eta eduki normalizatuak eskain daitezkeela ikasketa-planen barruan, eskolaurretik hasi eta unibertsitatera arte, eta eskolan eta eskolaz kanpo eskain daitezkeela".

Heziketa sexual-afektiboa adin goiztiarretatik eta hezkuntzako etapa guztietan txertatzeak honako hauek ahalbidetzen ditu: berdintasuna eta dibertsitatearekiko errespetua izatea, abusuak hauteman eta saihestea, sexu-transmisio bidezko gaixotasunak saihestea, indarkeria matxista prebenitzea, sexualitate osasungarria garatzea eta autoestimua eta nor bere buruarekiko konfiantza garatzea.

"Sexualitatearen heziketaren inguruko Nazioarteko Jarraibide Teknikoak: ebidentzian oinarritutako ikuspegia" UNESCOren¹¹⁷ txostenak honela definitzen du sexu-heziketa: "Sexu-heziketa integrala sexualitatearen alderdi kognitiboen, emozionalen, fisikoen eta sozialen inguruan irakatsi eta ikasteko curriculumean oinarritzen den prozesua da. Haur eta gazteak prestatzea da helburua, hauetarako ahaldunduko dituzten ezagutzen, gaitasunen, jarrerren eta balioen bitartez: Haien osasuna, ongizatea eta duintasuna izateko; errespetuzko harreman sozial eta sexualak garatzeko; haien aukerak haien

¹¹⁵ HORNO, Pepa. *Afektibotasun kontzientea, antolaketarako gaitasun gisa*. Aldeas Infantiles, 2018.

¹¹⁶ OME. *Sexu-osasuna eta erreprodukzio-osasunarekin duen lotura. Ikuspegi eragilea*. OME, 2019 <http://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/274656/9789243512884-spa.pdf?ua=1>

¹¹⁷ UNESCO. *Sexualitatearen heziketaren inguruko nazioarteko jarraibide teknikoak: ebidentzian oinarritutako ikuspegia*. UNESCO, 2018.

ongizatean eta gainerakoenean nola eragiten duten jakiteko; eta bizitzan zehar dituzten eskubideak ulertzeko eta babesten laguntzeko”.

BIZITZARAKO GAITASUNAK:

OMEk 1993an atera zuen Bizitzarako Gaitasunen Eskoletan Hezteko Nazioarteko Ekimena (Life Skills Education in Schools), gaitasun psikosozialaren sustapenean garrantzitsuak diren hamar trebetasun orokor hedatzeko helburuarekin, eta “bizitzarako gaitasunak” izena jarri zien. Erakundeak honela definitu zituen bizitzarako gaitasunak edo gaitasun psikosozialak; “pertsonek batek eguneroko bizitzako exijentzietan eta erronketan arrakastarekin aurre egiteko dituen gaitasunak”.

Bizitzako oinarrizko hamar gaitasunak dira: erabakiak hartzea, arazoak konpontzea, pentsamendu sortzailea, pentsamendu kritikoa, komunikazio afektiboa, pertsonen arteko harremanak, autoezagutza, enpatia, emozioen kudeaketa eta estresaren kudeaketa.

UNICEFen arabera¹¹⁸, tratu ona sustatzeko eta haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko tresna da, hainbat portaera garatzea sustatzen baitu, hala nola jarrera positiboa, errealista eta saiaturia izatea, modu adierazkorrean komunikatzea, diskriminaziorik gabeko ekintzak eta jarrerak izatea, pertsonen arteko harremanetan atsegina izatea, berdinekiko ulermena eta hurbiltasuna izatea, norberaren ideiak gainerakoei ez inposatzea edo bizi proiektu baterako bideak eraikitzea.

HEZIKETA EMOZIONALA:

Heziketa emozionala da bizitzarako gaitasunak garatzeko funtsezko osagaietako bat. Heziketa emozionala prozesu hezitzailea, jarraitua eta iraunkorra da, emozioen inguruko ezagutzak eta gaitasunak garatzeko eta, era berean, garapen kognitiboa sustatzeko. Izan ere, bi elementuak osagarriak eta beharrezkoak dira pertsonalitate integrala garatzeko, osasunean eta bizikidetzan ongizatea areagotzeko eta eguneroko bizitzako erronketan aurre egiteko.

Gainera, ulertzen da haur eta nerabeek ezagutza akademikoez gain, bizikidetzan eta bizitzan oro har gertatzen diren esperientzietan aurre egiteko baliabideak eta estrategiak behar dituztela, prebentzioan eta giza garapenean oinarrituta. Horretarako, heziketa-prozesu teoriko eta praktikoen bitartez gaitasun emozionala modu sistematikoan sustatu behar da: jarrera positiboak bizitzaren aurrean, gaitasun sozialak, enpatia... Hala, ongizate pertsonala eta soziala areagotzeko dira.

SEKRETU PROFESIONALA, KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA:

HEHren 8. artikulua estatuek haur eta nerabeen intimitatea eta identitatea behar bezala babesteko eta indarkeriaren biktimak identifikatzeko lagungarria izan daitekeen informazioa hedatzea saihesteko neurriak hartzeko betebeharra dutela ezartzen du.

118 UNICEF. *Bizitzarako gaitasunak: tratu onerako eta indarkeriaren prebentziorako tresnak*. Unicef, 2017.

Sekretu profesionala esaten zaio zenbait profesionalek erabiltzaileengandik jasotako informazioa isilpean gordetzeko legezko betekizunari. Epaketetan ere betekizun hori bete behar dute.

Konfidentzialtasuna, ordea, konfiantzan egiten edo esaten dena da, bi edo pertsona gehiagoren arteko elkarrenganako segurtasun-testuinguru batean, eta printzipio etiko batekin lotuta dago.

Ustezko indarkeria kasu baten aurrean inplikaturako pertsonen identitatea gordetzea ezinbestekoa da haien eskubideak bermatzeko. Ekintza guztiak erregistratu egin behar dira eta eskumen zuzena duten pertsonak soilik izango dute sarbidea.

Azkenik, datuen babesa erabiltzaileek beren espedientean dauden edo dagozkien beste edozein dokumentutan dauden izaera pertsonaleko datuak 3/2018 Legean, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan eta Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean aurreikusitakoa betez tratatuak izateko duten eskubidea da, profesionalek gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileei buruz jakindako informazioa gorde behar izatekoa ere bai.

IV. ERANSKINA: DATUEN TAULAK

URTEKO ZAINZA ETA TUTORETZEN GUZTIZKOAREN GAINEAN HARTUTAKO HAUR ETA NERABEEN ETA FAMILIA-HARREREN KOPURUA Absolutuak eta %ak Bizkaia eta Araba. 2016-2020.

	2016	2017	2018	2019	2020
BFA: Urteko tutoretzen eta zaintzen kopurua.	2.003	2.570	2.618	2.398	2.265
Urte amaieran hartutako haur eta nerabeen ehunekoa	7,7	16,5	22,9	20,5	14,6
Urte amaieran harrera-familien ehunekoa	15,7	12,3	17,0	13,6	19,1
AFA: Urteko tutoretzen eta zaintzen kopurua.	233	609	449	582	548
Urte amaieran hartutako haur eta nerabeen ehunekoa	27,9	10,8	20,7	5,8	8,0
Urte amaieran harrera-familien ehunekoa	51,1	18,4	23,4	16,3	18,2
GFA: Urteko tutoretzen eta zaintzen kopurua.	667	696	779	765	711
Urte amaieran hartutako haur eta nerabeen ehunekoa	9,3	9,2	14,1	14,5	9,4
Urte amaieran harrera-familien ehunekoa	52,2	50,3	45,8	45,2	46,3

Iturria: Foru-aldundietako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren sailletako memoriak.

URTEAN ZEHAR EGOITZETAN HARTU DITUZTEN HAUR ETA NERABEAK. Absolutuak. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa. 2016-2020

	2016	2017	2018	2019	2020
Bizkaia	474	1.120	1.586	1.222	725
Araba	133	150	90	143	106
Gipuzkoa	371	561	728	487	185

Iturria: Foru-aldundietako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren sailletako memoriak.

INDARKERIA PAIRATU DUTEN ADINGABEAK SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA Absolutuak eta %ak EAE. 2016-2020

	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	1.102	1.246	1.501	1.427	1.459
Neskatoen %	53,4	54,2	55,6	54,9	54,0
Mutikoen %	46,6	45,8	44,4	45,1	46,0
10 urtetik beherakoen %	20,8	17,4	27,6	23,8	26,9
10 eta 13 urte artekoen %	23,5	24,0	24,3	27,0	25,3
14 eta 17 urte artekoen %	55,7	58,6	48,2	49,2	47,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Azterketa eta analisi dibisioa.

INDARKERIA PAIRATU DUTEN ADINGABEAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA Absolutuak eta %ak EAE. 2016-2020

	2016		2018		2020		Bilakaera 2016 - 2020	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	1.102	100,0	1.501	100,0	1.459	100,0	+357	+32,4%
Bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeria	60	5,4	68	4,5	75	5,1	+15	+25,0%
Familia barneko indarkeria (bikotearena/bikotekide ohiarena izan ezik)	393	35,7	654	43,6	664	45,5	+271	+69,0%
Sexu-askatasuna	128	11,6	224	14,9	159	10,9	+31	+24,2%
Familiatik kanpo egindako beste delitu batzuk	521	47,3	555	37,0	561	38,5	+40	+7,7%

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Azterketa eta analisi dibisioa.

10 ETA 17 URTE BITARTEKO ADINGABEEK HAINBAT EREMUTAN SEGURTASUNAREN INGURUAN DUTEN PERTZEPZIOA SEXUAREN ARABERA % segurtasunik eza beti, ia beti edo maiz. EAE. 2021.

SEGURTASUNIK EZ beti, ia beti edo askotan	Kalea	Jolastokia	Ikasgela	Eskolaz kanpoko jarduerak- kirola	Jangela	Jarduerak- lagun taldeak	Internet- sare sozialak
Guztira	% 20,5	% 5,6	% 7,9	% 6,9	% 17,2	% 5,6	% 12,1
Neskak	% 28,9	% 5,7	% 8,1	% 8,4	% 15,8	% 5,8	% 16,3
Mutilak	% 11,7	% 5,3	% 7,4	% 4,9	% 18,2	% 5,0	% 7,6
Ez bitarra	% 24	% 14,8	% 22,2	% 23,1	% 35,0	% 16,7	% 19,2

Iturria: UNICEF. Harreman naturalen inguruan segurtasunari/segurtasun ezari buruz duten pertzepzioaren inguruan haur eta nerabeei egindako kontsulta. Espainiako Unicef. Madril. 2021.

HAINBAT EREMUTAN INDARKERIA-EGOERA BAT PAIRATUZ GERO NORA JO BADAKITEN 10 ETA 17 URTE ARTEKO ADINGABEAK %. EAE. 2020.

Badaki norengana jo...	Kalea	Eskola	Eskolaz kanpoko jarduerak	Internet-sare sozialak
Bai	% 53,5	% 74,8	% 42,0	% 23,2
Ez	% 46,5	% 25,2	% 58,0	% 76,8

Iturria: UNICEF. Harreman naturalen inguruan segurtasunari/segurtasun ezari buruz duten pertzepzioaren inguruan haur eta nerabeei egindako kontsulta. Espainiako Unicef. Madril. 2021.

FAMILIA BARRUKO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADINGABEAK SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA Absolutuak eta %ak EAE. 2016-2020

	2016	2017	2018	2019	2020
Adingabeen indarkeria kasuak, guztira	393	442	654	657	664
Neskatoen %	51,7	54,1	53,8	51,4	52,6
Mutikoen %	48,4	45,9	46,2	48,6	47,4
10 urtetik beherakoen %	41,7	34,8	45,9	40,6	47,3
10 eta 13 urte artekoen %	23,9	28,1	24,2	28,8	24,1
14 eta 17 urte artekoen %	34,4	37,1	30	30,6	28,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Azterketa eta analisi dibisioa.

FAMILIA HARREMANEN AURKAKO DELITUENGATIK FISKALTZAK IREKITAKO AURRETIAZKO DILIGENTZIAK Absolutuak eta %ak EAE. 2016-2020

	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	1272	1212	1081	953	696
Legearen aurkako ezkontza	2	1	1	0	1
Haurdun dagoen ustea	0	2	0	0	1
Gurasotasunaren aldaketa, adingabearen egoera edo baldintza	2	0	3	1	0
Zaintza-zereginak ez betetzea	58	69	66	45	21
Adingabeak etxetik joatera bultzatzea	7	4	5	5	3
Adingabea berekin eramatea	29	62	71	59	47
Familia abandonatzea	217	217	144	152	95
Haurrak abandonatzea	33	39	34	47	30
Pentsioak ez ordaintzea	914	814	750	631	495
Umeak eskean aritzeko erabiltzea	0	3	1	2	1
Adingabea edo gai ez den pertsona behar bezala ez ematea	10	1	6	11	2

Iturria: EAEko fiskaltzaren estatistika-datuak

TRATU TXARREN INDIZE OROKORREN ETA LARRIAREN INDIZE OROKORRA, HEZKUNTZAKO MAILEN ARABERA % eta ehuneko bilakaera EAE. 2012-2018.

	2012	2016	2018	2012-2018 bilakaera
Tratu Txarren Indize Orokorra LHn	21,7	22,7	20,2	-1,5
Ziberbullying orokorra	11,8	13,8	10,8	-1
Ziberbullying larria	2,8	3,4	2,8	0
Tratu Txarren Indize Orokorra DBHn	14,9	19,2	16,2	1,3
Ziberbullying orokorra	10,3	12,5	10,5	0,2
Ziberbullying larria	1,8	3,1	2,4	0,6

Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarren txostenak.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK, INDARKERIA MOTAREN ETA ADINAREN ARABERA. Absolutuak eta urteko hazkundea %. EAE. 2016-2020

	2016	2017	2018	2019	2020	2016-2019 bilakaera
Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen guztizkoa	3.774	4.020	4.244	4.419	4.177	+645 (+% 17,1)
Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimen guztizkoa	2.797	2.905	2.989	3.098	2.892	+301 (+% 10,8)
Indarkeria matxistaren biktima izan diren adingabeak	285	381	491	468	454	+183 (+% 64,2)
Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasan duten adingabeak	54	72	65	69	66	+15 (+% 27,8)

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Azterketa eta analisi dibisioa.